

JUAN SAN MARTIN

EUSKARAREN OSTARTEAK



Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright jabeen baimenik gabe.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Azalaren diseinua:

© Juan San Martin

© EREIN. Tolosa Etorbidea, 107 - 20009-Donostia

ISBN: 84-7568-757-1

Legezko Gordailua: S.S. 238/98

Inprimatzailea: ITXAROPENA, S.A. - Araba kalea, 45 Zarautz

Aurkibidea

Aitzinsolasa	9
Euskararen berri onak eta berri txarrak (1996)	
I - Antzinatik Erdi Arora, ageriak lekuko.....	37
II - Trentoko Kontzilioaren eragina	40
III - Administrazioaren jarrera	43
IV - Eskoletan haurrak eraztunez zigortzearena	51
V - Ombudsmanen ikuspegitik	55
VI - Gaur egungo egoera	60
Euskararen inguruan (1969)	
I - Euskaldun zertarako?	73
II - Hizkuntza eta etnia.....	79
III - Munduko erakunde nagusiak hizkuntzen bizitzaren alde.....	95
IV - Euskara eskoletan.....	101
V - Euskararen batasuna	107
VI - Euskaldunok euskaraz	111
VII - Euskal literatura.....	116
VIII - Azken hitzak.....	124
Izen zerrendaren aurkibidea	127

Munduan orai hari gaituk
Xuxentzen eman-hartuak.
Huna kontuen egiteko,
Plumak eta libruak.

Gure obrek izanen dute
Bere koroa justua.
Ereintza bezain izanen da
Orduan handi fruitua.

Ogiak ogia daroku
Bere denboran ekhartzen;
Bainan erein ezten lekhitik
Sekulan ezta ilkhitzen.

(Bernard Gazteluzar, 1686)

AITZINSOLASA

Hizkuntz zaletasunak berez dakar hizkuntzenganako kezka eta ardura. Hizkuntz zaletasunerako bideak ordea, era askotari-koak dira. Ni neu, ustegabeen iratzartu nintzen soldadutza garaian. Amari gutuna egin beharrean aurkitu nintzenean, ezinezko iruditzen zitzaidan bere bularretik ikasia nuen hizkuntzan hezitua nintzelarik ikaskuntzetako gazteleraz idatzi beharra. Batzuetan hori gertatzen da: buruak pentsatzen duena bihotzaren esanetikakoa denean.

Lehen gutunak erdal grafiaz euskaraz egin nizkion eta berehala arduratu nintzen Faustino Mujika mendizale lagun onari inoiz entzun izan nion euskal gramatika eskatzeaz. Izan ere, orduan galdetzen nion nire buruari zergatik baztertzen nuen gurasoengandik ahoz ikasia erdarazko eskolak hartu nituenaren. Bi hizkuntzok ez ote zuten lekurik niregan?

Egia esan, haurtzarotik neraman mendizaletasunean ohiturik nengoen Bizkai-Gipuzkoetako hizkerak entzuten eta ulertzen. Oroitzapen onak nituen euskaraz harremanak izan nituen baserritar zein artzainenak. Ibilaldietan non-nahi aurkitu bainuen euskaldunengandik anaikirozko laguntza, jana, ura eta ostatuaren babesa euskarari esker. Euskarari esker diot, zeren euskaldun izateak hurbiltzen baininduen baserrietan edo sa-

roietan elkar anaikiro hartze horretan. Hortik iratzartu zen nire herriarenganako maitasuna, eta maitasunak dakar zaletasuna. Gogoeta horien bidez, neuk igarri gabe euskaltzaletasuna piztu zitzaidan.

Gainera, gazteleraz ez zekiten euskaldunen lepotik trufaka aritzeak bihotza mintzen zidan. Horiei tratu txarra ematen zien subofizialak eurak sumindurik jartzen ninduten eta, hala ere, nire mindura isillean gordetzen ikasi nuen, zeren maiz itzultzaile egin behar izaten bainuen. Inoiz ni neu euskaraz mintzatzen entzun nindutelako, nire lepora hartu behar izan nituen zigorrak ere ez ziren makalak. Baina erraz eramaten nituen, nire duda-muda haientzat akuilatze pizgarria sortzen zidatelako. Ez zuen balio Espainiako hizkuntzarik zaharrena gure hau zela esateak. Francoren “la nueva España” hartan ez zuen lekurik. Hala ere, ez nuen gorrotatzen gaztelera, ezta gutxiagorik ere, zeren bestela beraien mailara eroriko nintzen. Hizkuntzan ez zegoen inolako hutsik, hiztunen uste okerretan edo gizatxarren baitan izan ezik.

Bestalde, soldadutzako garai hartan, Madriletik Burgosera aldatu nindutelarik, hemengo kuartelean biblioteca nahiko ona aurkitu nuen. Horrela banuen aukera mutikotatik nekartzan nire irakur zaletasuna eta jakin-mina non ase. Suitzako kantoï konfederatuen historiaz eta antolakuntzaz bi tomo aurkitu nituen bertan. Nire mendizale minaren ametsetariko bat nuen noizbait hara iristea eta bi liburukiok arretaz irakurtzeari eman nion. Hura nire harridura!, Konstituzio beretik lau hizkuntza ofizial zirela jakiteaz. Retiakoek, hain mintzatzaile guti zirenez, lehenik beraiena baztertzearen alde omen ziren, baina konfederazio gobernukoek ezezkoan zeuden, gomendatuaz hizkuntz gutxitua izanagatik beraien jatorrizkoa zela eta inoiz galtzen bazen lau hizkuntzen arteko oreka haustea ekar zezakeelako Retiakoa gorde beharrezkoa zela adieraziz. Horregatik onartu zuten. Baina elebitasunez, bigarren hizkuntzaren hautapena

gurasoen baitan utziz, eskola bertatik konfederazioko beste hiru hizkuntzetariko bat ikas zezaten erbesteekiko harremanetarako on zeritzotenez. Beraz, ez da harritzekoa Suitza seiehun urtetan bakez bizitzea.

Eibarren, kaleko giroa, eta neurri handi batean etxean bertan ere bai, zentzu abstraktu batean, mundua hizkuntza bakar batera eramatearen aldekoa zen eta ordurarte nik neuk ere hala pentsatzen nuen. Teoriaz, esperanto sarri aipatzen zen sozialista ideietako jende artean, baina gaztelera horretara iristeko bide aukerakoa zen uste osoan. Ulertu ezin nuena, zera zen, Europako ekialdean bazirela estatu sozialistak baina horietatik inork ez esperantorik. Errusiera denen gainetik? A!, zer nahaspilak nituen.

Nor da gai zein bai eta zein ez erabakitzeke. Dena dela, bidegurutze hartan gogoetagai nuen hizkuntzen arazoa.

Baina, geroago konturatuz joan nintzenagatik esan beharra dut, behar bezala ezagutzen ez den hizkuntzari buruz iritziak ematea ez dela zuzena. Baliabideak eurak ere, era askotarikoak izan daitezke. Zergatik eta zertarako balioak ere xehetasungarriak direnez gero. Hau ere eskolatik irakatsi beharrezkoa dugu, elkar errespetatuz biziko bagara; baina ez ziguten irakatsi.

Niretzat, euskara, baliagarri izan nuen Euskal Herriko hiri, ibar eta mendietan zehar lortzen nuen harrera onagatik eta, ondorioz, gu ere munduaren zati osagarri bat ginela ohartzen nintzenez.

Hogeitabat urte nituen eta inoiz ez zen berandu norbere gizarte hurbilenaren aurrean bertako seme jatorraren jarrera hartzeko. Geroztik, arretaz, etengabe jarraitu diot, besteak ukatu gabe, norbere jatorrizkoari lehentasuna emanaz. Lehenbiziko urrats haietan latza aurkitu nuen F. Mujikak igorri zidan Zabalá-Aranaren gramatika hura. Liburuak irakurtzea atseginagoa zitzaidan, zeren irakurketa mutikotatik nuen maite mundu zabalagoaren ikuspegia irekitzen zidan heinean.

Edozelan ere, aurreak atzea nola erabili erakusten duenez, lehenagoko kanta, ipuin eta kondairaz arduratu nintzen. Aita-rengandik jasotako tradizioz gehienak eibartar kalekumeontzat oso arruntak ziren, han bertan nornahirengan aurkitzen nituen; aldiz, amarengandikoak bestelako bitxitasun berezia zuten, eza-gutu ez nuen aitonarengandik ikasi zituenak, beraien iturritzat Arabako Billerle (Legutiano) omen. Baina euskaran gehiago sakonduz ohartu nintzen beretariko askoren hizkera ekialdera-gokoa zela, beren giputz forma nabariagatik. Sebastian Ortiz de Zarate Elgea aitona zenarengandiko mezua, gure amak ikasiak zituen kantak nituen eta haietarik asko izaten genituen familia-ko batasunean Gabon gauaren alaigarri, eta aldi berean arbaso katearen loturazko oroitzapena. Horren gogoetatik konturatzen nintzen sentipenari mugak jartzea zein zaila zen eta geroztik bestelako ikuspegia izan dut hizkuntzari buruzkoan.

Irakurri berria dut sentipenez eragin berdintsuko esperien-tzia bizi izan zuen Emine Sevgi Özdamar idazlearen “Amaren hizkuntza” (*Mutterzunge*) deritzana, Miguel Sáenz-ek gaztelerara itzuli duena. Egilea, Turkian jaio arren gaztetxotatik Alemanian bizia eta ikasketak bertan egina da, alemanieraz idazle ospetsua izatea lortzera arte. Ohartzen delarik jatorrizko hizkuntza galzo-rian zuela, amagandikoaz berjabetu nahi du. Gainera, 1926. urtean Atatürk agintariak arabe idazkera debekatua zuenez, bere ordeztan latin alfabetoa behartuz, horren aurrean konformagaitz azalduz arabe grafia ere ikasteari eman zion. Hura baitzuen era-rik egokiena aitonarekin zein bere jatorrikoekin gogozko loturaz elkartzeko bide bakarra. Eta, gogozko lekuan, mugarik ez.

Geroago ezagutu nuen gure azken erromantikoen arteko F. Arrese Beitia olerkariak 1881ean idatzi zuen bertso eder hura, eta maiz kantatu ere bai:

*Euskaldun jaio nintzan,
Euskalduna azi,
Euskara utsik amak*

*Eustan irakatsi;
Euskara maite maite,
Zabiltz neugaz beti,
Euskara ill ezkeru
Ez dot gura bizi.*

Soldadutza ondorengo urteetan Eibar euskaldunean, adineko abertzaleen aldetik, ez nuen aurkitu euskara idatziaren alde-rako girorik, ez euskararen alde zerbait egiteko ere. Izu ziren, beldurturik euskararen alde zerbait egiteko eta askok semeei ere ez zien irakatsi. Hortik konturatzen nintzen zein gogorra izan zen anaiarteko gudu hura presondegiaren zigorra jaso zutenentzat.

Euskarazko literaturan murgildu beharra nuen, ahozko tradiziokoan, bertan sortutakoan zein itzulpenetan. Legoaldik (Alejandro Larrakoetxea) itzulitako Grimm anaien *Ipuinak* oso atseginak aurkitu nituen, gerrarengatik mutikotan Arratian bizi izan nintzelako bertako hizkera ez zitzaidan arrotz. Gainera, haietako batzuk, harrigarria bazen ere, herri literatura gisa ama-rengandik ezagutzen nituen. Baina baita ere atsegingarriak eta irakurterrazak iruditu zitzaizkidan Urruzuno elgoibartarraren *Ipuinak*; gipuzkeraz egon arren, eibartarrantzat auzoko denez, bere hizkera maiz entzuna eta ulerterraza zitzaigun eta, nire kasuan, ordurako asko ibilia nintzen Gipuzkoan zehar eta bertako hizkerak ezagunak nituen. Hortik aurrerakoa errazagoa egin zitzaidan. Aldi berean irakurri nituen Azkue eta Barandiaranen bilketazkoak, euskara eta euskaldunen ohiko kultura hobeto ezagutzen lagundu zidatenak, noski. Baina, geroztik, gure literatura sakonago ezagutzeaz, Yon Etxaide donostiar idazle eta mendilagun zintzoari asko zor diot lehen urrats haie-tan gidatu ninduelako. Izan ere, gure literaturako autore zaharrei buruz klandestinoki hitzaldi bat eman ziezagun eskatu nion eta hitzaldi hartan oinarriturik sortu zitzaion geroago, 1958. urtean, Mitxelenaren hitzaurrez argitara eman zuen *Amasei*

seme Euskalerriko. Hortik ikus genezake, Francoren garaian, zein nekeza zen gure kultura ezagutzea eta batez ere zabaltzea.

Horrek bultzatu ninduen Bizkai-Gipuzkoetatik haruntza Nafarroa herriz zein mendiz ezagutzera eta, geroago, pasaportea lortu nuen garaitik, mugazbestaldekoak ere bai.

Horren ondorioz, zein atsegingarri zitzaidan Donibane-Garazin nire burua arrotz ez aurkitzea, eta atseginago handik ez hain urruti Urepelgo Salbadorrenean Fernando Aire “Xalbador” zena eta bere familiarekin mahai berean bazkaltzea. Donostiar mendizaleengandik ikasia nuen Agur Ziberua kanta eta Zuberoako Irurin Pierre Bordaçarre “Etxahun-Iruri” zenarekin izan nituen elkarriketak ere gogoangarriak ditut, tarteka xirula joaz eta bere ahotik “khanta” atsegin haiek entzunaz. Ordurako Lapurdi eta Baxenabarreko idazle askoren lanak irakurriak nituen eta, ahal nuen neurrian ahalegintzen nintzen lapurteraz zerbait mintzatzeko. Horregatik, zuberotarrek esaten zidaten “Zu etzera üskaldun espainola, zu manexa zira”.

Gaur, gure literaturan, idazleen estilo egokiaz jabetzeko, irakurri beharrezkoak iruditzen zaizkit joan zen mendean Iparraldekoek idatzi zituzten lanak. Gomendagarri ez ezik eredu garri ditugu, beste zenbaiten artean, honako hauek, Elizanburen poesiak, Barbiarren ipuinak, Duvoisinen eta J.-P. Arbelbide apaizaren hitzlauzko lan eredu garriak bereziki. Literatura landuaren emaitzak dira. Oroi Errenazimentu garaiarekin XVI. mendean hasi zirela Iparraldean eta, XIX. ean, aurrekoen eragina argi nabari zaie. Hegoaldean ordea, berandu hasteaz gainera, uste okerreko “garbizaletasun” hark ez zigun behar bezala lagundu. Hala ere, mende honen lehen partean pizkundea nabari zen, gerrak nolabaiteko etena ekarriko ziona.

1959an, ahal bezala berpizkunde bila genbiltzan taldetxo batek, Eibarren jaio zen Juan Antonio Mogel idazlearen omenaldizko hitzaldiak antolatu genituen, Euskaltzaindiaren babespean, bertan euskaltzaletasuna ernarazteko asmoz gerra ondoko

lehen Gipuzkoako bertsolari txapelketaren antolakizuna arretaz hartu genuen eta aldi berean ikastolak sortarazi.

Eibar euskaldunean, oso gutik irakurtzen zuten euskaraz. Askorentzat “garbizalekeria” eta inguruko hizkeretakoa ez zena, arrotza bezala zen. Bestalde, bertatik kanpo non-nahi entzuten zuten euskararik txarrena Eibarkoa zela, eta horregatik bertako hizkerari gutietsirik ziren. Hori izan nuen arrazoitzat bertako anekdota eta humorezko ipuin laburrak bilduz *Zirikadak* eta *Eztenkadak* deituko nituen bi liburu haiek bertako hizkeran argitaratzeko. Horietan badaude kritika gisa zirikatzaile direnak, neronen inguruan aurkitzen nuen iritzien giroari lotuak, jende artean kalean euskaraz euskaragatik entzuten nituenetan oinarrituak; adibidez: “Ori ta ba-pezu igualak”, “Euskeraren berriak”, “Artoberotarrak” eta abar bezalakoak, gure erdarakadak ere barruan direla. “Orixe” rengandik jaso nituen laudoriorik hoberenak, zeren hura laster ohartu baitzen eibartarrok bizkaierazko gramatikaren erabilera zein ona genuen. Beste askok ordea, esaceren aberastasuna aurkitu zuten, baina baita erdarazko hitzen ondoan euskaraz guti ezagutzen direnak ere. Dena dela, eibartar askori euskaraz irakurtzen hasteko aukera eskaini nioen. Eta hori ez da guti.

Euskaltzain oso izendatu nindutenetik laster eman zidaten erakundearen idazkaritza ardura. Lehen lau urteetan atseginez aritu nintzen, baina une larriak bizi behar izan nituen 1968an Arantzazun euskara batuaren batzarrak antolatu genituenetik, ez batzar haietan gauzak ondo joan ez zirelako, orduan batzuk azpizanean aritu zirelako baizik. Ordurarte denentzat ona nintzen, baina geroztik, zenbaitentzat deabrua. Hala ere, zegokidan kargua arautegiaren arabera bete eta betearazi besterik ez nuen egin, zeren batasunaren bideak nondik eta nola behar zuten oharrarazteko ni baino jakitunagorik bazen. Horien artean, guzior gogoko zen Mitxelenaren gidaritza eta batzuek zin egin genuen berak gomendatzen zigun bideari jarraitzeko. Zen-

baitzuentzat, H “madarikatua” zen auzia. Baina han, idaztean erabilera gomendatu baizik ez zen egin, eta gomendioari jarraituz, ordurarte H-rik gabe idazten nituen batzar ageriak, ondotik H-rekin hasi nintzen. Euskera agerkarian publikatuak dira horren lekuko. Eta hori nonbait nire bekatua.

Euskaltzaindiari bere sorkuntza garaitik arautegiak eskatzen zion eginkizunetariko bat betetzeko asmoz bildu ginen 1968an. Baina esan beharra dut, neurri batean bultzatuak izan ginela. Gure historian inoiz baino idazle gehiago genuen eta aldi berean ikastolak ere bai. Lehenago, Azkue zenaren iritziz, nekeza omen batasun bidea lortzea eskolarik gabe eta idazleak urri zirenez. Baina gauzak aldatu ziren, idazkeraren batasun eskariak nonahitik zetozen eta, arauak emateko, une hura aukerakoa iruditu zitzaigun. Gaur egun ordea, inork ez du zalantzarik, hezkuntzak daraman bidea ikusirik, eskerrak bide urrats hari, lasai esan genezake gauzak hobeto aurreratu ahal izan direla. Gainera, H-aren auziak gainerako guziari bidea erraztu ziola. Letra horrekin itsuturik, bestelako erabakiak lauso artean bezala gaintu baitira. Orduko hitzaldi, elkarrizketa eta erabakiak Euskaltzaindiaren Euskera XIII, 1968 eta XVI, 1971ko agerkarietan jasoak datoz. Beharrezko lehen urratsak emanak ziren. Handik hamar urtera Bergaran, erabilera idatzia estatistikoki aztertuz, erabaki zehatzagoak hartu ziren, ikus *Euskera*, XXIII, 1978, 2. alea. Eta ondoreak guzian begi aurrean ditugu.

Baina, esan beharrezkoa iruditzen zait 1968. urte hartan, Venezuelatik etorri berri zen Martin Ugalde idazle ospetsuak, berak uste baino laguntza hobea eskaini zigula. Arantzazun partaide eta arduradun izan ziren zenbait pertsonari elkarrizketak egin zizkielako *Zeruko Argia* astekarirako. Urte haietan euskaldunok gehien irakurtzen genuen prentsa zen *Zeruko Argia*, eta oso biziak ziren zuzen-zuzenean eginiko elkarrizketok. Ezin uka orduko giroaren lekuko ez direnik. Martin Ugaldek, berari betidanik dagokion zintzotasunez jokatu zuen, bere burua inoren

alde edo kontra jarri gabe. Baina entzunak eta jasoak lekuko zituelarik, berak igarri gabe hartu zuen batasun bidea. Elkarrizketa haiek, 1989. urtean *Batasun eta zatiketen artean* izenburua emango zion liburuan bildurik berrargitaratuak datoz. Jakinmina duenak irakurri beharrezkoak, noski.

Garai hartan, agian, bertsolari txapelketak antolatzeaz gainera, arduratsua bezain garrantzitsua izan zen beste ekintza bat, Rikardo Arregiren asmoetako euskaldunen alfabetatze kanpainari heldu genion. Honetan, zatiketa ere sortu zen, norbaitzuek aldi berean talde-politiko lana egin nahi zutelako, gramatika analisisetarako marxista testu jakinak euskarara itzuliaz erabiltzeagatik. Euskaltzaindia zen ekintzaren arduradun eta bilera nagusi baterako deia egitera behartua izan zen 1969an Arrasaten. Idazkari bezala, lanik neketsuena leporatu behar izan nuen, garbi utzi nahirik hizkuntza guzietan idazle klasikoetarik jatorrenak erabiltzen zituztela ikasgai eta ez itzulpenak. Orduan prestatu genuen haran bakoitzean guraso hizkeratik hurbilen lan egiteko toki bereko idazlerik hautagarrienen zerrenda. Hala ere, askorentzat hori ez zen nahikoa, baturantz zuzen joatea nahiago zuten. Gure ustez ordea, hiztegia eta gramatikaz gainera esaldiak ere irakatsi beharrezkoak ziren eta hauek bakoitzak bere hizkeraren inguru jatorrean aurkitu beharrezkoak, noski. Euskara batua ez baita aski euskalde bakoitzeko esamoldeen aberastasuna bere egin ezik, herri ipuinek eta bertsolaritzak erakusten digutenaren arabera.

Gertatuok gora-behera, gaur egun ere hemen jarraitzen dut, nire lehen hizkuntzari besteengatik amore eman gabe. Gizonaren baitan, barne-gogoak beste ezerk baino gehiago balio baitu. Euskaldunok elkarren artean anaingo sentituko bagara, hori da behintzat bideetarikoa bat.

Horrelako ekintzen une zail horiek bizi izan ez dituenaren-

tzat ez da hain erraza hizkuntzaren balioaz jabetzea. Aurrerantz indarrak gehituz jotake jarraitu nuen euskararen aldeko lanetan.

Hori guztia, euskarari dagokionez, nire hastapeneko esperientzia pertsonaletik ekintza bideetara artekoa izan da. Baina, nire ustez, bada beste arrazoi biderik ere.

Kontzientzia erne jarri eta historian zehar bertakoen axolagabetasuna, zein Estatuaren baztertze eragin makurra ezaguturik, haserre bizian jartzekoa ere bada euskarak historian ezagutu duen zigorra eta horren ondoriozko gainbehera.

Orain, euskara arnasberritzeko eragingarriez arduratu beharra dugu. Eta eraginak era askotarikoak izan daitezke, aldez aurretik maitasuna erakusten baldin bada.

Arrazoi bideak ere, era askotarikoak dira. Baina, aldez aurretik esan dezadan hizkuntzak, bere izate eta inguruan zirrikitu asko dituela humanitatearen historian zehar, gizonak oraingoz bere arrazoi hutsez nekez lor ditzakeenak. Guzia denez aintzat hartzekoa eta xehetasunez ikertu beharrezkoa.

Wilhelm von Humboldt 1801ean etorri zen gure hizkuntza zaharrean antzinako poema epiko interesgarriren bat aurkitzen ote zuen eta, hemen aurkitu zuena, soil-soilik, hizkuntza berezi bat izan zen, ingurukoengandik aski berezia bere tipologiaz. Eta ez zen gutxi. Berlingo Unibertsitatearen sortzaile zen hark berebiziko ospea eman zion euskarari eta geroztik, kulturaz hornituek, behar zuen itzalarekin errespetuz begiratu diote.

Hori ulertzeko esaldi egokietarikoak iruditzen zait Eusko Ikaskuntzaren eskariz Ramón Menéndez Pidal-ek, 1921. urtean, Bilbon eman zuen hitzaldi hartan agertu zuena. Honakoak ziren hitz gogoangarriok: *“... si un idioma no es el espejo del alma del pueblo, es una síntesis de la historia del desenvolvimiento de esa alma colectiva, es un reflejo del desarrollo intelectual del pueblo que lo habla”*. Baina oraindik aurrerago joango zen euskaldunoi beste honako hau esatean: *“Tenéis la fortuna de que vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad*

hispana. Otras tendrán más valor artístico, seran más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser reveladas del todo los fundamentos y primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida". Handik urtebetera, 1922. urteko irailaren 10ean, Eusko Ikaskuntzaren III. Batzarrean hasierako hitzaldia eman zuen Gernikan. Hitzaldi bikaina gure hizkuntzari buruz eskaini zuen hura ere, "Influjo del elemento vasco en la lengua española" deritzana. Argi dago, gure Unamunok baino zintzoago jokatu zuela euskarari buruzkoan.

Literaturaz, inguruko beste hizkuntz berriagoekin konparaketak egitean, euskarari dagokionez, ahoz heldu zaiguna, hein batean, idatzia bera baino bereziagoa eta aberatsagoa dela esango nuke. Baina ez pentsa gutxi idazte hori euskararen ahuleziaz izan denik, zeren oroi Axularrek Gero liburuaren sarreran irakurleari zer zioen: "*Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita, latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak*".

Axular bera baino lehen liburu ederrik eman zuten euskal idazleek. Ziburuko Etxeberrirenak maite ditut eta 1571ean Leizarragak itzuli zigun *Jesus Christ gure Iavnaren Testamentu Berria* ezin ahantsi, Th. Linschmann eta H. Schuchardt jaunek 1900ean hain interesgarri izango zitzaigun edizio kritikoa eskainiko ziguten (1990. urtean Euskaltzaindiak berrargitaratua). Baina Bernart Etxepare genuen 1545. urtean lehen liburu inpramatua eskaini ziguna, *Linguae Vasconvm Primitiae* izenburuz; hastapen haren ondotik zori hobearen itxaropenez, bukaeran latinezko esaldi hura iragarritz: "*Debile principium melior fortuna sequatur*". Hala gertatu ez bada, gure ahulezia da errudun, eta ez beste inor. Baina, berriz ere esan nezake, inoiz ez dela berandu. Liburu horren azken argitaraldia ikus, faksimilez

eta egungo grafiaz jartzeaz gainera, espainol, ingeles, frantses, aleman eta italierako itzulpenez Euskaltzaindiak 1995ean argitarata emana.

Etxepareren poema liburu horri Vinsonek frantses kutsua aurkitzen zion, Dodgson eta Schuchardtek euskal forma, bertako kanta zaharrak lekukotzat jarritz. Nolanahi ere, euskaldunok ez gara Europatik aparteko zerbait eta inguruko kulturkidetasuna nabaritzea ez da batere harrigarria.

Etxepareren liburuak zenbait argitalpen izan ditu eta Donostiako Edili argitaletxeak 1968an gaztelarazko itzulpenez argitaratu zuenaren ale bat igorri nion Salvador Espriu katalan poetari, lehendik genituen iritziez gainera, berea ere aintzat har genezan. Eta haren aburuak aditzera emanaz, "Etxepareren inguruan" zeritzan artikulua argitaratu nuen Donostiako *Hoja del Lunes* asterokoan, 1974ko ekainaren 10ean, gero, beste artikulua batzuekin batean bildurik, *Gogoz* (1978) liburuaren 233-235. orrialdeetan berriz emango nuena. Hara hemen Espriuren iritziak eta hitzak laburki: Etxepareri inoren antzik aurkitzekotan, Erdi Aroko ingeles poetena aurkitzen zion. Jakina, Espriuk hain ongi ezagutzen ez zuena, zera zen, Euskal Herriko bertsoaritzak eta koblakaritzak. Guk geuk ere, egia esan, ez dugu material zaharretik gehiegirik, behar bezalako konparaketaz azterketa zehatzak egin ahal izateko eta, konparaketak egiterakoan, kanta zahar guti batzuk izan ezik, geroztik bildutako herri kantekin gehiago baliatu beharra dugu, lehenagoko idatzirik urri dugunez gero. Lehendik ditugun iritziez gainera, Espriuren hau ere aintzat hartu beharrekoa iruditzen zait. Hara gure Etxepare bere hitzetan: "Poetak –poeta handi bat noski, adierazteko eretan hain lotura borobilak aurkitzen ez badira ere– oraindik Erdi Aroko taxura nabari du; hain zuzen, lehenagoko ingeles poeten kidetasuna du, haien pareko ez izan arren; hauxe da, behintzat, nire inpresioa, Judizio jenerala, Ezkonduien koplak, Amorez errekeritzia eta Amorosen disputa poema bikainak dira. Lilura-

garriak, Kontrapaz eta Sautrela; ikaragarria benetan, Mosen Bernart Etxepare kantua; oso sinpatikoa Emazte fabore, hain ongi azertaturiko hamairugarren bertso (estrofa) horrekin”.

Ikusmolde polita benetan. Lehenez gainera argigarri zaiguna. Gainera, oraingo hau, gu bezala herrimenez kezkatu aritu zen poeta bategandik dator, edo kezka horren indarrez bere herriko literaturagintzaren goi mailetara heldu zenagandik, *Llibre de Sinera* (1963) liburuan honako hau zioena:

*Al vell orb preguntava l'esglai
si el meu poble indria demà.
I la boca sense llavis començà
la riota que no para mai.*

(Itsu zaharrari galdetzen zion izuak
bihar nire herririk izango ote nuen.
Eta ezpainik gabeko ahoak hasi zuen
inoiz bukatzen ez den irribarrezko algar.)

Gutariko askok bezala, hura ere beldur zen bere hizkuntza jatorraren hiltzorian.

Koldo Mitxelena ordea, gure gogoak piztu nahirik, orain baino une txarragoetan, U. Weinreich hizkuntzalariak “Languages in Contact” lanean zioena oroitarazten zigun *Egan* aldizkarian: “Galtzen ari ziren hizkuntza askok luzatu dute bizia, hiztunen gogoa aldatu delako. Horretxegatik, arriskuz beterik daude hizkuntzen heriotzaren berria zabaltzen dabiltzan profeten lanbideak.”

Izan ere, K. Mitxelena, euskarari buruzkoan gauzak argi ikusten zuenetakoa genuen eta beti zioen, gure aurrekoek zama handiegia utzi zigutela. Hortaz, irakurri besterik ez dago bere *Historia de la literatura vasca* (1960) liburuako lehen kapituluaren hasierako zatia, non azaltzen zigun ifarraldeko euskaldunek joan zen mendera arte egin zuten lan bikainaren aurrean, hemen gure gobernariegandiko ahultasuna eta apologisten han-

dikerizko usteltasuna. Eta horren ondorioz, hara 16-17. orrialdeetan zer zioen:

“En realidad la lengua ha sido para los vascos una posesión preciosa, pero al mismo tiempo muy incómoda: no se ha sabido a menudo qué hacer con ella, ya que no se trataba de un objeto material que pudiera exhibirse en lugar bien visible o ser arrinconado en el cuarto trastero, Los vascos de Francia han sido por lo general, hasta el siglo pasado, más abundante que los españoles en lo que Justo Gárate ha llamado con frase feliz “la fê con obras”, es decir, en creer que la práctica literaria había de confirmar las altas virtudes que se atribuían a la lengua y no desmentirlas.

No puede hacerse una historia de la literatura en lengua vasca sin atender tanto al territorio español como al francés, a causa de la manifiesta unidad de idioma, de la constante comunicación entre ambas zonas, patente en la vida y en la obra de muchos autores y de la conciencia misma, viva siempre aunque no siempre distinta, de formar parte de una sola comunidad natural, conciencia basada en el hecho lingüístico. Con todo, ambas regiones aparecen claramente diferenciadas lo mismo en este que en otros aspectos. Los vasco-franceses han sido en general más prácticos y menos adictos a fantasías: entre nosotros se ha sentido en mayor grado la preocupación por el “que dirán” de los extraños y no faltan las obras que se han escrito por razones de prestigio, mirando más al efecto que pudieran producir entre los vecinos que a las necesidades de los lectores vascos.”

Batez ere, hortik zetorkigun berak zioen zama astuna. Guk zintzo landu beharrekoa, baina lanok bideratzeko aukerak urriak ziren.

Horiek ezaguturik, noizbait demokrazia bidezko askatasunera iristean aurrerakuntza naharoa espero nuen gure herriagan. Gure gaztaroko euskaltzaleoi bestelako mezu bat eskaintzen zigun Zaitegi zenak *Euzko-gogoa* aldizkariko atarikoetatik. Askatasunean beste zenbait herrik lortu ahal izan zuten bideetatik noski. Eta hortik jarraitzeko eredu ona genuen Norbert Tauer

zenak “Euskal-elertiarri buruz”, txekierarekin gertatua adibide jarriz, itxaropenez aitortuz zioena: *“Euskal-elertiaren sortzea taigoera begiratzean, nere aberriaren elertiaren edestia gogora dator kit. Txekoerazko elertia ere asiera txikietatik mende baten buruan malla goienera igo zan eta gure egunetan txekotar idazle nagusiak ongi ezagunak dira mundu osoan eta ayen lanen itzulpenak atzerrietan argitaratzen dira.”* (Ikus *Euzko-gogoa*, II. urtea, 1951, 7-8. zenb. 38. or.).

N. Tauer, txekiarra izanik euskara ongi ikasi zuen, eta hemengo gehienak baino ardura handiagoa jartzen zuen gure hizkuntzaz. Handik bi urtera berriz ere ukituko zuen gai hori, “Aberri-izkuntza-abendaren oñarria” deituko zuen lan batean, beste zenbaiten artean honako hau agertuz: *“Bere izkuntza bakarra den euskera euskotar guziak biozbiotzetik maitatu bear dute eta aren aldez etengabe lan egin. Zoritxarrez, euskotarren artean asko dira beren izkuntzarentzat zabarkeri aundia erakusten dutenak. Euskeraren ordeaz erderaz beti itzegiten dute eta euskeraz ez dakitenak ez dira alegintzen euskera ikasi dezaten. Beste askok txikitandik euskera jakinarren, ez dute geroago euskeraz itzegiten ez idazten eta onela emeki-emeki erdaldun utsak egoten dira. Egoera au txit illuna da euskaltzale guzientzat, euskotarrak zabarkeri au ainbat lasterren utziko ez ba-dute, abertzaleen lana alperra izango da. Oraingo egoera iraungo ba-da euskerarentzat gaizkabiderik ez dago.”* (Ikus *Gernika*, N^o 22, Enero-Marzo, 1953, 8-10). Egoera gutxi aldatu da eta horrela iraungo du abertzale guziek euskara ikasi, irakurri eta idaztea beren lehen eginkizuntzat hartzen ez duten artean. Bakoitzak bere fedea ekintzekin agertu behar baitu.

1978ko maiatzean Norbert Tauer bisitatu nuen Pragan, pertsonalki ezagutu guran, eta astebeteko egotaldi hartan izan nuen aukera txekiera nola berreskuratu zuten zehatzago jakiteko. Hiri nagusian alemanieraz askozaz gehiago egiten omen zen Txekoslobakiaren independentziaren aurretik, baina gero,

beren jatorrizko hizkuntza ofizial jartzeaz laster errekuperatu omen zuten. Hori erraz burutzeko, eskoletako lehen hizkuntza txekiera jarri omen zuten, baina hedaduraz zabalagoa zen beste hizkuntza bat beharturik, gainerako munduarekin harremanak errazteko. Bigarren hizkuntza gurasoengan jartzen zuten hautagai eta gehiengoek Alemana hautatzen omen zuten, ez bakarrik historiak hurbilagoa zitzaielako, baizik eta Europaren erdialdean gehien mintzatzen zelako.

Urte batzuk lehenago, nire mendizaletasunak eraginik, zenbait aldiz ibilia nintzen Alpes mendietan zehar. Horietako batean, 1963. urtean, Aostako Autonomi elkargoan bertako hizkuntza nola eramaten zuten jakiteko Gorbenura jo nuen informazio bila eta, euskalduna nintzela jakitean, bizpahiru liburu erregalatu zizkidaten. Handik itzultzean, horren adibideak eman nituen *Zeruko Argia* asterokoan. Baina beti izan dut eredugarritzat Suitzako, bertako Konstituziotik zuzenean lau hizkuntzak maila berean babesten dituen.

Horregatik uste izan dut, bake biderako, besterena ukatu gabe, herri bakoitzak bere hizkuntza landu beharra duela. Baina ikusten dut mundua inoiz baino gehiago talde hertsietan bilduz ari dela, gizatasunari jaramonik egin gabe, taldekerietan itsuturik. Hainbat txarrago. Nik ordea, oraindik, humanismoaren esparrutik gehiago espero dut, eta fanatismoaz kutsatu ez diren haientzat idazten jarraitu nahi nuke.

Liburu honekin, saio hauen bidez, azaldu nahi ditut historian zehar zerk eta zelan eraman gaituen hizkuntzaren galzorira, nire gogoeta eta pentsamenak ibilgailutzat hartuz, bide zuzen-tara laguntzeko asmoz. Edo, gutxienez ere, zer pentsa adierazi. Arbaso hizkuntza ahaztu eta galtzeak, herriaren jatorrizko adierazle nagusia dena galtzen delarik, gizarte ikuspegiaren aldakuntza darama berarekin. Gure herriari bere nortasunik jatorrena euskarak ematen baitio. Eta kontzientzia lantzea beharrezkoa zaigu gure herriaren oroitza eten ez dadin. Hizkuntza jatorrak

berez duen herritasun senak beragan daraman altxorrak iraun dezan. Unibertsoa, izatez, orotariko hizkuntzez osatua da eta unibertsalagoak gara geuretik besteengana goazen heinean. Norbere leinuarekin bat ez datorrena, nola etor daiteke bat gainerako unibertsoarekin?

Etenak gure arbasoengandik banatzen gaituen neurri berean gal genezake gure jatortasuna. On da beste hizkuntzak ikastea eta horiekin baliatuz munduaren ikuspegi zabalagoez jabetzea, baina norberaren jatorrizko dena ahantzi gabe, zeren honek bakarrik eman liezaguke herritasuna eta jatorrizkotik gerorako jarraipena. Menderan zehar datorkigun ondarea gure ondokoi ukatzea, nortasunik bereziena ematen diguna baztertzea litzateke. Horretarako eskubiderik ba ote dugu? Aztura, kondaira, ipuin, kanta, ... gurasoengandik datorkigun guzia gurea adina gure ondoko belaunaldiena baita. Hala izan ezik, hitzak, esae-rak, esaldiak, ... deus ez, galerarekin batera kontzeptuen aldakuntza dakartelako. Munduan beti izango dira hizkuntza oro, eta orotasunaz baliatzea legezkoena zaigu gizarte kultura desberdinen arteko oreka gordetzeko. Gure inguruan, hizkuntzarik tipienak ere, berezitasunak gorabehera, Europaren izaera naturalari eusten dion neurrian ezin da bat bera ere baztertu. Elkartasunaren garrantzia herri guzian artean osatzen baitugu. Horrela bakarrik gorde ditzakegu herriaren oroitzapena, bere aztura, literatura ondarea, gurasoengandik jasoa semeei uka ezinezko zaigunez.

Gaius (Gayo) jurista erromatarrak *Institutionum* zeritzan lanean garatu zituen ideietatik jaso zituen gure Aita Frantzisko Vitoriakoak giza eskubide mezuaren oinarriak. Jakina da horrez gainera erabili zituela Testametu Zahar eta Berrikoen argudioak, baina bere obran maiz, egilearen izenik gabe *Instituta* aipatzen du, Gaius-en *Institutionum* erabiltzean, noski. Hara, adibidez, Gaius-ek Lehen Tituluko 1. artikuluan zer zioen: "...*sius ciuitatis, quod uero naturalis ratio inter omnes homines constituit,*

id aput omnes populos peraeque custoditur uocaturque ius gentium...” Eta Aita Vitoriak *De iure belli* partearen 51. atalean zuzen jasotzen du horren aipamena.

Aita Frantzisko Vitoriakoaren lege alorreko jakintzaren oinarriak Hugo Grocio holandarrak taiutu zituen eta munduan zehar barreiatu zuen euren irakaspena.

Baina Gaius bera urrutiago zihoan, zeren aipatu dugun artikulu horretan zioen: Eskubide zuzena, legez eta azturaz bizi diren herri guzietan, era berean beren parte propio eta berezia denez gero, aldi berean gizon guztiena da. Herri bakoitzak berari ematen dion zuzenezkoa da, eta zuzen zibila deritzaio, hiriarren zuzena esan geniezaioke. Baina arrazoi naturalak jarria, era berdintsuan herri guzietan nabari dena jendearen zuzena edo eskubidezkoa, hau da, nazio guzien zuzena. Horren arabera, erromar herriari dagokion zuzen propioa eta aldi berean gizon guzientzat onartzen duena.

Erromarren lege horiek zerikusirik ba ote zuten Hazparneko oroitarriarekin? Verus-en ohorez jarria zen Novempopulania (antzinako Wasconiae, Gaskoina eta Euskal Herri parte bat barne zirela) Frantzia aldeko galoen menpetik atera eta independente izatea eskertuz ipinia. Oroitarri hori han dago oraindik ere, Hazparneko elizaren gibelean, ezagutu nahi duenarentzat.

Hurbil ez ote zebilen aldi modernoetatik Lapurdiko historian oroigarri zaigun Uztaritzeko Biltzarrak beregan lortu zuen nortasuna?

M. S. Anderson Oxford Unibertsitateko historia irakaslearen *18th Century Europe 1713-1789* (1966) obra irakurriz edonor konturatu daiteke, argien aldi hark antzinako erregimenaren aburuak zer aldakuntza zekarren jarraipeneko erromantiko garaia indartzean. Estatuak feudal joeraz errege absolutuen inguruan indartu ziren eta haiek bukatzeaz zeuden, herriak etnia edo hizkuntzaren inguruan bildu eta indartuko zirenez. Baina Frantziako iraultzak, erregimen berriari oreka eman ziezaiokeen

federalisten buruzagiak gilotinatuta izan ez balitu. Eta Uztaritzeko Biltzarra ito zuten. Hori ezagutzeko liburu gomendagarria iruditzen zait Isidoro Fagoanaren *Domingo de Garat, el defensor del Biltzar* (1951). Yon Etxaidek euskaratua, ikus eta irakur *Domiku Garat, Biltzarraren defendatzaile* (1974).

Alde honetan, Cadizko Konstituzioa, berez ez zen txarra, guziek onartua izan baitzen. Jose Felix Amundarain zegamarapeza Mutiloan bikario zelarrik, Konstituzio hori eskoletan euskaraz irakasteko liburu bezala idatzi zuen 1820. urtean, *Jakinbide Iritaraudia* izenburuz. Eskuizkribu hori faksimilean argitaratu nuen 1991. urtean Ararteko nengoela. Zabaltzeko asmoz egin zen liburu hura argitaratu gabe gelditu zen, zeren ondoko Trienio liberalaren garaian hemengo Batzar Nagusiak kentzean, jokabidez aldatu eta sortu ziren iskanbiletz ireki zuten Konstituzio hari euskaldunik gehienek uko egitea. Ez ordea euskaldunek bakarrik, beste edonongo federalistek ere bai, herrialde guzietz beren ohitura jatorrez zetozkien eskubideak ukatu zizkietenez.

Geroztik ez zen izan behar bezalako egokierarik. Bi gerra zibil eta Konstituzio berriak etorriko ziren, baina anaitasunezko bakebiderik ez. Frantses txaubinisten zentralismo joera hartu nahi zuten Espainian ere. Zorigaitzaren ondorioak gaurdaino ezagutu ditugu.

F. Pi y Margall-ek ikasbiderik aski eskaini zigun federakuntzaren teoria landuz, elkarrenganako hurbilketaren bidez gizarte hobea bat lor genezan; baina, aipatu dudana txaubinista giroaren joera horrek ez zion lekuri eman.

Europa-zaletasunaren alde beste inor baino lehen hain gogotsu aritu zen José Ortega y Gasset-en *España invertebrada* (1921) deritzan saioak erakusten digu mende honen hasierako giro egoera. Errealitatea hor dago. Ortegak argi azaltzen du garai hori, berak emandako iritziak eztabaidagarriak izan arren, hor dugu lekuko. Era askotariko Espainia, baina Gaztelaren molde bakar bateratua eman nahi zitzaiona.

Antonio Machado poeta hunkigarriak ordea, bestelako iritzirik agertzen zuen gure garaitik antzinako erregimenari begira. Bakoitzak bere barne-gogoetak eginaz irakurtzekoa da *Campos de Castilla* (1907-1917). Besteak beste, hara zein zorrotz zioen poema horietako "A orillas del Duero"-k bere parte batean:

*Castilla miserable, ayer dominadora,
envuelta en sus andrajos desprecia cuanto ignora.*

Eta hori da egin duena, antzinako eran, hizkuntza bakarrera guziok beharturik makurrarazi nahiak. Bakoitzari bere izate naturalean utzi nahi ez, errespetatu nahi ez, eta gu oraindik hemen elkarrekiko borroketan. Ez ote zen hobe, guziok elkar onartuz anaitasunera hurbiltzea? Hemen inor ez da sobera eta elebidun izatean zuzenbidez bizitzeko aukera lor genezake. Baina, horretarako, lehen-lehenik, lapurrari, lapurtua itzularazi, eta bakoitzari berea eman.

Baina, hala ere, batzuen indarkeriz erantzuteko erak etsaiak berak baino kalte gehiago egin liezaioke gure herriari.

Kontuan har ditzagun Aita Frantzisko Vitoriakoaren irakaspenak, bereziki moral eta etika aldetik argi eta garbi zioen esaldi hura: "inork ez du eskubiderik aberriaren izenean beste bati bizia kentzeko". Gizatiarrontzat, bizitza sakratua denez gero; kristauontzat Jainkoaren esku legoke eta federik gabekoentzat naturaren baitan. Zeren, otsoak ere ez baitu otsokirik jaten.

Indarkeriaz ari diren horiei ez ote diote ezer esaten Eusko Ikaskuntzak hain egoki hautatu zuen lemak? Ekintzak nola eraman pentsaraztekoa da: "Asmoz ta jakitez".

Aulestiko Bengoetxea familiako armariaren epigrafiatik hartua da, J. K. Gerra heraldistak 1904ean aipatu zuenez. Epigrafia osoa era honetan da:

*Bekoak goikoak eskondu leidi
Ta txikiak aundia benzi leidi
Asmuz ta jakitez.*

Bizkaitarrentzat ez da ulerkaitza, “eskondu” hitza edo izan ezik, eta hau: iritsi, lortu edo atzeman hitzen sinonimo edo kideko da. Azkuek dioenez, bizkaiera zaharrean erabilia. Epigrafiaren horren esaldia garai honetan hain premiazkoa zaigun gero, gutariko kaskagorrenak ere uler dezan, hara hemen bere itzulpena: *“El de abajo puede alcanzar al de arriba / y el pequeño (débil) puede vencer al grande (fuerte) / con la intención y la sabiduría”*.

Hor oinarririk konturatu behar ginategi euskararen noratasuna lortzen indarkeriak ez digula ezertan lagunduko, pertsonen arteko gorrotoak indartzera baizik. Beraz, zentzuz, apal eta zuzentasunez joka dezagun.

Beti kontuan hartu beharrekoa dugu, gizatiarren lehen mailan: aurrengo gizona dela, hizkuntza bera baino lehenago, edozein ideia baino lehen gizona, eta, aldi berean, gizentasunaren eskubidea. Bestetik, bigarren mailan, ahal denik gizatiarren, euskara indartzea eta normalkuntzara eramanez eta erabiltzea da, hain beharrezko zaigun apaltasunean, gure armarik hoberena.

Erbestetik bizitzera etorriak ere orain bertako dira eta errespetatu beharra dugu, errespetatuak izango bagara. Borondate onez, maitasunez eta bakebidez lor dezakegu bertako ohiturak eta hizkuntza errespetaraztea, denboraren buruan euren semeak elebidun izaten lagunduko badugu.

Oroi, guti izan arren, Europaren esparruan ez gaudela bakarrik eta, hemen edo beste nonnahi, orokortasuna guzientzat onartu beharrezkoa zaigula. Aldi berean, bere burua abertzaleztzat duenaren lehen eginkizuna, euskara ikastea ez ote? Gure herriaren aldeko ekintza hoberik ba ote?

Irakurri berri dut “Bilingüismo fingido en la Universidad” artikulua (ikus *El Diario Vasco*, 1996-XI-16koan), filosofiaren kulturaren irakasle den batek etika gutxirekin idatzia. Hor ager-

tzen denaren arabera, izugarria deritzot euskaldun guziok KAS inguruko Ikasle Abertzaleen zaku berean sartzeari, Francoren garaian bageunde bezala. Guk gure lepoan eraman beharreko zama ote? Hala izanik ere, historiak bestelako gertakaririk erakusten digu inperioaren izenean ibili direnen aldetik. Gutu batzuek euskararen izenean egiten dituzten basakeriak, beste batzuek beren hizkuntza “nagusiaren” alde egiten dituztenen maila berekoak dira. Baina Unibertsitatea hezkuntzarako denez gero, guziei irekia izan behar du, ez itxia. Eta, arazo honetan, euskararik ez dakieni on zaie ikastea edo isiltzea. Izatekotan ere, gu gara elebidunak eta, herri honetan, guk bezala besteena ikasterik nahi ez duten elebakardun horiek isiltzea hobe.

Aldi berean, guk joka dezagun beti era zuzenaren barnean, sektak alde batera utzirik, arrazoiz eta ez fanatismoaren itsutasunez. Gaur hemen, nahi edo ez nahi, gehienek ez dakite euskararik eta erdararen kontra jardutea, ustez etsaia denaren jokaera bera erabiltzea da. Hura oker badago, hau ere bai. Bide horretatik ez dugu inor ekarriko euskararen alde, ez eta euskara ikastera edo gutienez errespetatzera. Gizartean hain beharrezko den enxemplu ona eredutzat jar dezagun egungo errealitatea ikusiz eta horren aurrean zentzuzko jarrera hartuz eta bihotz onez jokatzuz. Ondo da administraritza bulegoetan, bideetan, kaleetan eta abar jartzen diren iragarki adierazleak elebidunak izatea. Ondo ez dena da, erdaraz daudelako ezabatzea, bietara jartzea eskatu beharrean. Euskal Herrian Euskaraz (EHE) mugimenduaren izenean aritzen diren horiek ez diote onik egiten gure hizkuntzari, kalte baizik. Euskararik ez dakitenek ere norabidea behar dute jakin. Gainera, batzuetan gaztelerazkoa ezabatu eta euskarazkoa oker jartzen dute. Zergatik ez dute lehenik beraiek euskara ikasten, edo ahalegina jartzen gure hizkuntza honetan alfabatizatzeak eskatzen duen mailarik tipiena bete ahal izateko?

Zentzuz ahul eta kemenez indartsu, jokaera basatiak ez dio inori onik egiten. Herriaren izenean itsumustuan aldarrika eta

oihuka ari diren askok, ez dute ikusi nahi batasunik ezera garamatzatela. Gizona gizon denak, zintzoa izango bada, indarkeriak eta hilketak baztertu beharrezkoak ditu. Aldi laburrean dena jokatu nahirik dabilzan horiek, arren, oroit daitezela Sokoan bahitutako ETaren isilpeko paper haiek espainolez idatziak zeudela. Ohartzerik nahi ez dutenen artean autokritikarik ez denez gero norbaitengandiko kritikak beharrezkoak dira. Gauza bat da predikatzea eta beste bat ogia ematea.

Noizbait iritsiko ote gara euskararen ostarreak oskarbi bihurtzera? Nire iritziz, hortik legoke euskararen etorkizuna. Eta hori, ez da zuzenaren barnean bideratu ezinezkoa; baina, indarkeriak alde batera utziz eta zentzutasunez jokatuz. Etika eta morala hausten direnean, giza-natura hautsia da.

Bukatzeko, ondoreneko harira joaz, bitan banatzen den saio honen garapena kontatu beharrezkoa iruditzen zait. Euskal hizkuntzaren bi saio hauek aspaldiko esperientziaren gogoetaz eginitakoak dira. Liburu honen bete beharra, bakoitzak jakin dezan gertakarien berri, historian zehar mendez mende euskararen ostarreak adieraztera mugatzen da.

Lehenik jartzen dut azken partean idatzi dudan saioa; hau da, "Euskararen berri onak eta berri txarrak", eskuratu ditudan ageriak lekuko, gaur egungo egoeraren ikuspegirako gogoetak azalduz. Bigarren ordea, "Euskararen inguruan" deritzan saioa, diktadura luze baten ondoko ahuleziak eragina, oraindik bere barnean jarraitzen genuela, duela hogeita hemeretzi urte idatzia da. Ahuleziak eragina diot, zeren euskaltzale ziren batzuk, politikaren ikuspegitik, alde batetik Espainian hainbeste urtetan ari zen predikuagatik eta bestetik marxismoaren ideiaz kutsaturik nonbait, gure herriko seme asko jarri baitziren zalantzan hizkuntza babesterik merezi ote zuen ala ez.

Jarrera horien aurrean maiz agertu nuen: herri txikia ginez, politika ideiak, naiz ezker edo naiz eskuinekoak, Europaren mendebaldean ingurukoek bultzaturik eramango gintuzte-

la, zein ezkerrera edo zein eskuinera; baina gure herriaren interesak eta bereziki hizkuntza, guk geuk bakarrik arduratuz elkar-tasun apalean eramán beharrezkoak genituela.

1968an ez zen onartzen hizkuntza bat baizik: gaztelera. Orduetik 1997ra bitartean iritziak aldatu egin dira eta beste hizkuntzak ikastea on omen da. Hor ba, lehen kaltegarri zena nola bihurtu zaigun ongarrri.

Lehenengo saio hartan, 1968koan, gure hizkuntzaren goresmenak eta bizitzeko eskubidearen argudioak agertu nituen; bigarren honetan, hobekuntzaren adibideak eskaintzen ditut, historian zehar izan dituen gorabeherak agertuz eta, bereziki, beren buruak abertzale dituztenei gogozko kezka eta ekintza zintzoa eskatuz, eredu izan daitezén. Abertzale ez direnak behartzea ez da zilegi, batez ere abertzale alderdien buruek eurek ez dakitenean. Maitasunez eta borondate onez ekarri behar dugu Euskal Herrian bizi den jendea euskalduntzera, edo gutienez elebitasuna errespetatzera.

Lehenengo hark, “Euskararen inguruan” zeritzanak, izan zuen baino zori hobea opa diot. Hura, garaiak hala eskaturik, asmo handiagoaz burutzen ari nintzenean gertatua adierazi beharra dut: Xabier Aranburu hondarribiarra Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren babespean Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. argitaletxeaz arduratzen zelarik, bion artean pentsatu genuen euskaltzaletasuna biziki zuzpertzeko zabalkunde handiz liburuxka gisa argitaratzea, Aurrezki Kutxa hura ere prest baitzegoen ahalik eta merkeen kaleratzeko. Asmo hori zuen helburu, baina besterik gertatu zen.

Gabriel Aresti gure etxera etorri eta bertan lo egin beharra izan zuen batean, eskuartean zer nerabilen galdetzean, bukatzeaz neukan “Euskararen inguruan” horren kopia bat utzi nion eta gauaz irakurtzeko hartu zidan. Ez zen iritsi bukatzera eta hain interesgarria zeritzenez, kopia hura berarekin eramán zuen.

Gero, haren eskutik, ez dakit nola jo zuen Lur argitaletxera eta nire baimenik gabe, hara hor non argitaratu zen *Euskal Elerti* 69 bilduman; zuzenketarik gabe eta tarteka-marteka zenbait lerro eta zatiren hutsunez. Pikutara joan zen gure asmoz eragile zuzpergarri izan behar zuen liburuxka hura.

Hori egin ziguten, garai hartan beraien buruak iraultzailetzat zituzten haiek. Hori zela eta G. Arestirekin haserrealdia izan nuen eta damuz behin eta berriz barkamena eskatu zidan. Lagun jarraitu genuen, baina neurri handi batean gure asmoe-tako euskaltzaletasuna piztearen aldeko ahalegina deuseztaturik gelditu zen.

Hemen orain agertzen dudan bigarren atala bere osotasunean agertzen dut, garai hartan bildu ahal izan nituen ageri, argudio eta neukan ikuspegiaren lekuko. Hein batean, irakurleak ikus dezakeenez, saiakera hura izan baitut oraingoaren oinarri, zeren hau lehengo jardunaren luzapena baizik ez baita.

Ordutik hona, euskararentzat egoera hobea lortu da. Alde batetik, orain, nire aburuz, gauzak ziren eta diren bezala agertzeko aukera dudalako, eta ez lehen beharturik nengoen autozentsurarekin. Baina, hala ere, historian zehar gure hizkuntzak bizi izan dituen berri onak eta berri txarrak ikusirik, gaur egungoari ere ez deritzot egoera itxaronpetsua. Euskaltzaleoi erne bizi beharra erakusten digu. Horregatik, aurretik jartzen dudan bigarren saio hau, aldiz eta gaiz zatitua ematen dut, azkenik, egungo egoera nola ikusten dudan azalduz.

Hitzaurre gisa doan aitzinsolas hau ere, era berean, euskaltzaletasunez jabetu, pentsatu eta bizi izan dudan esperientziaren saio laburra izan bedi. Mundua, ni eta nire herritik hasten baita. Bai, hori diot, gurea bezalako herri txiki bati dagokion apaltasunean. Har nezake Nikolas Ormaetxea "Orixe" zenak bere *Euskaldunak* poemaren sarreran eskaintzaz erakutsi zigun gogo:

*Zatozkida, Goi-arnas
eizu nerekin lan,
erri baten arnasa
mamitu dezadan.
Geroak esan beza:
"Erri bat izan zan"
edo-ta ats emaiogun
ontan iraun dezan.*

Nire aburuok, azken helburutzat, ostarteetan egiazko argiari leku gehiago egitea baizik ez dute saio honen betekizunez.

Inoiz ez ahaz, Euskal Herriak euskarari dituela bere erroak.

EUSKARAREN BERRI ONAK ETA BERRI TXARRAK

(1997)

“E ti vives no mundo, terra miña,
berce da miña estirpe”.

*(Eta zu munduan bizi zara, nire herri,
nire leinuaren sehaska).*

Celso Emilio Ferreiro

“Diversos són els homes i diverses les parles,
i han convingut molts noms a un sol amor”.

*(Orotarik dira gizakiak eta orotarik mintzairak,
baina maitasun soilean izen asko bildu dira).*

Salvador Espriu

I - Antzinatik Erdi Arora, ageriak lekuko

Erromar inperioa erortzean anitz herri agertu ziren kulturaz noraezean, gizartearentzat arau zuzen, jakintza oparo eta tekniken berriztatzeen abantailek zekarten aurrerapena etetzeko zorian jarritz. Ilunaldi luze batean murgildu ziren Europaren mendebaldeko herriak Erdi Aro garaira arte.

Hala ere, etenaren ondotiko lehen mendeak inertziatzko jarraipena ezagutu zuten, poliki-poliki itzaltzen joango zena. Baina mende askotan zehar, hiri askotan, latin-euskara edo euskara-latin elebitasunak iraun zuen.

Egia esan, Erromako inperioak gehiago iraun balu, latinaren eraginez hainbeste hizkuntza suntsitu ziren bezala euskarak ere galtzeko bidea zeraman. Baina badirudi inperioaren erortzeaz, ahuldua ez ezik hilzorira kondenaturik zegoena berriz zuzpertz eta indarberitu zela herriak berreskuratzeraino.

Baina, latinak eman zion ahozko hizkuntza idatziz jartzeko aukera. III. mende bukaera ingurutik VI.era arte, erromar erako ohitura jarraitu zuten oroitarriak iragarkiz latinez jarritz, eta euskaldunen izen eta jainkokiak hor agertu ziren lehen aldiz latinaren grafiaz idatziak, bereziki Akitaniako erresumetan, Novempopulania zeritzan Gaskoinan. Hauen eragina Aragoi eta Nafarroaraino iristen zen. Besteak beste, hor aurki genezake Nafarroako Lergan III. mendekotzat jotzen den lapida hura, non irakur daiteken: *Ume sahar*.

Gure artean, iragarki horien berri zehatzak laburki bederen eman zizkigun Koldo Mitxelena zenak *Textos arcáicos vascos* (1964) liburuaren 14-20. orrialdeetan. Ondotik, Salamancan

bere ikasle izan zen Joakin Gorrotxategik zabalago landu zuen gai hori *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania* (1984) deritzan liburuan, lehenago ere aditzera emana dudanez.

Geroago, mende ilunen ondotik, XI.etik nabariago agertzen zaizkigu San Millán de la Cogollako eskuizkribuetan.

Bestalde, Pirinio mendien bi alderdietako toponimian euskara mintzatuaren lekukoak ditugu. Honetaz bilketa oparoa eskaini zigun Joan Corominasek. Aragoi aldekoa bereziki Juan A. Fragok.

LINGUA NAVARRORUM zer zen jakiteko, inork zalantzarik izan ez dezan, on zaigu agiriak lekuko jartzea. Hara hemen Iruñako apezpiku zen Petrus II.ak 1167. urtean Beila kondearekin Aralarko San Migel santutegiaren Arimeriako aziendaz, jatorrizko ohitura zenaren arabera, hitzarmenez onartu zeneko agiriak zer zioen:

“Erit autem talis differentia inter Orti Lehoarriz et Açeari Umea et successores eorum, quod Orti Lehoarriz faciet ut lingua Navarrorum dicatur unamaizter et Açeari Umea faciet buruçagui, quem voluerit.” (Ikus J. Goñi Gaztambide, *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona*, 1997, Tomo I, 305. dok., 269. or.)

Erdi Aroan ordea, ageri zehatzen lekukoak aurki ditzakegu eta horien artean, José Bta. Merino Urrutiak agertu zuena bereziki, “De una fazanya de Don Morial Merino Mayor, et del Alcalde de Oia-Castro” idazkia lekuko, non agertzen den XIII. mendearen lehen partean Burgostik Errioxako Oxa-Kastroa epaiketa batean parte hartzera joan zen merioari hango alkateak nola debekua jarri zion, Oxa-Kastro haran hartako foruaren arabera nahitaezkoa zenez euskaraz ere jakin beharra. Merioak, hala ere, erregeren izenean epaimahia osatu nahi zuen eta alkateak, tira-bira batzuen ondorean, preso sartu zuen. Ikus J.B. Merino Urrutiaren lana *El vascuence en el Valle de Ojacaastro*

(Rioja Alta), Sociedad Geográfica Nacional erakundeak 1936an argitaratua. Gertakari hori 6-7. orrialdeetan dator.

J.B. Merino Urrutia zenak geroko urteetan ere hango euskararen ikerketak jarraitu zituen, batez ere leku izenen bilketaz eta hirugarren argitalpen bat ere bada *La lengua vasca en la Rioja y Burgos* deritzana, 1978an Errioxako Diputazioak argitaratua. Bertan, aipatu dudan gertakaria 18-19. orrialdeetan irakur daiteke.

Hori bai zela euskaren berri ona. Baina, orain ikus dezagun beste erresuma bateko berri txarra, mende bat geroago.

XIV. mendean Aragoiko Oskan (Huesca), J.M. Lakarrak aurkitu eta *Rev. de Archivos y Bibliotecas* aldizkariaren XXIX (1913) 433. orrialdean aditzera eman zuenez, hiriko ordenantzen arabera bazen lege bat, 1349koa, merkatuan arabiera, hebreera eta euskara mintzatzea debekatzen zuena, idazkiaren parte honek argi jartzen digun bezala:

“Item nuyll corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas, faulando en algaravia ni en abraych nin en basquenc: et qui lo fara pague por coto XXX sol”.

Gaia, zenbait oharrez, berriz ukitu zuen A. Apat-Echebarne (Aingeru Irigaray) euskaltzainak *Una geografia diacrónica del euskara en Navarra* (1974) deritzan liburuaren 115-118. orrialdeetan.

Oraintsu Joakin Gorrotxategik “The Basque language and Its Neighbors in Antiquity” deritzan lanean berriz aipatzen du, *Current issues in linguistic theory* saileko 131. zenbakiak eskaintzen duen *Towards a History of the Basque Language* (Amsterdam - Philadelphia, 1995) lan monografikoaren 32. orrialdean irakur daitekenez.

Nafarroako erregetzan, “Lingua Navarrorum” aipatua gorabehera, erabileraz, latina eta nafar-erromantzea ziren administrazioeko hizkuntza ofizialak. Florenzio Idoatek, bi funtzionariok

1415. urtean elkarri euskaraz egin zioten gutun bat azaltzean erakusten duenez, gogozkoago eta ziurrenik ulerterrezagoa zitzaielako. Ikus “Una carta del siglo XV en vascuence”, *Fontes Lingvae Vasconum studia et documenta*, 2. zenbakia (1969), 287-290. orrialdeak.

Egile berak agertzen digunez, XV. mendearen azken aldera agertzen dira notari protokoloen bat edo beste epaiketa agerietan lekukoen hitzak euskaraz idatziak; aldiz, herri askotan batzarreak euskaraz zein nafar-erromantzez egiten omen ziren, baina ageriak idatziz jasotzea bigarren honetan egiten zen. Hala dakar *Esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI* (1981) liburuarren 218-228. orr.

II - Trentoko Kontzilioaren eragina

Euskaraz inprimaturik agertu zen lehen liburua *Lingvae Vasconum Primitiae* latin tituluz Etxeparek idatzia, Trentoko Kontzilioaren aurreko urtean argitaratu zen Bordelen, hau da, 1545ean. Liburuan datozen azken bertso sailak, Kontrapas eta Sautrela, euskararen gorapenezkoak ditugu.

Baina, Etxepare apez katolikoa izan eta Kontzilio haren arau berriak aurrez zekartzanarren, bertako zenbait parte gordinagengatik edo, badirudi liburuok baztertuak izan zirela. Salbatu zen ale bakarra (besterik ez baitugu ezagutzen) Bibliothèque Royale-koa izan zen, orain Parisko Bibliothèque Nationalean gordetzen dena.

Hala ere, badirudi Elizak beste erakundeek ez bezala agertu izan duela euskaren aldeko lehia Trentoko Kontzilioaren aurre-

tik ere. Horren lekuko bat dugu 1521. urteko Franziskotarren boto izkribu hura, *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia* (1976) liburuaren lehen orrietan fotokopiatuak agertu genuena.

Gero ikusiko dugunez, Elizaren jarrera ez zen izan berdina Iruñean eta Kalahorran. Zeren Fernando Katolikoak 1512an Nafarroa hartu zuenetik, Albret erregea destronaturik, bere alde hain leialak zituen agramondarren alde maizago jaikitzen omen ziren nafar euskaldunak eta horregatik, Karlos V. Enperadorearen denboran, ahalegintzen omen ziren ipiztiku gaztelarrak jartzen. Ikus berriz ere F. Idoateren *Esfuerzo bélico de Navarra en el siglo XVI* liburu beraren 219. orrialdea.

Errege Felipe II.a bere poderioaren indarrez eta azpikeri guziekin baliatu zen Pio V.aren "Breve" hura lortzeko eta haren bidez Baionako Apezpikuteagiko ziren herriak, Oarsotik Baztanerainokoak, Iruñera pasatzeko 1566-1567. urteetan, Iruñean Diego Ramírez ipizkia beharturik, Migel de Iteroz baliatuz.

Iteroa hau Trentoko Kontzilioetan egona zen eta, bere ekin-tzek erakusten dutenez, gizon ausarta zen. Urte horietan hiru apez atxilotu zituen hugonotetzat begiz joak eta horietako bat Logroñon Inkisizioak erre zuen. Ofizio Santu hartan agertzen diren Iteroren paperek salakuntzari buruz, honako hau zioten:

"porque en mi tiempo a hombres que venian por vino a Aoiz, se le tomaron cartillas luteranas en vascuence y no eran castigados por no romper la paz y porque no sabían leer ni sabían lo que contenían" (J. Goñi Gaztambide, *Historia de los Obispos de Pamplona*, 1885, t. IV, 222. or.).

Luterorenik ez zen ezagutu eta Calvinisten lehena, Leizarragak euskaratua, *ABC edo Christinoen instructionea* 1571ean argitaratua zen, *Testamentu Berria* eta *Kalendrera*-ren urte berean. Beraz, arazoa ilun badago ere maltzurkeria argi dagoela dirudi.

Baina, Trentoko arauen eraginez, doktrinak herriaren hiz-

kuntzan jartzea gomendatzen zen. Iruñeko Apezpikutegiak, Pastoral bisitetatik ikus daitekeenez, gaztelaniarik ulertzen ez zuten herrietan euskaraz egitea gomendatzen zuen; adibidez, Zumaian bertan 1576. urtean: “*la doctrina cristiana de manera que se entienda en bascuence los días de fiesta*” (Goñi Gaztambide, aipaturako obraren 390. or.).

Trentoko aginduen arabera bideratu zen auzia, baina ez zenbait eragozpen sortu gabe. Nafarroan 1584ko Pastoral bisitak erakusten duenez, Allingo Eulz herrizkakoek euskararik ez zekiten abata zela eta (ikus Goñi Gaztambideren aipaturiko obra, 479-480. orr.). 1590. urtean idatzi ziren *Constituciones sinodales*-etan finkatu ziren ordea, Pedro de la Fuente ipiztikuaren denboran, doktrina irakasteko arau zehatzak.

Garai hartan euskaraz ezagutzen zen doktrina bakarra Sancius de Elsok Iruñean 1561ean argitara emandako *Doctrina Christiana* zen, gazteleraz eta euskaraz egina noski. Eta 1621ean Utergako (Ilzarbe ibarra) erretore zen Juan Beriainen mezetarako eskuliburua argitaratu zuten Iruñean. Honen xehetasunak egoki eskaini zizkigun Aingeru Irigarai zenak, A. Apat-Echebarne izenordepean argitara eman zuen *Noticias y viejos textos de la “Lingua navarrorum”* (Donostia, 1971) liburuaren 97-101. orr.

Pedro de Manso Kalahorrako ipiztikuaren aginduz egin zuen Betolazak elebidun *Doctrina Christiana*, Bilbon 1596. urtean argitaratua, herritarrei beren hizkuntzan zuzen ulertarazteko.

Oraindik haruntzago joan zen, 1698. urtean, Kalahorrako ipiztiku zen Pedro de Lepe 1700.eko *Constituciones sinodales*-etan, doktrina ez ezik, euskaldun herrietan predikatzailak ahal zelarik Euskal Herrikoak izatea eta euskaraz jakitea eskatzean:

“*siendo el Predicador, según San Pablo, deudor a todos, debe predicar de modo que a todos aproveche; y por esta razón en todo el Vasquense los predicadores naturales de la tierra, deben ser antepuestos a los que no lo son*” (Pedro de Lepe, *Constituciones synodales*, Madrid, 1700, 126-128. orr.).

Lepe ipiztiku jaunak ongi ulertu zuen herriagana zuzen iris-
teko modua eta ongi zetorkion euskaldunon esaera zahar hura:
Bakoitzari berea, Jainkoaren legea. Ez dakidana zera da, “Lepek
baino gehiago daki” esakuntza Kalahorrako ipiztiku haregatik
den, zeren bere jokaera zuzenagatik ongi merezia baitzuen.

Garai haietan, Elizak, erakunde gisa, euskarari eman zion
bere babesa. Baina gainerako erakundeek zer?

III - Administrazioaren jarrera

Antonio de Nebrijak 1492. urtean jarri zituen gaztelera ida-
tziarentzat gramatikazko lehen arauak, Isabel “la Católica”ren
aginduz. Bere sarrerakoan ikus dezakegunez, Nebrijak ez zuen
itxaropen askorik gaztel-erromantzea garatuko zenik latin kul-
toaren aurretik jartzeraino, itxura denez ez baitzegoen hain ziur
gaztelarak horretarako izan zitzakeen ahalmenez. Hala ere, eki-
naren buruan erabilera ofiziala gaitzen baita. Latinak ere
horrela egin omen zuen bere bidea Europako hizkuntza uni-
bertsala izatera arte. Bide berdina jarraitzea beharrezko irudi-
tzen zitzaion, besteak menderatuz edo haiek gailenduz zerbait
lortzeko, gobernuaren administrazioetik abiatuz.

Hara hemen zer zioen Nebrijak sarrera gisa Isabel printzesari
eskaini zizkion hitzetan:

*“... el mui reverendo padre Obispo de Avila me arrebató la
respuesta; y, respondiéndome por mí, dixo que su iugo muchos
pueblos bárbaros y naciones de peregrinas lenguas, y con el
vencimiento aquellos tenían necesidad de recibir las leyes
quel vencedor pone al vencido, y con ellas nuestra lengua,*

entonces, por esta mi Arte, podrían venir en el conocimiento della, como agora nosotros deprendemos el arte de la gramática latina para deprender el latín. I cierto así es que no solamente los enemigos de nuestra fe, que tienen ia necesidad de saber el lenguaje castellano, mas los vizcainos, navarros, franceses, italianos, y todos los otros que tienen algún trato y conversación en España y necesidad de nuestra lengua, si no vienen desde niños a la deprender por uso, podrán las más aina saber por esta mi obra. La cual, con aquella vergüenza, acatamiento y tenor, quise dedicar a vuestra real Majestad..."

Era horretan jarraitzen du, honela bukatzeko:

"... a ninguno mas justa mente puede consagrar este mi trabajo que a aquella en cuia mano y poder, no menos está el momento de la lengua que el arbitro de todas nuestras cosas."

Hizkuntza bakarraren alde dabiltzanak, ikus dezatela nazio modernoek zer egin zuten Europako mendebaldean guzientzat hizkuntza unibertsala zen latinarekin. Hura zen legezko bide zuzena, bakoitzak bereaz gainera, latinak guzientzat balio zigunez gero. Baina feudal mentalitateko giro hartan ez zen gogozko. Orain hor gabiltza noraezean, ingelesaren maila gaisetika-koa den une honetan. Argi dagoena da, Europan orokorrean, bakoitzak berea duenaren eta denon gaisetik zabalkunde handikoa den baten premian aurkitzen garela. Baina handinahi horiek ez dute hain gogoko, berena baizik.

Oso aipatuak dira San Millan de la Cogollako izkribuak, XI. mendean erromantze idatziaren erabilerako ageriak hain nabarmen uzten dituzten haiek. Beraietatik ageri da latin hizkuntzan idaztea errazago zitzaiera Berzeo bezalako elebidunei, arau berdintsuak zituztelako, eta ez ahozko euskaran.

Gerora ere, askok eta askok aipatu bai *Lingua Navarrorum*, baina idazteko zenik ez. Adinean euskara ikasi zuen Arturo Campionek, oso samindurik zioenez, Nafarroako erresuman

bertan XV. menderako hasiak omen ziren, oraindik bertako administrazioan ofizial gisa erabiltzen zen latina alde batera utzi eta garai hartan apenaz inor mintzatzen zen erromantze gaztelera ageri ofizialetan erabiltzen. Horren ondorioz, euskaldunek euren hizkuntza gutietsirik, herrikoa zena baztertu eta behe-runtz bultzatu zuten, batez ere Nafarroako Gorteetan zein Batzar nagusietan gaztelera zabaldu baitzuten. Ikus A. Campion, *Nabarra en su vida histórica*, 1925ean idatzia eta handik lau urtera Iruñean "Euskariana" sailean argitaratuaren 126, 177-179. orrialdeak. Beraz, XVI. mendean zehar gure herri bertatik indartu zen administrazioan gaztelararen gorakuntza eta euskararen gainbehera. Okerrena da, erabilera denborarekin berez jurisprudentzia bihurtzen dela eta geroztik erabilerak berak ofizialtasuna eman ziola.

Baina inoiz ez dezagun ahaztu XVI. mendean Nafarroa euskalduna zela Erriberaraino, hala erakusten digu Iruñeko Apezpikutegiaren 1587. urteko zerrendak. Ikus Manuel Lekuonak aurkitu eta argitara eman zuen ageri hura, "El euskera en Navarra a finales del s. XVI", *RIEV*, 1923, 365-74. orrialdeetan.

Bizkaiko Batzarretan ahalduna (apoderado) izateko beharrezkoa zen bizkaitarra eta aitonen seme izatea, baina aldi berean erromantzean irakurtzen eta idazten jakitea. Hortik sortzen dira euskararentzako eragozpenak, XVII. mende hasieratik behinik behin, G. Monrealen *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya* (1974) iker lanaren 344-348 orrialdeetan ikus daitekenez.

Horren arabera ez zen beste aukerarik, arazoa bideratua zen. Estatu guzian gaztelarak ofizialtasuna *de facto* hartu zuen.

Euskaltzaindiak 1977. urtean, gaztelera eta euskaraz argitaratu zituen *El libro blanco del euskara* edo *Euskararen liburu zuria* direlakoan 3. parteko 3 eta 4. kapituluak xehetasunez ematen dute historian zehar Estatuko Administrazioaren joera zein izan den eta gure foruzaleek nola men egiten zuten.

Gero, lehen guti bazen, Espainiako Administrazioak zuzen jarraitu du Errege Carlos III.aren *Real Cédula de 23 de junio de 1768* delakoarekin jarri zuen bidea, lehen eta bigarren mailako eskola guzietan irakaskuntza gaztelera hutsean emateko, “*únicamente en lengua castellana*”. Ohi bezala, hor erori ziren gure foruzale borrokatuak ere. Ulerkaitza baina egia.

Erruki gaztelerarik ez zekiten eskola haurrei. Gizagaixoez, euskaldun familian jaiotzearen bekatuaz zigorra leporatua baitzuten. Larramendi, Kardaberaz, Mogel, Pascual Iturriaga, Astigarraga, Ulibarri eta beste gizon guti batzuei eskerrak eman nahi nizkieke, gaur egungo haur belaunaldi berriaren aurrean. Eta gurasoez iragana kontuan har dezaten, laburki bederen, jaun horietako batzuei buruzko zertzelada batzuk adieraziko ditut.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1830. urteko ekainean Mondragoen (Arrasaten) bildu zirenean, A. Pascual Iturriagak txosten bat aurkeztu zuen industria, merkataritza eta euskara bultzatzeko Diputazioan batzorde berezi bat sor dezaten. Bost urte lehenago eskuliburu bat publikatua zuen eskoletan euskara-gaztelera behar bezala irakasteko. Bere proposamenak Batzarren onespina jaso zuen eta ekintza bidean jartzekotan zen, baina lehen karlisten gerrateak plangintza bertan behera uztera behartu zuen. Aldi berean, Bizkaiko Batzarretan J. Paulo Ulibarri ahalegindu zen euskara bultzatzen, bere *Gutunliburua* delakoan ikus daitekenez, baina ez zuen ezer lortu. Luis Astigarragak bere aldetik, A. Pascual Iturriagarekin harremanean, eskoletarako esku-hiztegitxo gramatika erregelaz argitaratu zuen 1825ean, joan zen mendean hogeiren bat argitaraldi izango zituena. Batagatik edo besteagatik, ahalegin guziok ez ziren aski izan gure foruzale haien Batzarrak gogo-indarrez berenganatzeko.

Euskara, administrazioaren aldetik, eskoletako irakaskintzara eramanez ezak hizkuntzarentzat prestigiorik eza berarekin zerman eta semeak eskolaratu nahi zituzten gurasoez horregatik ez zuten euskararenganako atxikimendurik. Jasan behar latzak

zituzten orduko euskaltzale guti haiek. Hala ere, bestelakoa zen hain euskaltzale sutsua zen Jose Paulo Ulibarri arabarraren gogoia. Kixote bera balitz bezala, *Gutunliburua* delakoan datorrenez, 1826. urtean, A. Juan Mateo Zabalarri idatziz eskatu zion Bizkaiko Furua euskaraz jar zezan. Baina Zabala, bere jakintzaren ikuspegi praktikikoaz ohartzten zen euskararentzat etxekoak ez zirela kanpokoak baino hobeak, eta bestelako iritzia zuen orduko agintariengan. Bere etsipenezko erantzuna, garai-ko giroaren lekuko dugu. Hara zer zioen:

“¿Cer: burua galanto ausi liburuac eguin ecinik, urtu orreec arguitara ateraceco, or, ogueta amar, edo berroquei milla errial, ta guero saguac, cedenac, ta autsac yateco; edo dendetan euracaz tabacoa edo piperra salduteco? Ezcagos orren zoroac: Eztakit nic cetaraco naucan Iangoicoak; baya orain beintzat eztarabilt alango amesic.”. (Ikus *Gutunliburua*, 1975. urtean faksimilean argitaratua, 49. or.)

Hori berori erakusten digu Juan Antonio Mogelen lanik hoberenak eraman zuen burubideak. Mogel 1804. urteko maiatzaren 11.ean hil zen. *Peru Abarka* liburu aipatua XVIII. mende bukaeran idatzia omen zuen, baina 1881. urtera arte ez zuen izan inprimategiz argitaratzerik. Liburuaren elkarrizketetako amaieran, euskararenganako bere etsipenezko ikuspegi tristea argi utzi zigun:

“*Urcatuco lituquee ascoc euren buruac, poruco (foruko) legueric chicarrena galdu ez dedin. Barriz anchinagoti jatorcun eusquerea, galdu dedilla ordu onean*”. (*Peru Abarca*, 1881, lehen argitalpena, 219. or.).

Lehenago, XVIII. mendean, Joanes Etxeberri Sarako Doktor mirikuak ahaleginik aski egin zuen Lapurdiko herria euskararekin ardura zedin, bere *Lau-urdiri gomendiozko carta, edo guthuna* (Baiona, 1718) zeritzan liburuarekin, Axular eredu harturik, euskaldunei euskaraganako kezka sortaraziz.

Sei urte lehenago argitara emana zuen *Escuararen hatsapenac*, non agertu zuen Escaligero-k zioena, euskal hizkuntzak ez zuela zakarkeririk eta bai lehentasun eta bikaintasunik. Hor oinarriturik, Mariana eta Oihenart-ekiko adostasunik eza azaldu zuen. J. Mariana-ri dagokionez, gure hizkuntza berez nahasia bezain basatia zeritzalako hark; eta Oihenarti, berriz, aski arrunta goimailako ideiak garatzeko.

J. Etxeberri Sarakoak, Lapurdiko jendeari deia luzatzen die gure mintzairaren ederra eskoletatik irakatsia izan zedin. Era Honetakoak ziren liburu horretako (322-323. orr.) bere azken hitzak:

“Eztut bada dudatcen JAUNAC, çuec-ere eguiazco Eskaldun, eta Lau-urtar (Lapurtar) beçala eztuçuela amodio, eta borondate bera ceuen herriarentçat, eta herrico hitzcuntçarentcat. Esperantça horrec neure baithan muguidutaric, heldu natçaitçue neure obrattoaren ofrendatcera, aguian bide hunetaz gure herrico semeec cembait laguntça edo fagore errecibituco dutela; eta oraino, zembait lo datçan-ere Escuaraz isquiribatcera, behar-bada atçar-aracico, arren beraz errecibi çaçue Evangelioco emacume pobretto haren cornadua errecibitua içan cen beçala; eta çuen borondatea hala delarican ilkhico da arguitara. Hau da mandari bat aitcinat berri jaquitera beçala dohana, eta bide-navar ikhustera, norc cer beguitarte eguinen dioen; ceren perpausen esplicacinoa (ceina Francesez deitcen baita les Particules, eta Espainolez, la Platiquilla de las Oraciones, baihalaber Syntaxa) eta bertce gaineraco Grammaticari Dagozcan gauçac, hunen beguira baitaute, hunec cer iragaiten den, edo nola beguitartea içaiten duen eta nor nola mintço den ikhusi, eta jaquin, eta ondoan; camporat ilkhitceco, edo barrenean guelditceco.

Eta baldin ene obra bere baithan ez bada ona, sinhets çaçue bederen, ona dela Theologoen erreguelaren eredura: Quid-

-quid agant homines, intentio iudicat omnes. *Cer-nahi daguiten Guifonec intencinoac neurtcentu hequien obrac, eta-hala JAUNAC sinhets çaque bethiere naicela borondate, eta bihotz on, batequin*".

Tamalez, hori zen garai haietako giroa. Hortik ikus ditzakegu, gure politikariek garai guzietan euskara baztertu dutela, eta batzuetan gaitzerdi gerorako utzi izan dutenean. Baina geroko geroa, beti arriskutsua.

Aldi berean, guraso euskaldunek, haurrak eskolaz hezi nahian, euskara gutietsiz baztertzen zuten. Izan ere, nork ez du nahi bere semeak eskolatuak izatea? Gaizki bideratutako hezkuntzan euskara zen kaltegarri eta Kardaberazek ongi zioen bezala, euskaldunek beraien hizkuntza jatorra baztertzen zuten.

XIX. mendean, mugimendu erromantikoa ideia berriekin etorri zen, herri hizkuntzei ere babesa eman nahi zioten eta poliki-poliki gauzak aldatuz joan ziren. Inoiz ez da berandu.

Foruen galera bera Europako mugimendu erromantikoarekin batera zetorkigun eta horiek suspertu zuten gure herria. Orduan kantatu zuen Iparragirrek Gernikako arbola, sinbolo gisa jarriz eta herriari begira aldarrikatuz: *Eman da zabaltzazu / munduan frutua...* Askatasun nahi horrek, gogoz, mugak eten zituen eta Joaquín Costa hark ere, Espainiari begira, hara zer zioen: "*Una prudente y progresiva descentralización hubiera bastado en aquellos años de paz corridos desde 1875. En las aflictivas circunstancias presentes, el remedio tiene que ser más radical y de resultados más eficaces: hay que trasplantar el árbol de Guernica a todas las comarcas de la península*". Eta Gracian Adema "Zalduby" kalonjeak, Lapurdiko Senperrak, mugaz gaindiko euskaldunon anaitasunerako ikurtzat hartu zuen, bere poema eza-gun hartan:

*Haritz eder bat bada gure mendietan,
Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan.
Frantzian, Espainian, bi alderdietan:
Hemen hiru'ta han lau, bat da zazpian.*

Aurrerakuntzak egin dira, zalantzarik gabe, baina abertzaletasun politikan askoz gehiago eta ez hainbeste gure herriaren altxorrik bikainena dugun hizkuntzan. Arren, behingoz iratzartu beharrean gara, kontzientziaz jabeturik lehen lehenik, gurasoengandiko hizkuntzan gehiago arduratzeaz. Eta loak hartu gabe erne jarraitu beharra dugu, ekintza bidea luzea dugunez eta euskaltzaletasunean indarrak ahul. Behar dugun etorkizuna, beraien buruak abertzaletzat dituztenak, lehentasunez, euskalduntzean datza.

Gezurra badirudi ere, gure egun hauetan oraindik ez dugu egoeraz lasaitzerik, zeren ezinezkotzat jotzen baita epaitegietan euskaldunak euskaraz epaitzea. Estatu guzrirako hizkuntza ofiziala gaztelera omen, naiz eta Autonomi elkargoan bi hizkuntzak koofizialak izan. Jokaera horiek bultzatu nahi dituenak jakin beza, guk erdara bezala, besteok gogoz euskara ikastera ahalegindu beharra dutela. Hori bete ezin dutenei errespetua zor zaie, baina epaile euskaldunari lekua eman beharko diote epaitua izango denak berak hala eskatzen duenean behintzat. Aurrerantzean Europaren pluraltasunean joan beharra dugunez, aukera hori uka ezinezkoa da.

Huts nabarmenak gertatzen dira epaitu behar dena bere hizkuntza jator bezain naturalean epaitzen ez denean.

Zuzenean aritzen direnak oroi, Pierre d'Lancrek, 1609.ean, Lapurdi eta Nafarroa Behereko hainbat emakume euskaldun Bordelen sutan erre zituela, ulertu ezin zuten hizkuntzan sorgintzat epaiturik. Lancreken ustez, gure herri gehiengoa hugonotetzat (calvinistatzat) hartzeaz gainera, deabru hizkuntzan mintzatzen omen ziren. Aldi berean, beren buruak gorde nahirik 1610.ean mugaren alde honetara ihesi zetozen emakumeentzat hemen ere sorgin-ehiza ireki zuten. Horrelakorik gerta ez dadin eta injustizia horretatik hainbat eta urrutien izango bagara, epaileek ere bi hizkuntzak jakin beharko dituzte. Baina, otoi,

abertzaleon artean zenbat legegizon dira euskara dakitenak? Zuzenean, zuzen erabiltzeko, abertzaleongandik hasi behar genuke.

IV - Eskoletan haurrak eraztunez zigortzearena

Lehenago eskoletan izaten zen jokaeraren lekuko batzuk eskainiko dituk, inork pentsa ez dezan gorago aipatu ditudan zigorketak nire ustezkoak ote diren. Hara hemen ondoko gertakari lotsagarriok.

Eskola maisuak euskaraz egitea debekatzeko kontsigna gisa erregelak zituzten, behinik-behin XVIII. mendetik, eta gurasoen hizkuntzan mintzatzen zirenak eraztunez zigortuak izaten ziren. Semeak eskolatu nahi zituzten gurasoek ezin ba kexa beren haurrak ikasketarik gabe geldituko ziren beldurrez. Jokaera horren lehen lekukoetariko bat dugu, nik dakidanez behintzat, Nafarroako Galipentzu (Gallipienzo) herriko maisuarena, 1730. urtean era horretan haurrak zigortzen zituenarena, Jose Mateo zeritzan galipentzuarrak urte horretako irailaren 14an Orreagako artxibategian utzi zuen lekukotasunak dioenez, han fraide sartzeaz bere kontu ematean oroitzapenetan agertu zuenaren arabera. B. Estornés Lasak bere liburuetariko batera oso ongi eramanak ditu euskarak historian zehar izan dituen gertakariak, *Canto y cantares de Euskalerría. Poemario nacional vasco* (1994) delakora Galipentzuan erabili zen pedagogiarik gabeko hezkuntza ohitura zakarrarena liburuaren 89-92. orrialdeetan dakar.

Garai hartatik gure mende honetara arte lekuko ugari da.

Baina, hemen orain Arabarekin euskarak zerikusirik ez duela uste duten arabarren jakingarri XVIII mendeko bi lekukotasun aipatuko ditut.

Euskal idazleontzat liburu oso ezaguna da Aita Agustín Kardaberaz *Eusqueraren berri onac* (1761) deritzana. Bere lehen kapituluan, “euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du” esaldi aipatu hura azaldu zuena. Bigarren kapituluan ordea, ideia jakingarriak eskaintzen zituen euskararen hizkerari buruz; baina hirugarrena izan zait beti hunkigarriena, naiz eta euskaldunon zoritxarrez han aipatu, nik dakidanez, euskaraz mintzatzen ziren haurrak eraztunez zigortzearen usadioa bere zehaztasun osoan.

Justo Garate zenak, bere aldetik, iker-saio ederrik eskaini zigun “El anillo escolar en la proscripción del euskera” izenburuz *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkariaren 1969-1972. urteetako zenbakietan. Azken oharretan, Arabako Dulantzín (Alegria) gertatzen zenaren berri eman zuten, 1829an Paulo Mendibil arabarrak *No me olvides*-en (Londres, 1829) idatzi zuena lekuko. Ikus aipaturiko *Bol. de la R.S.V.A.P.*, XXVIII, 1972, 174. orrialdean, Paulo Mendibilek zioena zuzen, praktikan eraztunarena jakin dezagun berak hitzez hitz zioenetik:

“Que mi lengua es la bascongada, y para obligarme a que la olvide como si fuera incompatible con aprender i saber la castellana, me condenan a recibir el maldito anillo si se me escapa una sola palabra de las que mamé con la leche, aunque diga Ama en lugar de Madre, o pronuncie Jaungoicoa en lugar de Dios, queriendo invocar su santo nombre. El anillo de mis pecados acierta a hallarse en mi poder. ¡Crimen peor que de esa autoridad majisterial! ¡Sotana solemnísima!

“¿I si no aparece el anillo? ¿Si para evitar ese paso, se oculta, o de una vez se me hace pedazos i nadie lo saca? En tal caso, ¡jai del último que lo tuvo! El es el respomsable. ¿I si nadie lo tuvo, i lo dió el señor Maestro? Todos seran azotados. ¡Cómo

todos! ¿I quién los toma a cuestras? Los señalados. ¿Que funcionarios son esos? Cuatro o seis discípulos, escojidos entre los más robustos i mal intencionados, que son tenidos por intanjibles, sólo porque hazen ofizio de verdugos, para arrojarse como perros de presa sobre el infeliz condenado a azotaina, sujetarle, desembragarle, i llevarle delante de la poltrona del señor maestro, poniéndolo descubierto i bien a tiro, para que no yerre el golpe de la crujiente disciplina”.

Izugarria benetan Mendibilek kontatzen zuena. Hori ote da pedagogia? Eta pentsa praktika horrek urtetan zehar iraun duela eta Francoren diktadurapean oraindik ere erabili zela, bereziki Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait eskolatan.

Horrezaz gainera, kontsigna gisa edo, garai horietako maisu askok gurasoei aholku ematean, euskara estudiantzeko kaltegarri zela edo haurrei bi hizkuntza bateratsu irakasteak mintzatzeko toteltasuna sortzen ziotela eta abar.

Denborak aldatu dira eta orain on da elebitasuna, baina bartzuetan, ingelesa gomendagarriagoa omen. Kontuan eduki gabe guk lehenen geure gizarte-giroaren elkertasunezko oreka lortu beharra dugula. Eta kontuan hartu gabe, bertan jatorrizkoa eta arbasoengandik historiak ekarri diguna dela aurreneko, gehienok opa dugun elkertasunaren onerako.

Antza denez, Kardaberazek *Eusqueraren berri onac* deritzan liburuaren hirugarren kapituluaren 16-19. orrialdeetan, berri onaren orde z berri txarra zekarren, txarra eta lotsagarria benetan. Hau ere Araban zen eta gogor salatzen zuen praktika txar hori, bai berak eta baita kontatu zion Erregeren Guardiako kapitain hark ere. Hau zen Kardaberazen iritzia. Baina ikus dezagun zer zioen:

“Emen guraso ta maisuac falta andi bat erremediatu bear dute, ta gure Eusquerari orañdaño baño mesede guei ego eguiñ. Genteen artean beste Lenguageric Eusquera baño dicha gabeagoric ezta icusi, ta gure jatorrizco, edo jaiotzaco

Izquera ezbaliz bezala ta Euscaraz itzeguitea, pecaturic aundiena baliz bezala, guiza artetic quendu, ta lurpean ondatu nai dute, ta Escoletan sortija edo siñaleaquin, azote ta castiguaquin eragotci nai dute. Cer eraqueria itsuagoric au baño? Euscaldun prestuac, ez arren orrelaco ofensaric zuen lenengo ta beti bear dezuten Eusquerari eguin. Zuen juicioa non da? Euscalerrietan nola gauza onic izango da?

“Arabian nembillen batean, ango adisquide, ta Erregeren Guardiaco Capitan baliente batec beñ esan cidan: Aita, nola Euskalerrietan, umeen aciera ona, ta bear dan Dotrinaric izango da, baldin Eusquera ondatceco aleguiñ guciac eguiten badira, ta gure mutilcho, edo aurrai bildur ta azoteaquin Eusquera itzeguitea eragotzen bazaie? Oiec berac gero edo Eleizaguizon, edo Echajaunac izan bear dute. Eta guraso edo Curac diranean, nola ongui premia dan bezala, beren Etxe edo Ergoienetan (Erri chiquiai onela Arabian deitcen diete) Dotrina eracatsi, ta confesatuco dute? Nola beren familiaritaco artu emanac, ta beste bear diran gauzac ondo aditu, ta zucenduco dituzte? Ikusten deguna da: gazteac Latin gramatica icasten dutenean, naiz Gaztelaniaz, naiz Francesez, naiz Eusqueraz itz eguiten dute, ta ori eragotzen ez diete. Gramaticaco Maisu famatu bat gure egunean zan. Latin gauzac ere Eusquaraz erakusten cituena: ta Frances Euscaldunai Gramaticaco Erreglac Euscaraz adiraci, ta eracusten diezcate. Ala ez Escolan, ta ez Gramatican Euscara beñere utci bear ezta. Soldadu Jaun onec arrazoi andia ceucan. Aldatequean disparateric bidegabeena da, Eusquera gazteai debecatu, ta madaricatua balego bezala castigatu ta eragotzea. Escolan bertan eracatsi ordu onean, ta Erdaraz jardun dezatela; baña guero libre, naiz Eusqueraz, naiz Gaztelaniaz: orrequin bietara eguingo dira. Bestela Gaztelara gazteac badijuaz: an burla, ta lotsa andien costuan badere, Erderaz icasten dute: ta nola Eusquera quendu cieten, ta jarduten ez duten,

beren Erri, edo Echeetara biurtcean, alde gucietara barregarriac oi dira: ta eguias esan oi da: Gaztelania ez icasi ta Eusquera bai aztu. Guero emen lotsa andiaz dacuscuna: ez itz egiteco ta ez elcar aditzeco, Erderazco ta Euscarazco naspilla moldacaiz eta nazcagarri bat enzun oi da.

“Bedeica nic daquidan Maestra estimagarri errespeto andico bat, bere gracia onarequin, ta castigu gabe ume inocente sei urtecoai ere, Eusqueraz, Erderaz ta Latinez berdin, txit trebetasun andiaz ta ederqui lotsaric gabe eracasten diena. Ojala ori bera Maisu guciac eguiten balute: mutil mutu, lotu motel guchiago Errietan izango litzaque...”

Ulertu nahi duenarentzat, adibide ederra; baina hizkuntza bakarrekoez nekez uler dezaketena. Hori nolabait ulertzeko, gogoratu Espainian arabeen kontrako gerrak eta aldi berean juduak bortxaz erbesteratzeko Kruzadak ekarri zuela garai haie-tatik gure egunok arte iraun duen esaldi lotsagabea, gazteleraz besterik ez zekitenek, bestelako hizkuntzetan mintzatzen ziren guziei mesprezuki behartuz hainbeste erabili izan dutena: “¡Hable usted en cristiano!”.

V - Ombudsmanen ikuspegitik

Naturala den hizkuntzari eskubide naturala zor zaio, nioen 1977ko urtarrilean Donostiako *Hoja del Lunes* astekarian argitaratu nuen artikulu hartan. Bildua dator *Bidez* (1981) liburua-ren 301-304 orrialdeetan, non garai hartan azaltzen nituen gure hizkuntzak zituen arazoak.

Bi hizkuntza egiten diren herrietan, elebidunak ez du pro-

blemarik sortzen elebakardunak baizik. Elkarrekiko harremanetan era egokiak lortzeko, denak elebitasunera eramatea litzaiguke egokiena. Europak berez du hizkuntza gutxituen kopuru handia, aldi berean bertako direnak eta elebitasunean bizitza iraunaraztea erraz lor dezaketanak. Ez baita gaur egungo gizartean legezko gure Otaño bertsolariak hain minduraz esan zuena: “Ez degu arrazoirik gutxi garelako”, behingoz kriterio horrek ez du izango baliorik aurrean dugun Europa horretan.

Ararteko kargua leporatzeaz, lehenengo urte berean bisitatu nituen Espainian ziren herri defendatzaile guziak banan banan, bakoitzak bere lege barnetik nola jokutzen zuen ezagutu nahirik eta aldi berean kontseiluak jasoz, praktikak irakatsi zienetik. Katalunian bereziki, Síndic de Greuges-ek elebitasuna nola eramaten zuen jakin nahi nuen. Eta, hark esan zidan, bakoitzari berea errespetatu behar zitzaiola, nahiz eta bere kasuan gehienek katalanez egin, gaztelerazko kexei berenean erantzuten ziola. Baina, berak administrazioari idazki guziak katalanez bakarrik egiten zizkiela eta denek onartzen zutela. Agertu nion Euskal Herriaren egoeran ezinezko nuela jokaera berdina hartu, baizik hiritar bakoitzari berean eta administrazioan horien jarraipena ere hiritar bakoitzarenean. Oso ondo iruditu zitzaion. Artean ez zen Galizian Valedor do Pobo-rik, baina honek legean bertan itsatsirik zuen izendapenerako bi hizkuntzak jakin beharra, jarraipenak eta txostenak galegoz egin zitzakeen.

Gaztaroan, Greko-Erromar kulturaren oinarritzen ginela ohar-tu nintzenetik, inoiz ez nion aterik itxi Europaren mendebaldeko kulturari. Gogoko nuen Telesforo Aranzadiren esaldi hura: “Euskal Herria ez da enbor bitxi bat Europako mendebaldean”. Eta Ararteko karguaz jabetzeaz, Protagora sofistak *Egiari buruz (Aleetheia)* liburu hartan agerrarazi zuena nire eginaz: “Gizona da gauza guztien neurria” esaldia ikurtzat hartu nuen. Handik berehala sartu nintzen Europar Ombudsman Institutuan, eta urteroko batzarretara joan ere. Izan nuen zer ikasirik eta zer ira-

katsirik. Hala uste dut, zeren antolakuntzaz agertu nizkien ideiangatik egin ninduten 1993an erakundearen buruorde eta handik urte betera buru.

Besteak beste, 1992ko otsailean Europako Kontseiluak herrialdeetako hizkuntza gutxituei buruz prestatu zuen gutunaren proiektua Estrasburgotik igorri zigunean, hura aztertzeko batzarretan partaide izan nintzen. Giro ona aurkitu nuen, uste baino hobea. Ombudsmanen aldetik, hein batean, denak kezkatu baitziren hizkuntza gutxituak zaintzearen alde, batez ere Gutunaren 7. artikulua zekarrena betetzeaz, hezkuntzaren maila guzietara eramanez indartzeko, hizkuntzok, Europa guziaren ondare zirenez gero. Baina ez bakarrik hizkuntza soila, baizik bere literatura eta ingurukotzat zuen kultura bera, 8. kapituluak zekarrenaren arabera. 9.ean ordea, gauza bera eskatzen zen Justiziar dagokionean, bakoitzak bere burua bere hizkuntzan defendatzeko ahalmena izan zezan. 10.ean, agintari eta zerbitzu publikoek nola bideratu behar zituzten herri bakoitzeko arazoetan. Ondoko artikuluetan zetozen komunikabide, ekinga kulturalak, sozio-ekonomikoak, mugarteko edo mugazgandiko harremanak eta abar. Hogeita hiru artikuluk osatzen zuten proiektua, hogeita hamabost orrialdetan. Asmo ederrez osatua zegoen eta ohar guti gaineratu genizkion; hori bai, lehenbailehen praktikan jartzea gomendatu genuen. Hori zen ombudsmanen borondatea.

Han orokorki agertu zenaren arabera aurkezpena egin nion 1992. urteko Txostenari.

Baina batzar hark ondotik eskatzen zuen tokian-tokiko ombudsman bakoitzaren ahalmena zertan zen horrelako legearen eskariak bideratzeko. Ombudsman guzien legeak ez baitziren berdinak. Bakoitzak zer egin genezakean ikusteko, beste batzar bat antolatu zen. Hizkuntza bat baino gehiago egiten ziren herrialdeetako bakoitzari eman zitzaigun mintzatzeko

aukera, zer nolako arauetan oinarritzen ginen hizkuntzari buruzkoan eta nola bideratzen genituenaren berri emateko.

Niri zegokidanean, azaldu nuen gure Autonomi herkidegoan bi hizkuntza zirela ofizial onartuak: euskara eta gaztelera. Horren arabera, hiritarrek askatasun osoz hauta zezaketela bietariko bat administrazioaren aurrean. Nik ordea, hiritarren kezak, bakoitzarengandik zetorrenean jarraitzen nituela, inongo eragozpenik gabe. Arartekoa, 3/1985 Legeak arautzen zuela. Ararteko erakundea, ombudsman guziena bezala, buru egiten duen pertsona bakarraren erantzunpekoa zela, eta lege horren 15. atalak dioenez, kexen isilpekotasuna gorde behar duela, eta erakundearen arduradun soil-soilik titularra zenez gero, nahitaezkoa zela bi hizkuntzak jakitea. Zeren hiritarrek aurkeztu behar duen kexa, bere ustez larria bazen eta honek bitartekorik nahi ez, buru eta arduradun bakarrarekin hitz egiteko eskubide osoa zuela, isilpekotasunak hori eskatzen duenez gero.

Elkarrizketetan, gertakari batzuen adierazpena esanplu gisa agertzea eskatu zidatenean, Galdakaoko baserritar batena agertu nien, gazteleraz oso gaizki idatzitako gutun bat igorri zidala kexa pertsonalki hitzez aurkezteko eskariaz. Bulegora joan zenean, lehen hitzak: "Nik Bizkaiko euskerea eiten dot eta ez dakit ondo ententituko daustazun, ze nik ezin nei idatziz ondo agertu esan bearrekoa eta orretxegatik nai izan dot zeuri aoz agertzea". Ihardetsi nion: "Bai jauna, neuk be gurasoengandik bizkaiera ikasi neban eta oindiñok be etxian bizkaieraz egiten dot". Hark hartu zuen lasaitasuna ikustekoa zen. Kexa zehatz-mehatz aurkeztu zidan eta zekarren arazoa konpondu zitzaionean, eskerak eman zizkidan gutunez, Bizkaiko euskeran gaztelerazko ortografiarekin. Erdaraz hain motel zebilen hark inoiz ez zuen euskarazko eskolarik zapaldu.

Beste batzuetan, adineko pertsonak, telefonoz eskatu izan zidaten bisitarako eguna eta ordua jar niezaien. Horietariko

asko izaten ziren gazteleraz adierazteko eragozpenak zituztenak eta beste batzuk elebidunak izan arren, erreztasunagatik edo beren borondatearen arabera euskaraz nahiago zutenak. Baita ere, bazen bat administrazioko ustelkeria salatu nahirik non bilduko ginen tokia telefonoz jarri zidana, salatu beharrekoak berez zekarren arriskuagatik. Hara heldu nintzenean, bera aurreratu zen esanaz: "Zu euskalduna zera eta nik ere euskaraz hobeto adieraziko nizuke eta, ongi baderitzazu, gure hizkuntzan mintzatuko gera".

Batzar horietan, elkarri esperientziak erakusten aritzen gineenez, herrialdeko Ombudsmanaren garrantzia zertan zen agertzearen gaia hautatu zuen Europäisches Ombudsmann Institut erakundeak, Arartekoarekin Gasteizen 1993an antolatzeko. Era askotako gaiak ziren, baina hizkuntzari buruzko hitzaldia, Italiako Hego-Tiroleko Werner Palla ombudsmanak agertu zuen "Ombudsmana eta gutxiengoak" zeritzan hitzaldia, non azaltzen zituen hango hiru hizkuntzez aurkitzen zituen arazoak (ikus *Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra. Herrialdeko Ombudsmanaren Garrantzia*. Gasteiz, 1993, 142-165. orr.). Palla jaunaren arabera, ez da bakarrik komenigarria berari zegokion herrialdeko hiru hizkuntzak jakitea, baizik eta ombudsmanak, bereziki gutxiengoari zuzenean laguntza gehiago ematen ere jakin behar du eskuartean duen arazoa bi aldeetara berdintsua denean. Hala ere, gutxiengo, bere egoera horregatik, beti agertuko baita galzoriaren arriskuan. Oraindik ikastekorik asko dugu.

Hizkuntzaz ez nuen arazorik sortu Legebiltzarrean. Garai hartan gehiengoek behartu zuten elebiduna izendatzea. Eta, arazo honetan, bost urteren buruan egiten nuenak jurisprudentzia lortuko zuela uste nuen. Gainera, diputatu askok galdetzen zidaten hizkuntzari buruzkoa eta jakitun ziren, burutzaren ardura bakarra zuen erakundeak, kexak isilpean eraman

beharrekoak baziren, nahitaezkoa zela bi hizkuntzak menderatzea. Baina politikariak ezaguturik, badakit tratua araberaren direla gauzak; lortu nahi dena, gehienetan beste zerbaiten trukean izaten da. Eta, trukea, joko da. Ez beti gauza garbia.

VI - Gaur egungo egoera

Europaren zein Ameriketako Estatuak gehiengoen konstituzioetan ez da inoiz jartzen hizkuntza ofizialtasunik. Baina, aitortu beharrekoa da, hedatuak berez duela indarrak gehien eta *de facto* agertzen dela besteak baino egoera hobean. Horren arabera, ez luke behar laguntza berezirik. Baina, hara hor: Frantziako Errepublikaren Kontseiluak bere esku du hizkuntzei dagokien arazo hau, bera da baina Europako Batasunean hizkuntza gutxituen aldeko gutunari betoa jarri diona. Horrela, Europaren izakia naturala ukatzen du eta elkartzunean bizi ahal izateko aukera arriskuan jarri. Espainian ordea, bigarren Errepublika izan zen estreina Konstituzioan gaztelera ofizialtzat jarri zuena. Gazteak berez zuen indarrez gainera, erabaki horrekin, konfederaturik uzten zituen bertako beste hiru hizkuntzak, jatorriz antzinagokoak izan arren. Orain dugun Konstituzioa ordea, neurri batean haren ildokoa da.

1978ko Espainiako Konstituzio berriak ez dio jarraitu Suitzakoaren bide ereduari, ezta ere ONUk 1948. urtean giza eskubideez agertu zuen ageriaren 2. artukuluak bere orokortasunean adierazten duena. Geroago Unesco arduratu zen lan sakon bat gertatzen, soziologo, hizkuntzalari eta pedagogoak bilduz eta elkarren artean hizkuntzen arazoa aztertuz. Horren ondorioz

argitara eman zuen 1953an *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* zeritzan lan gomendagarria.

Baina ikus dezagun Espainiako Konstituzio berrian, sarrerako tituluaren 3. artikuluko lehen puntutik hirugarrengora dioena. Hara, zer dioen *Titulo preliminar* delakoak:

“ 1. *El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.*

“ 2. *Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.*

“ 3. *La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección.*”

Euskaltzaindia izan zen asmo horren aurka irten zen erakunde bakarra, Konstituzioa onartu baino hilabe lehenago publikoki salatuz. Gure politikoez ez ziren ohartu edo ez zuten ohar-terrik nahi izan. Euskaltzaindiak ordea, bere aldetik, 573/1976ko otsailaren 26ko Erret Dekretu haren sarreran Errege berak eman zion mezua betearazi besterik ez zuen egin. Ikus, *Euskera* agerkariaren, XXIV. alea, 1979. urtekoan, 131-132. orrialdeak. Jakin nahi duenak, irakur beza.

Oñatin 1918. urtean Eusko Ikaskuntzaren lehen bilera har-
tan erakunde honen eta Euskaltzaindiaren sorrera izan zen, lau Diputazioen babespean (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), eta 573/1976ko Erret Dekretu haren sarreran, oraingo Erregeak, bere aitonak Oñatin egin zuen hitzaldiaren zati bat oroitu zuen: “*Consagraos al estudio y fomento de todo cuanto pueda contribuir al adelanto y progreso del País, cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habéis recibido de vuestros padres y debéis legar incólume a vuestros hijos*”. Uste dut nahiko argi

dagoela Euskaltzaindiak hizkuntzari buruzkoan Espainiako Konstituzio honegatik bere jarrera agertu beharra. Zenbait gai ez baitira politikoen esku uztekoak, bereziki jatorriz herri baten ondare naturalak direnean.

Euskal Herriko Autonomia Estatuttoa 1979ko abenduan onartu zen, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia osatzen duten herrialdeetarako, gaztelera eta euskara, bi hizkuntzak ofizialki jarritz. Eta Legebiltzarrak onartu zuen azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabileraren arauen oinarritzkoa dena.

Aldiz, Nafarroak ez zuen hartu bide bera. Han egin denari bidegabekeria deritzot, herrialdeak zatitu ziren hizkuntzen arabera, kasta desberdinekoak balira bezala *apartheid* lotsagarrien erara jokatzuz: a) euskalduna, b) elebiduna, d) gaztelera duna. Kontuan eduki gabe, adibidez, herri euskaldunetan badirela euskararik ez dakitenak eta, industrializatzearen eraginez, baita ere Tafallan zein Tudelan euskaldunak. Hala denean, gizon bakoitzak zuzenean, berarekin edonora daraman foru pertsonala da, herikidego edo komunitate baten barnean ezinezkoa giza eskubideak hautsi gabe. Espainiako Konstituzioaren Titulo preliminar delakoaren 1, 2 eta 3. artikuluen aurrean ez da zuzena herikidego edo komunitate baten barnean. Bestalde, ONUren ageri hark dioena ongi uler eta zuzenbidez joka badezakegu inongo politikoez ez lukete horrelakorik egin behar. Euskaltzaindiak arrazoiz salatu zuen giza-eskubideen kontra doan nafar politikoen jokaera hori (ikus *Euskera*, XL, 1995, 555-562).

Hiritarrei bakebideak eskaini behar dizkiete politikoez, eta ez elkarren arteko iskanbilarik sortu. Nafarroako historia zerbait ezagutzea aski da jakiteko "Lingua Navarrorum" bertako hizkuntza jatorra zela, euskara eta ez erromantzea.

Hutsune horri nolabaiteko konponketa eman nahirik edo, oraintsuago, Nafarroako Forua Hobeagotzeko sortu zen erakundeak, garapenerako lorpenez Euskararen Legearen 17. artikulua

erantsi dio, jadanik zerbait bideratzeko asmoz egina dela esango nuke. Baina, hala balitz ere, ez zait aski iruditzen. Oraindik *apartheid* horrek hor jarraitzen du gure erresuma zaharreko herri guzietan eskubide berdina eskaintzen ez duena.

Eta horren ondoriozko ageriak ere hor ditugu. Elebidun herrialdean hara zer gertatu den Nafarroako Epaitegi Gorenak Barañaingo Udalaren kontra jarri duen auziaz. Honen adibide-rik egokiena Euskaltzaindiak honako salakuntza hau adierazte-an argi nabari da:

Barañaingo Udalaren 1994ko deialdi batez Nafarroako Epaitegi Gorenaren 1997ko otsailaren 20ko epaia dela eta Euskaltzaindiaren adierazpena. - *Euskaltzaindia 1918an Nafarroako eta beste hiru probintzietako Diputazioen babespean sortutako Euskararen Akademia da eta, jakinaenez, bere helburu nagusia euskararen etorkizuna eta iraupena bermatzea da. 1976ko otsailaren 26ko Erret Dekretuak bere hitzaurrean dioenez berriz, "euskara munduko gizadiaren bitxi baliotsu-baliotsua izanik, Euskaltzaindiaren zeregina da" "Erresumako kultura eta altxorren zati handi bat den eta espainiar askok erabiltzen duen hizkuntza honen batasuna bultzatzea". Nafarroaren kasuan, egungo legearen arabera, Euskaltzaindia da Administrazio Publikoen aholkulari ofiziala. 1986ko abenduaren 15eko 3.3. artikulua arabera.*

Horregatik, zenbait lanpostutara aurkeztu ahal izateko euskaraz jakitea ezin dela nahitanahiezkotzat hartu dioen epaiak izan ditzakeen ondorioek kezkatu eta larritu egin dute Euskaltzaindia: beste hainbat arrazoiren artean, epai hori Nafarroako Epaitegi Gorenak Administrazioa bera kontrolatzeko duen Salak, hain zuzen ere, eman duelako.

Horren ondorioz, Euskaltzaindiak adierazten du:

- *Aipatu epaiak legea bera hausten duela, bai Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua, bai eta Nafarroako Foru*

Hobeagotzeko legearen garapenerako egindako Euskararen Legearen 17. artikulua ere. Eta baita ere Europako hizkuntza gutxituei buruzko gomendioa.

– Nahitanahiezkoa deritzaio Euskaltzaindiari, zenbait lanpostutarako, batez ere irakaskuntza eta administrazioaren arlokoetarako, euskaraz jakitea. Eta Barañaingo Udalak, gizarteak berak aspalditik bizi duenari men eginez legalki ez ezik, egoki eta zentzuz jokatu du deialdian baldintza hori jarritz, udalerrri horretan gero eta ugariago diren euskal hiztunei behar bezalako erantzuna eta zerbitzua eman ahal izateko. Horrela berretsi du Nafarroako Parlamentuak berak ere 1997ko apirilaren 24ko erabakian.

Bilbon, 1997 apirilak 25

Ikus *Euskera*, XLII, 1997, 193-196. orrialdeak.

Euskaltzaindiaren adierazpen hau ez dute argitaratu zenbait egunkaririk, beste batzuk ordea zerbait murrizturik edo beste zenbait ohar erantsiz; bakoitzak bere taldekeria agertuz. Eta hori ez da ona. Euskaltzaindiak, taldekerien gainetik pragmatika erakutsi du Euskal Herriaren ondare altxorra den hizkuntzaz eta, nire ustez horrela behar du guzian ondare izan dadin.

Baina Frantzia aldeko euskaldunek zer? Alde hartako Euskal Herrian, demokrazia zaharragoaren jabe izanagatik, harritzekoa bada ere, Estatuaren aldetik ez du izan inolako begiramenik. Familiek ahal bezala zerbait egin dute ikastolak sortuz edo Elizaren babespeko eskola libreen bidez. Beraz, hango egoera larriagoa da. Herrialdeetako hizkuntza gutxituei buruz Europako Kontseiluaren Gutuna ontzat hartuko ote dute?

Euskaltzaindiak, bere sortzeko 75. urte mugakaria ospatzeaz Frantziako gobernuari euskararen koofizialtasun eskearen ondotik hara zer plazaratu behar izan zuen:

Euskaltzaindiaren adierazpena hizkuntzei buruz Frantziako Estatu Kontseiluak eman duen iritziaz. - Berriki-

tan, frantses gobernuak eskaturik, Estatu Kontseiluak eman dio bere iritzia: Frantziak ez diezaiokeela sinadura eman hizkuntza gutienik mintzatuen aldeko Euro-Kartari, justizia eta administrazio esparruetan Konstituzioaren 2. artikuluaaren kontra liboakeelako, Errepublikaren hizkuntza frantsesa izanez.

Euskaltzaindiak deitoratzen du horrelako ikuspegi hertsia eta zaharkitua, eta, euskararen zaintzaile eta bultzatzaile bezala, errepikatzen du bere sortzeko 75. urte mugakari, 1994.eko uztailaren 30ean, Miarritzeko udaletxean aldarrikatu zuena: "Ikusirik Europako Parlamentuak eginiko gomendioa, euskara ofiziala dela Hegoaldean eta tresna egokia bihurtu dela gaurko gizartean, galdegiten dio frantses gobernuari euskarak ukan dezan Autonomia Erkidegoan duen koofizialtasun bera Iparraldeko hiru probintzietan".

Gainera, ikusiz, geroztik egin diren ikerketa zehatzek, euskararekin Iparraldean zer gertatzen ari den erakutsi duela, frantses gobernuak kontuan hartu behar luke alor horretan daukan erantzukizuna. Hortaz, Euskaltzaindiak gaur, bere hileroko bilkuran, aho batez, erabaki du, Europako erakundeek honen guztiaren berri ematea, egokiak diren neurriak har daitezten Euskal biztunen eskubideak bermatuak izateko.

Donostiako udaletxean, 1997ko otsailaren 28an

Ikus Euskera, XLII, 1997, 191. orrialdea.

Kostako zaigu aspaldidaniko txaubinismo horren jarrera aldatzea. Bai horixe!

Lerro hauek idatzi ditudan arte iritsi zaigun erantzun bakarra, Vasco Press-ek maiatzaren 25ean egunkarien bidez agertu ziguna da, Frantziako Hezkuntza Nazionaleko inspektore den Daniel Gauchon jaunak administrazioaren aldetik Pabeko Departamenduari zirkularrez eman dion agindua: eskola publikoetan ez dela elebidun irakaskuntzarik izanzen, 1995. urteko

egitarau ofizialak dioena betearazi baizik. Egiaz elebitasunik ez denez gero, haurrek "sofritzen" omen dute inguruko giroaren aurrean. Hori da euskarari uko egiteko modua.

Gezurra dirudi, Europaren batasunerantz goazen heinean arazo horiek hobeto ez begiratzea. Dena dela, aurrera jo dezakegu, zeren Europari begira arrazoia ez baitago gehiengoan edo gutiengoan, erkidego edo giza talde bakoitzaren gogoan eta jarreran baizik. Horretarako lagungarria zaigu Santiago Petschen Verdaguer-en *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: Documentos (1492-1989)*, 1990. urtean Eusko Legebiltzarrak argitaratua. Bi liburukiok begiratzen baditugu, hor bada hautagai eredugarririk. Ez dugu gauza berriak asmatu beharrik. Nahiz eta arestian esana dudanez, Suitzako Konstituzioa dugula guzietan eredugarriena.

Hala ere, Autonomi erkidegoan, Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari esker, azken urteotan, haurren eskoletatik Unibertsitate-rainoko bideak urratu dira euskarari leku eginaz. Baina, esan beharra dago, lehenago euskaltzale batzuk ikastolak indartu izan ez bagenitu abantaila horiek nekezagoak izango zirela. Hezkuntzan, gurasoen baitara uzten da A, B eta D ereduaren arteko hautaketa, eta haurrak erraz moldatzen dira batean zein bestean.

Gauza jakina da haurrak jolas gisa ikasten dituztela hizkuntzak eta bi dakizkienak hirugarrena errazago ikasten duela. Irakaskuntzaren disziplina barnean jarraitzen den artean errazago baita heziketa eta Unibertsitaterako bidea egokiago lortzea. Baina adineko funtzionariak hizkuntza politika hertsira behartzea edo makurraraztea beste gauza bat da. Horretan, pertsona bakoitzaren egoera, lanpostuaren bete beharra eta bakoitzaren ahalmena kontuan hartu beharrekoak dira. Estrategia egokia eramatean datza hizkuntza politikaren arazoa, eta hau indarkeriarik gabe lor daiteke. Arazo horretan haurrentzako pedagogia ez delako adinekoentzat baliagarri. Begien bistan dago ondo ez

bideratzetik sortu direla tira-birak eta gorrotoak. Mogel idazleak aspaldi esan baitzuen:

"Aurchoac, edo gente gazteac chit erraz ta ederqui icasten dituzte itzquerac. Lau edo bost urteco mutilcho bat badator Gaztelatic Euscalerrira, laster icasico du eusquera, ta ebaquico ditu itzac guc becela, ta aztuco zaio erdera baserri baten acitzen bada. Baña badator berrogei urteco bat, bearco du dempora lucea, ta icasten duena ere, ez ondo". (J.A. Moguel, *Confesio ta comunioco Sacramentuen gañean eracasteac*, Iruña, 1800, 81. orr.).

Adinekoen alfabetatzeaz, Rikardo Arregi zenaren ideia hura, 1966an Euskaltzaindiak onartzean hasi zen Euskalduntze Alfabetatze Kanpaina (ikus *Euskera*, XIII, 1968, 313. or. eta bere arauak XVII, 1972, 218-219. orr. Alfabetatzeari buruzko zenbait ekintzaren kontu emateaz ere, ikus XXVI, 1981, 159-169. orr.). Euskal Irakasle Tituluaren arauak ordea, 1972an jarri zituen (ikus *Euskera*, XVII, 1972, 220-223. orr.). Euskaltzaindiak, erakunde bezala, lehenagoko ezinak garatu zituen urte horietan eta zuzenean ari zen bere sorreratikako arautegiaren egitekoa betetzen. Baina Autonomi erkidegoan Jaurlaritzaren esku utzi zituen eginkizun horiek. Honek, orduan sortu zituen HABE eta EGA ekintza haiek aurrera eramateko. Geroztik, ezin uka, Hizkuntza politikarako erakundea eta IVAP baliatu direla hortaz eta lan egokia burutu dutela barnetegietan funtzionarioei zein bestelako gizakumeei irakasten. Ez zen gutiagorako.

Bestalde, esan beharrezkoa zait, Autonomi erkidegoan, politikoei lan ona egin digutela hizkuntzaren alde legeak eskuratzean. Baina, bestalde, jatorriz herriaren ondarea dena eta euskaldunok nortasunez bereizten gaituena, zoritxarrez, gehiegi politizaturik gelditu zaigu, taldekerietan, batzuk alde eta beste batzuk aurka. Hori ez da ona. Zeren hizkuntzak guztion ulermenaren eta errespetuaren behar baitu. Eta hori lortzeko, bi bide bai-

zik ez daude, errespetuzko heziera eta legezko elebitasunaren onspena.

Baina, adineko funtzionarioak edonola behartu baino lehen, hobe da daudenak daudela, euskara dakitenak herriarekiko harremanetarako egokien edo beharrezkoen diren lanpostuetan jartzea. Hau da, beharrezko diren lanetara birziklaturik, bakoitzari tokirik aukerakoaren ardura emanaz. Ahal den neurrian hizkuntzen arteko borrokarik sortu gabe.

Arartekotzan nengoelarik, beharbada euskaltzaina nintzelako edo, talde desberdinetako anitz politikok kezkatu galdetzen zidaten ea hizkuntzen arazoa nola ikusten nuen edo arazo horretan bakebide egoki bat aurkitzeko moduz. Lehendabizi, guzietan adierazten nien nire jokabidea, hartzen nituen keak, naiz idatziz edo naiz ahoz, kexadun bakoitzari berak aurkezten zidan hizkuntzan jarraitzen nioela. Gero, A. Luis Villasanteren *Euskararen auziaz* (1988) liburua gomendatzen nien, pertsona zintzo eta neutral baten iritzia jakin zezaten. Baina liburu hori euskaraz idatzia dagoenez, jadanik zergatik ez zuten beraiek gaztelarrera itzulia administrazio bertatik publikatzen, guziak ezagutu zezaten, arazo hauetan edonorentzat lagungarri denez gero. Bartzuek agindu ere bai hortaz arduratzea, baina huts. Legebiltzarretik politikoez legez indarrean jarri duten elebitasuna eta euskara normalkuntzara bideratze aukerak, gehienek euskararik jakin gabe, neurri handi batean eskergarria da. Legearen asmoa bera ona baita. Baina euskararen alde sutsuen agertzen diren politiko abertzaleetan legoke hutsik nabarmenena, zeren autoritate moral gordeko badute, lege horien guraso direnek, lehenik beraiek bete beharrezkoa baita. Urteak aurrera alferrik doaz legeak indarrean jarri zirenetik eta legislatzaile abertzalerik gehienek beraien buruak behartu gabe; ageri denez, behartzeko asmorik ere ez. Hitzak paperean eta legean jartzea ez dira aski, egintzekin betetzen ez badira. Hori horrela delarik, non da aberriaren guraso direnen exenplua?

Hor daude ageri-agerian gure politiko askoren zauri mingarriak. Baina ohar daitezela, horren sendakuntza euskalduntzeaz lortzen dela.

Horrelakoetan izaten ditut nik gogoan euskal literaturak dakartzan gomendiozko zirtoak. Adibidez, Agirre Asteasuokoak kontatzen duena oroitaraziko dut, txangurroari bere umearekin gertatua. Hara nola zioen:

“Changurrua da arrai chiqui itsusi bat, cearca baicic ez dabillena. Asi zan beñ umeai eracusten, nola ibilli bear zuen, eta esaten cien: *nere umechoac, zabilzate, ez cearca, baicic zucen. Erantzun cioen umeac: zoaz bada, ama, aurretic, eta jarraituco dizugu*”. (J.B. Agirre, *Eracusaldiac*, Tolosa, 1850, bigarren liburuaren 77-78. orr.).

Izan ere, zilegi ote norberak betetzen ez duena besteei beteaztea? Hori horrela izanik, autoritate morala deuseztua legoke. Zeren abertzale politikoez euskarari iruzur egin diote.

Zintzo jokatzeari nahi baldin bada, abertzaleen talde politikoez lehenik beren barnean dute hizkuntza politika bideratu beharra. Erdaraz esan ohi denez: “*la fe con obras*”. Bestela gureak egin du.

EUSKARAREN INGURUAN

(1969)

“Home, lingoa e cultura
son tres cousas consustanciás”.

*(Gizona, hizkuntza eta kultura
hirurak izatez bera dira).*

Ramón Piñeiro López

“homes de pau,
que procurem entender”.

*(bake gizonak,
ulertzer ahalegintzen garenok).*

Salvador Espriu

I - Euskaldun zertarako?

Euskaldun zertarako?, askok galderzen dute. Egia esan, zertarako? Munduaren gune txiki batean bakarrik mintzatzen baita. Haurrak eskola ikasteko kalte egiten baitu euskarak. Eskoletako ikasbideak erdararentzako edo erdararen bidez gertaturik daude, eta ez euskarak berak hortarako doitasunik ez duelako, ofizialtasunik ez duelako baizik. Baina jende ez-jakinak ez daki holakorik, jende arruntarentzat azaletikako itxurek bakarrik balio dute. Eta jende arruntaren arteko sartzen ditut hemen erdarazko Unibertsitateetan beren karrerak egin dituztenak ere, baldin handik aparte gure hizkuntzaren inguruan biltzen den kultura ezagutzen ez badute. Erdaratan jakitun izateak ez dio euskaran ere beren aburuak edukitzeko eskubiderik ematen. Baina, iruditzen zait, maiz beren ezjakintasunean, beraiek ezagutzen ez dituzten gauzak, beraien buruak txikiago ez ikustearren, estudiatu beharrean gutietsiz baztertzen dutela gure hizkuntza jatorra. Hau izan da orain arteko gehienen joera.

Jakina, gauza guztiei balioa, zer mailatatik eta zertarako begiratzen zaioenaren gorabeheran dago. Jadanik, baldintza horiek kondizionatzen dute. Galdera nondik eta zertarako datorrenik gabe, nornahik bat-batean galdetuko balit: "Euskaldun zertarako?", Ez nuke jakingo zer erantzun. Neuk ba al dakit zertarako? Baina, naiz. Eta hau da errealitate bakarra. Naturezak hala egin ninduela, eta natureza horrek ematen didala izanaren arrazoia. Nire gorputzaren zenbait gauza ere ez dakit zergatik diren horrela, eta ezin nezake erantzun. Nire barnetikako gogo taupadaren eraginez egiten ditudan gauza asko

ere ez dakit ziurki zergatik eta zertarako egiten ditudan. Beraz, ezin erantzun.

Galdera horiek ez dira hain sinpleak. Sakonak iruditzen zaizkit. Neronen buruari ere maiz galdetu baitiot euskaldun zertarako sortu ote nintzen. Zergatik gizon eta zergatik edo zerk ekarri ninduen mundu honetara, galdetzen dudan bezala. Azken hauek gizonak bere buruz erantzun ezinezkoak badira ere, lehenbiziko hura ere nekeza zaio gizonari bere buruz erabakitzea. Aukeraterik izan banu, beharbada, Eskandinabia aldean edo sortzea nahiago nuen, hemen Espainia eta Franzia artean mugaz berezirik ikusten dudan toki aspergarri honetan baino, gure herria zatitzen baitu Europarekin batean. Baina neronen esku ez zegoenez eta hemen sortu nintzenez, bertakoa naiz, eta bertakoa naizenez gero hezur-haragiz eta izpirituz, beharrezkoa zait bertan bizi beharra, beharrezkoa sorterriaren interesekin arduratzea, ni bere haragi zati bat baizik ez naizelako. Nire osasuna, nire erkideekin batean, bere osasuna da, herriaren osasuna.

Nire sorterria ere munduaren haragi zati bat besterik ez dela? Bai horixe. Ez dut ukatzen. Baina bakoitzak gauden lekutik osatu behar dugu mundua. Beranduko euskaltzalea naiz eta antzinako munduzalea. Europaren osagarriak herri txikien bultzadatik ez badatoz, nagusiek elkar menderatzen bukatuko dute. Zergatik hori? Zergatik historia guzian handiak elkar hartze hori nekezagoa? Horren erru asko ez ote txikiak ez errespetatzean?

Europa zaharrak ez du soluzio biderik herri txikiak errespetatzeke. Hala ere euskaldun zertarako? Eta, zertarako erdaldun? Zertarako espainol, zertarako frantses, edo zertarako ingeles? Gizonaren neurritik begiratuta ere guzia baita *Testamentu Zaharrak* dioen bezala: "Vanitas vanitatum et omnia vanitas" (Ecles. 1, 2).

Horrela hasten du Unamono berak ere *Plenitud de plenitudes*

y todo plenitu! saioa. Gainera, Unamunok, lan berean agertzen du honako hau: "Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepción abstracta del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía" (*Obras completas*, t. III, p. 765). Eta berak euskarari gunik aurkitu ez bazion ere, ez zen izan euskararen errua, bere euskararekiko ez-jakintasunagatik baizik. Eta, hala ere, euren buruak euskaltzaletzat eta abertzeletzat dituzten askok baino euskara gehiago zekien. Zeren kontuan izan behar baitugu, hauetariko asko eta asko sentimendu hutsaren eraginak eraman dituela herria maitatzera eta, maitasun hau gora-behera, beraien herriarekiko kulturari buruzkoan azpigaratuak daudela.

Neuk ere ez nion aurkitu behar bezalako gunik gaztelerrari. Gaztelera ondo menderatu nahirik eman nituen ordu haiek irakatsi zidaten nire arbasoengandiko hizkuntza nuela gun hori, nire gogoko zera hori. Eta konturatu bezain laster jo nuen euskarara. Guraso hizkuntzak berpiztu zidan nire barnean lo nuen mintzairaren nortasunaren jenioa. Eta ondotik nire ekimenetan hain beharrezkoa izan dudana. Geroztik, erdarak, mundu zabaLEAN besteei begira dauden leiho irekiak bezala ditut, harreman askotarako balia nitzakeenak. Baina nire pentsamenaren aldetik ideiak sortzeko ez dit balio euskarak baizik. Maiz, besteengandik jasotzen ditudan aleak, nire buru-errotan ixo, eho, eta bertako bahean eralki ondorean itzultzen ditut euskara tresna-bide dudalarik. Batzuetan ez dakit hizkuntza bera den nire burubarneko garun trokarteetako bide ezkutuak ezagutzen dituen, ala nire burua dudan hizkuntzari itsatsia dagoena. Dena dela, beharrezko zait elkartasun hori nire pentsamenei forma eman-go badiet. Eta, nonahiko gizonak maitatzen ditudalarik ere, anaiagoak zaizkit hizkuntza berdinez baliatzen direnak, ulterrezagoak zaizkidalako eta berekin osatzen dudana lehendabiziko eta hurbilena dudan mundua delako, edo munduaren edo munduko inguru bat.

Kontuan izan beharrezkoa dut, nire begiek euskaraz ikasi zutela barre eta negar egiten. Beraz, zergatik ez euskaldun, bes-tetariko gunetik gutxiago baldin ba dut? Unamunok zioenez: “La lengua, he de repetirlo una vez más, es la sangre del espíritu” (*Obras completas*, t. III, p. 1.081). Bion arteko diferentzia bakarra da, berak gazteleran aurkitu zuela gun hori eta nik euskararen. Eta, orain, ongi datorkit bere hitzekin baliatzea. Alde batetik, berak gaztelerarentzat aurkitu zituen arrazoi ber-berak edo antzerakoak ditut nik euskararentzat; eta bestetik, hainbeste hitz egin eta aspaldiko urteetan kulturaren eta aurrerapenaren izenean gure hizkuntza bazter dezagun, Unamunok eskatzen zuen bezala, iritziak ere bere errotik atera ditugu. Beraz, zergatik ez baliatu Unamuno beraren usteekin, bere armekin. Ea behingoan isiltzen ditugun Unamuno aintzat harturik diharduten ahozabalok. Unamunoren helburua, beretzat izan behar zena, besteei ere txertatuz eman nahi digute, noski. Eta, sarri, bere egia ez da gure egia. Horregatik, ikus-molde batzuetatik begiraturik bere arrazoiak izan arren neronek ez ditut gogoko. Eta ez dut inoiz txarrera hartu *La cuestión del vascuence* hartan zioen guzia, “euskaldun zertarako?” esanez egin den galderarik sakonena bada ere. Eta bere denbora hartan egin zen galderarik sakonena izan arren, inondik ez zuen izan erantzun zentzuzko-rik.

Salvatore Mitxelena berak ere, *Unamuno ta Abendats*-en, existentziari buruzkoa ondo taxutu arren, nire ustetan, ez zuen behar bezala aztertu aipatzen dudan aspaldiko auzi hau: “Euskaldun zertako?” Niri aski izan zitzaidan berak erdararentzako hartu zituen arrazoi eurak euskararentzako hartzea. Nire sentipenaren eta nire gogoaren izaera euskararen aurkitu nuenetik.

Martin Ugalde adiskidearen *Unamuno y el vascuence*, beste gauza bat da. Hemen aztertzen da behar bezala Unamunoren euskararekiko kontra-indarra. Lan sakona, arduratsua. Behar-bada ez da baliatzen gehiegirik Unamuno berak gazteleraren alde agertu zituen arrazoi berekin. Arrazoiok euskararentzat hartuz

esan nahi dut, zeren edozein hizkuntzarentzat baliagarri baitira berak azaltzen zuen eran. Nik hori besterik ez nuen egin, 1967ko otsailaren 26an *Zeruko Argia*-n argitaratu nuen idazki haren egikeran. Orduan, ez nuen oraindik ezagutzen Ugaldereen liburua, Buenos Airesen 1966ko urtearen azken aldera argitaratu zena. Liburu jakingarri honek, esan beharrik ez dago, ondo aztertzen dituela Unamunoren pentsaerak eta sentierak hizkuntzari dagokiolarik. Beharbada, argibiderako, xehetasun batzuk gaineratu zitzakeen. Unamuno Euskal Herrian jaio eta hazi zen tokia eta historian une hari kokatuz zegokiona, ez zen girorik egokiena liberal hura bideratzeko. Bere ezkertiar jokae-ragatik eskuin aldetik zetorrena ontzak har ezina zuenez, intelektual hark gutxiago har zezakeen herriagandik hain urruti desbideratua zerabilten euskara mota. Hizkuntza adierazteko tresna izanik, adierazi ezin zitekeena baitzen, prestigio ustelagatik, azaleko itxurak gorde nahirik, "garbizale" haien ustez erderatan kutsaturiko hitz guziak baztertzen zirelarik. Euskara ulerkaitz hark, euskaldun jatorrak uxatu zituen eta ez da harritzekoa Unamunok bide hartatik jarraitzerik nahi ez izatea. Euskal neologismoentzat berak jarri zuen mesprezatuz "terminachos" hitza, bere lanetan hainbeste aldiz aipatuz mintzatzen zelarik, ganoragabeko hitzen garbiketa honegatik ezer gutxi dio Ugaldetik. Mingarria bazaigu ere, zenbait gauzatan bere arrazoiak zituen Unamunok. Baina, bere egitekoa izan behar zuen beste-angandik aldendurik berari zegokion bidea irekitzea; baina horretarako hizkuntzaren giharra behar eta bere baitarik aurkitu ezin.

Bestalde, Unamunok ez zuen merezi zuen ezer aurkitu euskal literaturan. Dena ezagutu ote zuen? Nik ezetz uste. Berak zekien euskara ez zen gauza euskal literaturako lan asko eta asko, gehienak eta hoberenak noski, ongi konprenitu ahal izateko. Eta herri literaturarenik ez zekien ezer. Geroago gehiago baliatzen den herri literatura ez zuen inondik ikusi.

Baina Unamunoren euskararekiko jarrera eta euskal kultura-

rekiko huts horiek ez dira nire arrazoi bakarrak, ez eta ere hizkuntza soilik defendatzea. Gizontasunak, justizia zuzenaren egarria ere bere barnemuinean darama. Gurutzean hil zena dugu adibide. Eta, munduko gizon bakoitzari errespetua eta zuzentasuna zor zaion bezala, era berean, herri bakoitzari ere berea zor zaio. Euskaraz hezi eta hazi ginenok zergatik ez besteak adina eskubide?

Gure herri ahulak ez duela holakorik sentitzen? Gehienek ez, noski. Egia. Baina, lo daudelako da. Eskaini zaigun historia eza-guturik eta bizitzan zehar ikusi duguna ikusirik, eta inoiz zigortuak izan bagara batez ere, norberekiko gogoetan jardun besterik ez dago arrazoiaren eta zuzenaren funtsa aurkitzeko, eta orduan iratzartzen gara. Bizitzaren eskola latzak gainerako beste eskolak baino gehiago ez ote digu irakasten? Gai hauetan bai behintzat.

Uste dut oraindik ez dakigula ziurtasunez mundu honetan zertarako gauden, baina bai baitakigu justizia urri dagoela, eta borondaterik hoberenarekin joan behar dugula anaikiro mundu hobeago baten bila, gizonak bere sortzetik izan duen jokaera naturalari jarraiki. Euskaldunak garanez, ahalegindu gaitezten euskaldun irauten. Nire aldetik, behintzat, ez da asko eskatzen dudana: gizon guzientzat eskubide berdina, eta herri guzientzat ere hori berori.

Espriu-ren hitzekin esango nuke:

*Diversos són els homes i diverses les parles,
i han convingut molts noms a un sol amor.*

(Orotarik dira gizakiak eta orotarik mintzairak,
baina maitasun soilean izen asko bildu dira).

Non dago Unamuno eta non bere iritziekin baliatzen direnak? Hauei ondo datorkie Ugaldereen lana. Unamuno ezertan gelditu bada kaxkar, horretan izan da hain zuzen. Linguistika berriek beste bide batzuk daramatzate. Eta estrukturalismo jakintzak hizkuntzei itsatsirik bestelako arrazoirik ematen digu-

te. Eta, hizkuntzak sobera daudela diotenak, atzeratu batzuk baizik ez dira.

Hainbeste hizkuntza alferrikakoak baldin badira, mundu zabalari begira, eta batez ere etorkizunari begira, zertarako dugu frantsesa, eta zertarako gaztelera bera? Zergatik ez goaz denok zuzenki ingelesa ikastera? *The english-speaking folk*, izen honekin Unamuno berak ere badu lan jakingarri bat, oraindik euskara menperatu eta baztertu nahirik dabiltzanei hain atsegina ez zaiena. Lan horretan jartzen dituen iritziak ez baitakarte frantsesarentzat eta gaztelarentzat onik. Jakina, hori ez kome-ni.

Baina arraina ahotik hartzen denez, betor Unamunoren irakaspenetariko bat: "Adueñarnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales" (*Obras completas*, t. VI, p. 957). Hitzok biribilago ezin dira etorri gure alde. Beraz, euskaldunok iratzar lozorrotik!

Unamunok jartzen zituen arrazoi hauek eta ondorenean jarriko ditunadak ikusirik, arrazoia eman beharrean gara Gilen von Humboldt-i, esaten zuelarik: hizkuntza bakoitzak bere inguruan markatzen zuela zirkulu liluragarri bat mintzatzen den herria bere gisara inguratzen duena.

II - Hizkuntza eta etnia

Etnia hitzak duen zabaltasuna ez da erraza hitz gutxitan eta uste gutxitan mugatzea. Hortaz oraindik saio asko egin beharra dago, batez ere molde horien barnean gure egoerari buruz. Esana dut hizkuntza ez dela etnia guztia eta, etniatik aparte,

gizonaren bizitzarentzat beste gauza asko direla hizkuntza (edo zein hizkuntza, naiz bata zein bestea) baino beharrezkoagoak.

Hizkuntzaren inguruan ari naizenez, ez naiz sartuko bestetan, hizkuntzarekin zerikusirik ez duenetan behintzat. Gaur, hizkuntza batek etnia aldetik duen garrantziaz jardungo naiz: hain zuzen ere gure hizkuntzak.

1966ko irailaren 4an, Donostiako XXIII. Euskal Jaiak irekitzean, Juan Bautista Olaetxeak eman zuen hitzaldi bat, jaien sarrerako hitzaldia hain zuzen, *El concepto del vasco y de lo vasco* izenburuaz.

Ez dut dudarik egiten hitzaldi horretan gauza asko esango zirela gure herriaren eta bere kulturaren alde. Era guztietako saiakerak ongi datozkigu. Baina hauei kritikak egitea ere bidezko dugu. Eta, une honetan, hitzaldiaren alde bati bakarrik egingo diogu, guri garrantzizkoen zaigunean (edo gutxienez niri, hizkuntzaren inguruan ari naizelako) bihoaz nire aburuok. Han esan zen –eta honen ageri ziurrak ditugu–, euskara utzita ere ohiturak berdin jarraitzen dutela; zeren euskara galdu duten herriek ez omen dute euskotar girorik galdu. Gero, ez dakit nik nola, hizkuntza eta etnia korapilatu zituen, euskara gabe ere etniak berdintsu jarraituko zuela esanaz.

Alegia, kontu honetaz, ohar batzuk argi eta garbi jarri nahi nituzke. Etniak, bere zabaltasun guzian, bai Euskal Herrian (eta batez ere Euskal Herrian) eta bai mundu guzian, hizkuntza du bere berezitasunaren oinarri nagusia. Ezer ez doakio etniari, hizkuntza baino lotuago.

Arrazoi honen ageritzat aski dugu begirada bat azken ehun urte hauetan, etnia ikerketak hainbeste gehitu eta indartu direnetik gaur arte, Euskal Herriko etnologia estudiatzen ari izan diren arrotz jakitunetarik ehuneko laurogei inguruk hizkuntzari eman diotela baliorik gehien eta horretaz egin dituztela beren estudiorik gehienak. Beraz, horrek argi jartzen digu etnologiaren balioaren erdia, gutxienez, hizkuntzari dagokiola, gure

herriari dagokionez behintzat. Eta hau egiaztatzeko, ikusi besterik ez dugu honetaz egin diren lan nagusiak, azken urteetan *RIEV* eta *Eusko-Folklore* urtekarian bilduak dira, ikusi nahi duenarentzat. Lan horiek ezagutzen dituenak daki, gure kultura zahar guzia (gure etnia guzia) urri dela hizkuntza kenduaz gero.

Uste dut, puntu hau argi dagoela.

Bestalde, euskara galduta ere Euskal Herriak berdin jarraitze aldetik, teoria honi jarraiki, antzerakoak izan behar ziren, euskalgoari buruz, Araba eta Bizkaiko Enkarterriak, Errioxa, Burgosko parte bat, Oskako (Huesca) Pirinio aldea, Biarno eta Kataluniako Ribagorzana-goia eta Valle de Aran, zeren hauetan ere lehenago euskaraz mintzatzen baitziren, bertako toki-izenak, deitura askok eta beste zenbait agerik jartzen duten lekukoan arabera. Baina ez da horrela. Haiek ez dute euskotartasunik sentitzen oraingo Euskal Herriko geografia politikoaren barnean ez daudelako. Ohituraz, elkarrengandik dituzten aldeak, bizkaitar euskaldunetatik nafar euskaldunetara daudenak baino handiagoak ez dira Burgostik Huescara eta Huescatik Biarnora. Beraz, zerk ematen diote haiei beren ohituretan hain berdintasun handia? Beraz, zer da ohitura?

Hizkuntzarekiko exenplua besterik litzateke. Adibidez, jarri elkarrekin gipuzkoar euskaldun bat eta lapurtar euskaldun bat (eta ez da beharrezkoa izango bertsolarien aurrean jartzea); bestaldetik, euskaraz ez dakien lapurtar bat eta euskaraz ez dekien gipuzkoar bat, bietarik batek erbesteko mintzaira jakin arren (naiz frantsesa edo gaztelera), ea beren artean zer nolako ulermena eta anaitasuna aurkitzen dituzten.

Naiz Estatu Batuetako Idahon edo naiz Argentinan, hizkuntzak gehiago hurbiltzen ditu gizonak, beste ezerk baino.

Ohitura eta izaera alde horretatik egiaztatzeko, ikusi besterik ez dago euskal kulturari buruz, euskara bide delarik, betidanik elkarren artean izan diren harremanak mugaren bi aldeetatik. Eta, lasai esan dezakegu euskaraz ez dakitenen artean ez dela

horrelako harremanik nabari mugaren bi aldeetatik. Etnologo eta euskaltzale, maiz biltzen gara mugaz handik edo hemendik. Eta gainerakoek, ez dute beren bilkurarik. Jakina, Miarritzeko kasino kosmopolita horretara joaten direnak edo izan ezik.

Beraz, nire ustea bestelakoa da. Gizonen artean, euskara-erdara muga handiagoa da, gure herri barnean bertan, Bidasoako muga bera baino. Muga hori, hona datozen etnologo guziak oso ondo bereizten dute.

Aitortzen dut, gaur, gure herrian bi komunitate daudela: euskalduna eta erdalduna. Gizalege aldetik biak dute bizitzeko eskubide berdina. Gizon bakoitzaren esku dago (hobeto esan, egon beharko luke) bata uztea eta bestea hartzea, bata zein bestea hautatzea; edo hobeago den biekini baliatuz bizitzea. Baina, eskubide ofizialak berdinak ez badituzte ere, etnia aldetik jatorrizkoak du balio nagusiagoa. Beste hizkuntza, beste etnia batekoa baita. Oraingo kultura berrien aldetik erdarak du bide gehiago, eta oraingoz beharrezkoa zaigula esango nuke. Baina, orainagoko kultura berriagoek adierazten digute elebitasuna hobe dela, bata hiltzen uztea baino. Eta guk ezin dezakegu jokatu Europako herririk aurreratuenek hartu duten bideen kontra. Eta hori hola delarik, zer da jaun horren esan nahia? Ezjakintasuna ala Jakin nahi eza?

Herri bezala, etnia aldetik, arestian esan dudan legez, euskara ez da guzia, baina euskaldunok euskara gabe ez gara ezer. Hizkuntza galduta ere herri bat izaten jarraituko genukeela?, bai noski; oraingo Huesca, Biarno, Errioxa edo Burgos bezalatsu.

Aditzera eman dudanez, hitzaldi horretan esan zituen gaineraoetan ez naiz sartzen. Gauzarik gehienetan bere arrazoiak izango zituen eta hori ez diot ukatzen. Odoleko Rh-, neur dezake euskara gabe ere, baina ez ordea deitura. Eta, Rh-, antzera xamar aurkitzen da aipatu ditudan herri horietan, batez ere Biarnon eta Huescan, gutxienez hemen haina. Hala ere, antropologia aldetik, horrek ez du nahikoa indar arraza aparteko

bezala jartzeko Parisko Musée de l'Homme-koek 1963an egin zuten ikerketak agertzen duenez. Ez baita nahikoa bereizkuntza. Hauentzat ere, alegia, beraiek antropologia estudiatzen dutelarik, euskara izan da gure herrian hain nabarmen aurkitu duten bereizkuntzarik handiena.

Gainera, ez dut uste euskaldun izateak harrotu behar gaituenik, berak hori horrela esan bazuen ere. Euskara gabe ere Euskal Herriko semeok harro agertu behar garela? Herri baten izaitea ez da harrokeria gora-behera. Herri guziek dituzte beren gauza on bereziak, era batera edo bestera. Nire ustean, euskaldunok gure izaeraz ez genuke izan behar zertan harrotu askorik.

Unibertsaltasunerako ere ez dut uste euskarak txikiago egiten gaituenik, baizik Europarrago sentitu behar ginateke gogoz kontrako jarri zaigun sasi-muga bat gora-behera. Ez da alferrik, euskara, European hizkuntzarik zaharrenetakoa.

Guretzat eta ulertu nahi duenarentzat, berriz ere esango dut, euskaldun izatea bi hitzen barnean dagoela: izan edo ez izan.

* * *

Aipatutako hitzaldi horrek *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delako aldizkarian ikusi zuen argia, urte berean, XXII. alearen 486-492 orrialdeetan. Nire artikulua ondorean izan zituen eztabaidak gora-behera, lehenean nago. Bere hitzaldia ez dakit zer asmorekin egina izango zen, baina nik nahasmendurik aski aurkitzen dut, batez ere lehen salatutako bi puntu haietan: a) euskara utzita ere ohiturak berdin jarraitzen dutela, euskara galdu duten herrietan ageri denez; b) euskara gabe ere, euskal etniak berdintsu jarraitzen duela.

Nik nioen, hizkuntza aldatzean, bai etniak eta bai ohiturak, asko aldatzen zirela. Eta, jakina, zerbait aldatze horrek gauza beraien kontzeptuak eurak ere aldatzen ditu, eta alde horretatik ez da agertzen oinarri sanorik. Gauza hauek zehaztasunez az-

tertzeko ez dago estrukturalismoaren goiko mailetara igo beharrik.

Bigarren erantzunean ordea, nire ohar bietarik bati bakarrik oratzen zion, ohituren arrazoienari bakarrik. Konturatzeke, gaur Euskal Herria dena, elebitasunera heldua, bere jatorrizko (bere etniazko) izaerak galduaz, bere nortasuna kamustuaz iritsi da. Eta galdua berriz irabaztea izango litzateke bere egiazko nortasun jatorraz berjabetzea, bere izaeraren usteak indartzea, aberas-tea, eta ez galzorian lerratzea.

Aitortzen nuen, gaur, gure herrian, bi komunitate daudela, hizkuntzek ebakitzen dituztenak (dena ez bada ere, gehienbat hizkuntzak): jatorrizko komunitatea eta erbestetik sartua edo hartua (era bietarik noski). Historia aurretik datorkiguna (gu besteengandik berezi gaituen bakarra) eta bestea, historia oroitzen delarik hartua. Zer litzateke gure nortasunaren ustea lehenengorik gabe?

Guziok dakigu gaur erdara dela nagusi gure geografia politikoan, erbesteko etnian bere jatorria duen hizkuntza. “Vasco” hitza bera, erderatikakoa denez, “vasco” kontzeptuak bi alde izan ditzake, baldin eta hiru ez baditu. Donostian eta Bilbon, “vasco”, Euskal Herriko semea da; euskaldunarentzat, besteak erdaldunak edo erdararekin baliatzen direnak berari eman dioten izena; eta, euskara galdu arren, lehendikako euskarak txerta zioten usteaz (euskaratikako kontzeptua noski), “vasco”, euskara dakiena da eta ez beste. Adibidez, Baionan, Maulen, Miarritzen, Iruñean, Erriberan, Nafarroa erdi aldean, Arabako zenbait tokitan eta baita Enkarterrietan zein Erronkarin, “nuestros abuelos eran vascos” esango dizute. Altsasun, “los vascos”, beraien gurasoak eta Urdiaingoak dira, eta mutikoen artean ere, “vasco” deitzen diote inguruko herrietatik hara bizitzera joan direnen semeei. Duela hiru urte euskal etnografiari buruzko tesia egiten lagundu nion Baionako seme batek ere, “mis padres son vascos” esaten zidan. Zergatik zure gurasoak bai eta zu ez?, galdetu nio-

nean, honela ihardetsi zidan: “Porque ellos hablan vascuence y yo, no”. Urte asko ez dira Miarritzeko neska batek berdina esan zidala. Egia esan, Erronkarin hainbeste aldiz ibiltzen naizelarik, uste horrek niregan balio zuzenaren indarra hartu du. Bere senez, euskararen zentzutikako ustea dela, ez dago dudarik. Beraz, uste horretaz jarduteko arinegia iruditzen zait zenbait lekutan erdaratik hartu zuen zentzuarekin jokatzea. Bestela, galdetuko nuke: Jatorrena zein da? Etnografiaren aldetik ez dago zalantzarik. Hain zuzen ere, etnografia ikerketa berak eskatzen du herri bat bere jatorrizko kontzeptu horietan juzgatzea.

Jartzen ditudan adibide horiek oraindik bizirik daude, euskalde bakoitzean lekukoz juzga nahi duenarentzat. Zer adigarriago exenplu biziak jartzea baino? Hau da, China-ko euskalduna exenplutzat jartzeko, lehendabiziko euskaldun chino bat aurkitu behar luke adibide hori proposatzen duenak. Bestela hutsean jardutea baita. Baina, hala ere, ez luke izango gurasoengandiko lehen hizkuntza, bigarren mailakoa baizik. Erdara dakigun euskaldun guziok erdaldunak ote?

Baina, exenplu horiek ere utzi ditzagun alde batera, eta har ditzagun gure geografiaren inguruan zenbait tokitan zabaldua den (Bilbo eta Donostiatik berandu zabaldua noski) beste uste hori: Euskal Herriko semea, beste gabe, “vasco” dela euskararik jakin gabe. Jakina ba. Baina hala balitz ere, “vasco” hitza bera “vascuence”tik datorrenez (aldi berean Antzinako latinaren “Vasconum” hartatik zetorrena), ageri agerian dago euskal hizkuntza zuela bere oinarri. Deiturak ere hizkuntza duten bezala. Beraz, euskararik izan ez balitz, zerk bereziko zuen Euskal Herria? Eta, Euskal Herriak euskara galduta ere ohiturek berdin jarraituko zutela? Baina, garbi ez al dago zenbaitentzat euskara galtzeaz bakarrik kontzeptua bera ere aldatua dela? Orain, euskara bizi delarik, bereizkuntza erraza da. Euskara galtzen denean urri izango da. Horregatik, Euskal Herriak bere nortasunik

berezienari eutsi behar badio, bere izatearen indar baliozkoenak gordeko baditu, naiz gaur duen ahulezian, hizkuntza gorde beharko du.

Gainera, euskalduna, Euskal Herriaren barnean, erdalduna baino gutxiago izanik ere, gaur oraindik bizi den komunitate bat da. Arrazoa ez dago handi eta txikiaren gora-beheran, komunitate batek berezko bizirik iraun nahiak duen gizalegean baizik. Euskal Herri orokorra, gaur dena izatera, bere buruaren jabe ez izateak ekarri du: laguntza ofizialki ezak, eskoletan euskaraz mintzatzen ziren haurrak eraztunez zigortzeak, maisu-maestreak mendetan zehar euskara kaltegarri dela aldarrikatzeak, horren ondorioz gurasoek euskararen baliagarritasunari uko egiteak, hizkuntza gutxietsiz bazterreratzera bultzatzeak, urtetan aldizkari baten jabe izaten ez uzteak, irratiak debekatzeak, telebistan sarrerarik ez emateak, euskaldun Sancho tripazain askok anaiak saltzeak, eta abar eta abar.

Horrek ez du esan nahi beste askok, beren borondatez, jakinaren gainean utzi zutela euskara erdararen trukez. Horretan, gizon bakoitzak libre du berari deritzon bidea hartzea. Izan daiteke goian aipatu ditudan arrazoi bideen ondorez izatea. Pertsonoi batzuetan nekeza zaigu biderik egokiena hautatzea. Gero, beharbada, askori gertatu zaien bezala, semeak etorri zaizkie kontuak eskatzen. Esanaz, ez zutela eskubiderik beraien arbaso-engandiko ondare zen hizkuntza ukatzeko. Holakoak gertatzen ari baitira.

Amor eman dezagun Euskal Herrian diren bi komunitateen errespeturako, anaitasunean bizi gaitezen. Eta, ez trabarik jarri uste irristakorrekin.

Sakon begiratu eta aztertuko badugu, aurkituko dugu, gure iritzi horiek ez direla gureak bakarrik, baizik, bai ONU, bai Unesco eta bai Vatikanoko 2. Batzar Nagusiarena, beren zuzenez, ispirituz eta ekintzaz, komunitate guzien errespeturako eta munduko gizonen bakerako. Erakunde horien gomendioak gure

gogora datozela, herri eta komunitate guzien bizitzaren alde eskatzen dutelarik, zertarako hasi bestelako nahaste horiekin? Nahasteetatik indarrak irabazten duelako?

Gizon batek, era honetako lan bat gertatu behar duenean, beharrezko du (edo izan behar luke), garbi jokatzeko, munduko erakunde nagusien iritziak jaso beharra, beren ageriak eza-gutu beharra eta ondasuna haintzat izan da ere arrazoi du euskarak biziaz irauntzeko. Eta, alde honetatik bada non lan egin, bestelako uste badaezpadakoak alde batera utzita ere.

Euskal Herrian euskaraz ez dakitenek, eta maiz erbestetik etorriak, asko dira beren semeek euskaraz irakatsi nahirik, baina ez da inondiko laguntza ofizialik gura duten hori bete ahal izateko. Eta hizkuntza batek, bai hemen eta bai Kontxintxinan, laguntza ofizialik gabe, edozeinek dakien bezala, ez du bizitzetik.

Zer egin da eta zer egiten da euskararen salbaziorako? Bada hor lanik aski, eta gutxienik egin daitekeena hau da: oztoporik eta nahasterik ez ipintzea! Batez ere erdizkako zuriketaz. Hortakotz, aurka dagoen gizonak, gizonkiago jokatzen du kontra dagoela esanaz eta bere argudioak azalduz.

* * *

Herria astekariaren 852. zenbakian ekin zion Hernandorenak gai honen saiakerekin, eta *Herria*-ren irakurleen argibiderako jarri nituen zenbait ohar. Euskararen ingururako jakingarri direnez, hemen emanen dut haien laburpen bat:

Hernandorena adiskideak hasieratik oker handiz oinarritu zuen gure artean izan zen eztabaida hura. Badakit asmo txarrez ez zuela egin, baina ondorengo artikuluetan ere zuzendu ezinezko okerra izan zen hura. Paperik aski gastatu zuen *Herria*-k bere artikuluekin, baina bi puntu haiei, gaur da eguna, oraindik erantzunik eman ez dioena. Nire arrapostuaren bi puntuak hauek ziren:

a) euskara utzita ere azturak edo ohiturak berdin jarraitzen dutela, euskara galdu duten herrietan ageri denez.

b) euskara gabe ere, euskal etniak berdintsu jarraitzen duela.

Hauek soilik ziren Olaetxea jaunarekin bat ez nentorren bi puntuak. Gainerakoan, gauza askorekin konforme nengoen, eta jartzen zituen bestelako zenbait nahasmenduren kontra ere ez nuen ezer erraitekorik, naiz eta konforme ez egon.

Hori adieraziz hasi behar zuen Hernandorena adiskideak, bertzelako nahasmendurik gabe. Zeren bi puntu horien aurka atera nintzelako, eta ez bertzerena, nehoiz, bai bera eta bai ni, exenpluren batzuetan haritik zerbait atereak ibili baginen ere hori zen gaiaren gakoa.

Horregatik egin nion galdera: "Zuk ontzat hartzen dituzu puntu horiek?" Gure herriaren hizkuntza jatorra jokatzeko iritzi horietan. Beraz, Euskal Herria, euskalduna ez bada, erdalduna izanen da. Hala, ez ote?

Bi puntu horietan hesitu behar zituen bere ihardespenak.

Bizkitartean, lehenean natzaizu: Ohiturak eta izaera ez direla aldatzen? Ene iritzian, euskara gabeko Euskal Herriak errotik galtzen du bere jatorrizko izpiritua. Zer lirateke gure kanta zaharrak, ahozko literatura zaharra eta berria, zer bertsoak eta zer bere muinetatik pentsaera eta azalpen bereziko hizkuntzak eskaintzen digun ahalmena? Gogoz kontra jarritako sasi-mugaren bi aldeetako euskaldungoaren anaitasuna, ezinezko litzaiguke euskara gabe. Zerk egiten gaitu euskaldun? Zerk anaia? Zuberoatik Bizkairaino ibilia natzaizu herriz-herri, nolako deitura dudan eta non sortua nintzen erraiteko premiarik gabe; euskara izanen baitut bide, populuaren aurrean anaiki agertzeko. Hori baita biltzen gaituen gauzarik baliosena.

Zer litzateke frantses mintzaira gabeko Frantzia? Zer ingeles mintzaira gabeko Ingalaterra? Nehork ezin dezake ukatu Euskal Herriak ere, herri bezala, bere balioaren erdia adina mintzairan duela.

Gizonarentzat berdintsu da, bizi izateko, hizkuntza bataren

edo bestearen jabe izatea; baina euskaldunarentzat, euskara, beharrezkoa euskaldun izaiteko.

Ene ihardetsiak gogorregiak izan daitezke, baina euskararen egoera latz hau ikusirik, gure borondate eta ahalbideen kontra nabariturik ez da erraza bigun jokatzea. Ez gaude txantxetan ibiltzeko. Urrikalduko nintzateke, baldin gure mintzairarentzat urrikalmendurik balitz.

Ahoan bilorik gabea naiz. Bizi garen denbora ilun hauek horrela egin naute. "Idazlari-polemista" naizela? Hala balitz ere, ez da ongi zozoak beleari "ipur-beltz" deitzea. Eta, beharbada, kritikak urri izan direlako daude gure artean hainbertze irizpide ahul. Txarako sasiak garbitzen ditugunean, basoko bazterrak argiago ikus ditzakegu.

Beraz, bihoaz gauzak bere bidera. Ezer erraitekorik bada, bi puntu horien artean finka bedi arrapostularia. Horiek izan behar zituen oinarri, zeren oinarri gabe ez baita egintza funtsezkorik.

Deiturek beren balioa dute euskotar izatean, ez diot ukorik eginen. Euskal Herrian sortu eta bizitzeak ere bai, hori ere ez dut ukatzerik. Baina deiturak euskarari zor dio bere izatea. Euskaldun garenok, euskaldun izatea euskarari zor diogun bezala. Euskaldun ez baitu egiten Euskal Herrian sortzeak, euskaraz mintzatzeko baizik. Arestian erran dudan bezala, euskara izan dut Euskal Herria mutur batetik bertzera ibiltzeko pasaportetik hoberena. Txapelarekin ibili naizenean txapeldun bezala, euskararekin euskaldun.

Uste duzu, izan nahiaren kontzientzia aski dela euskalduna edo naiz euskotarra izateko? Benetako kontzientzia duenak hobe luke euskara indar-berritzen lan egin, eta ez zoritxarreko galbidera eramateko. Bertzela gezurrezko kontzientzia baita.

Oroit Hernandorena adiskidea, oraindik zenbat lan egin beharra dugun ardi larruz jantzitako otsoen kontra.

* * *

Hasieran erran dudanez, etnia hitzak kontzeptu aski zabala du. Ez da hizkuntza bakarrik, baldin hizkuntzak etniarekin lotura handia badu ere.

Etniak, herri baten jatorrizko kulturaren forma guziak bil-tzen ditu, eta hala ere aldakorra izan daiteke, zeren munduko herri guziek berez baitute beren bidearen abantailan aurrera begira aldakorrak izatea, baita ere inguruko herriekin harremanean besteenetik hartua, neurri batetik gora, izan daitake jato-rrizko etniaren indarririk berezianak ahultzeko, gutxitzeko, eta baita ere hiltzeko. Horregatik, mundua, bere naturaleza oroko-rra denez gero, naturalezatikako zati horiek galtzea munduak bere izatearen haragitik galtzea da. Arrazoi horregatik munduko elkarte nagusiek eman dituzte beren ageri eta kontseiluak herrien etniazko jatortasunak errespetatu eta gordetzeko, gaine-ra, ez gutxitan babestu eta lagundu. Ondorengo kapituluan emanen ditut munduko erakunde nagusi horien agerien berriak, eta orain noa gure etniaren iturburuetaruntz.

Bizi garen inguru honetan, lehen kulturaren aztarnak Harri Aroan galtzen dira. Hau da, Paleolitikoa, Isturitze, Santimami-ñe, Etxeberriko-Karbia, Bolin-koba, Altxerri eta abar ditugu. Horiekiko aztarnak ditugu egun Fratziako Montignac aldetik Espainiako Asturiaseraino. Lascaux, Mas d'Azil, Altamira eta abar. Harpe horietako marrazki, margo eta tresnak azaltzen digutenez, elkarkideko kultura zen. Joan zen mendearen azke-naldetik arkeologoek ekin ziotenean kultura horren ikerketan aztarnategiak miakatzen, aurkikuntzen arabera, Franko-kanta-briar kultura deitu zioten. Eta euskalde horien erdi-erdian aur-kitzen da gaur egungo Euskal Herria. Askok esan dute euskara ordutikakoa ez ote dugun. Baina hori urrutiegi joatea da. Ordu-ko gizonek, esate baterako, ehiza eta arrantzatik bizi zirenez, hastapenetako kultura labur bat zuten eta ez zuten hizkuntza hain landuaren beharrik.

Harri Aro ondorenean, Neolitos deritzaion aldian, ehiza eta

arrantzaz gainera, bazituzten bertze bizi molde batzuk. Hara nola, alde batetik abereak hezi zituztelako eta bestetik zenbait eskulan berri sortu, tresnagintzatik lurra lantzera, ondasunak ugariago ziren, eta abeltzainak mendietan zituzten udako larradietatik, negurako itsasaldera edo ibar zelaietara aldatzen ziren, elurteak abereentzako janaria estaltzen ez zuen larradietara. Gaur, oraindik ere, bizitza aldaketa hori egiten dute abeltzainek. Beraz, Euskal Herriak duen bizikerarik zaharrena dugu abeltzaintza. (Ikus J. M. Barandiaranen *Euskalerriko lehen-gizona*. Donostia, 1934. Edo, lan berean jarraituz, gehigarri horniturik, burutu zuen *El Hombre prehistórico en el País Vasco* (Buenos Aires, 1953).

Harri Aro ondorengo bizitza horrek ekarri zion aldi hartako gizonari hizkuntzarekin gehiago baliatu beharra, beren bizitza erak, lanak ugariago eta, batez ere, trashumantzia horrek berakin abeltzain eta laborarien arteko harremanen gehitze eta zabaltzea ekarri ziolako. Laborantzaren ondorean burdingintza etorri zen keltarren eraginez, eta hauek berekin zekarkioten gizonari era askotariko hizkuntza zehatzagoaren beharra elkarrekiko harremanen zabalkundez. Behar horiek izan ziren hizkuntzaren indartzaile eta handitzaile. Laster etorri zen erromarren eragina ere. Eta honek, jakina, berarekin zekarren gizonaren aurrerapena eta aldi berean zenbait hitz eta forma elkarri prestatzea edo neurri batetan elkar kutsatzea eta erakundeen antolaketa berritzea. Hauek horrela direla, Aranzadi, Barandiaran eta Mitxelenak adierazi ziguten, euskara hizkuntza artikulatu bezala jotzeko (eta ez guztiz gaur egun bezalakoa, noski) ez zaigula lau edo bost mila urte baino haruntzago joan ahal. Izan-go omen ditu gure hizkuntzak aurretiko hitzen bat edo beste, baliteke, baina geroztikakoak eman ziola egituraz edo tipologiaz duen guna, gaur duenaren antzerakoa. Zeren bi edo hiru mila urtetik honuntza gorpuztu zela bere morfologia, argi samar dagoela dirudi. Orduango oinarriak dituela, gure euska-

rak geroztik ere aldakuntzak eta gehigarriak izan dituelarik latin hizkuntzaren ondorengo erromantzeen eraginez. Eta, kutsapen horiek ez dago dudarik ongarri izan zitzaizkiola, zeren bestela, beharbada, ez zuen garapenik gaur egun arte. Munduak bere eboluzioan zekartzan, aldian aldiko, eraberritze horiek nahitaezko laguntza zituen euskarak.

Hala ere, inork ez du dudarik, gaur, Europako hizkuntzarik berezientakoa dela euskara, bere antzinako egiturak gordetzen baititu. Etnologo eta antropologorik gehienentzat hor dago herri baten bereizkuntzarik adigarriena, hizkuntza berezi baten jabe izatean. Eta beraien begiak Euskal Herrian maiz jarri badi-tuzte, batez ere hizkuntzaren inguruko eraginagatik izan da. XV. mendetik XVII.era hizkuntzaren bitxitasunak ekarri zituen gure herrira garai haietako jakitun asko, eta fantasiarik asko ere bai. Baina, hala ere, XVIII.aren azken aldera arte inor ez zen ardura-tuko bestelako bereizkuntzekin, Humboldt agertu zen arte. Hark baliatu zuen hizkuntzaren egitura, ospe handia emanaz, eta horrez gainera kanta-zahar, ohitura eta bizitzaren erak ikertu zituen. XIX.ean etorri zen arraza bezala estudiatzea, hizkuntzan eta ohituretan hainbeste gauza berezi zela ikusi zutenean. Guz-tiok zetozen etniazko nortasunaren inguru bati lotzera.

Europako erdi aldetik honuntza, Harri Aroaren lehen parte-an, Cro-Magnon deritzaion homo sapiens arraza bizi zen. Haiengandik gaurko gizonetara sustraiz bada tartean hutsunerik. Baina, batzuentzat badirudi euskaldunok haiengandik nahiko zuzen gentozela. Luis de Hoyos antropologoak zioenez, Urriagan (Deba-Itziar) aurkitutako kaskezurretatik, bertako indusketa estratigrafiaren arabera, Cro-Magnon eta gaurko Euskal Herriko gizonaren tartean aurkitzen zituela (geroago ordea, C° 14-ren bidezko desintegratze analisiak egiteko era aurkitu zen eta laborategietan ikusi da, ez dela horrela, kaskezurrok geroagokoak direla. Nonbait, estratigrafia nahastu omen zen). Telesforo Aranzadik ere antzerako ikerketak egin zituen, baina

ez zen ausartu ziurtatzeraino. Dena dela, argi utzi zigun bere esaldiaz, Euskal Herria ez dela enbor bitxi bat Europako mendebaldean (*El País Vasco no es ningún cuerpo extraño en el occidente de Europa*). Euskaldunak, odolez, Rh- delakoaren arabera, kidekoa du Pirinioko mendebalde guzia, eta Victor Jacques antropologo belgikarra izan zen *Type Pyrenées Occidentale* izena eman zuena.

Hamaikatxo barre egiten zuten gauza horien lepotik, hemen arraza berezirik ez zela eta bazela. Izan ere, arraza berezirik inon ez da, berezitasunari indar zehatz bat eman nahi bazaio. Beltzen artean ere tribu batetik bestera desberdintasunak daude, eta haien eta gure artean bada mailarik aski guztion artean enbor batera lotzeko. Gizakiaren eboluzioaren legeak aski zehatz eza gutzen direnetik inongo arrazagatik ezin genezake esan besteez gandik zeharo bestelakoa denik. Baina Aranzadi eta bere ingurukoek aipatu zituzten bereizkuntzak, ongi eginak zirela agertzen digute geroztik jarraitu duten azterketek. Eta, neurri batean bederen, arrazoi haiek indartzera etorri dira odolean aurkitu diren bereizkuntzak, batez ere Rh- delakotik, behatzetako marra-lorrazak dituzten desberdintasunak eta feniltiokarbamidaz gustuen gaitasunean aurkitu diren berezitasunak. Gaiok erabili ziren 1965ean Iruñean egin zen *IV Symposium de Prehistoria Peninsular* hartan. Bertako lanak argitaratuak izan ziren *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas* (Pamplona, 1966) izena daraman bilduman.

Ez da gauza kasual bat hizkuntza berezi batek bere inguruan hainbeste berezitasun edukitzea. Komunitate aparteko baten arrazoiak dira. Historia, atzo goizekoa da oraindik gizonaren izatean. Gure herriak erro zabalagoak izan zituen, geroago murritzetasunak izan baditu ere. Eta, aipatu ditugun arraza bereizkuntzak indartsuago aurkitzen dira Pirinio mendien erdialdeko haranetan, Bizkaiko mendebaldean baino.

Hizkuntzak ordea, alderantzizkoa izan du bere zoria. Arane-

ko (Valle de Aran) herriek, beharbada, honuntzagoko beste herri askok baino geroago galduko zuten euskara (edo euskararen senide-urrena zen mintzaira), Errioxako Ojacastro haranean bezala. Adibide gisa, oraintsu Aezkoa eta Saraitzun bezala, Auritzen eta Orreagan galdu ondorean haruntzagoko haran haietan oraindik bizi dela. Eta, bestalde, Luzaiden oraindik indartsu aurkituko dugu, Nafarroa Behereko herriekin harreman estuagoak dituelako. Hor ikusten da muga-politikoaren gaindi zer indar duen hizkuntzak eta etnia berdinetikako herriek duten elkar beharra. Era bereko fenomenoak aurkituko dugu Zugarramurdin edo Urdazubin, Lapurdirekin dituzten harreman hertsienengatik. Erronkari eta Saraitzuko herriek ordea, lehen euskara bizirik zuten artean harreman gehiago izan bazuten, gaur ere oraindik Zuberoako ezker aldeko larraintar eta santagraztarrekin edo naiz biarnotarrekin, harreman motelagoak dituzte, bizi-moldeak hortaratzen dituztelako, baina gaur, hizkuntzaz aldatzeaz eta mugak ebakitzeaz, urrunduz doaz.

Ikus Biarnoko Eskiulagatik zer dioen Txillardegik Huntaz eta Hartaz-en 49. orrialdean. Eskiula euskalduna delarik, zuberor sentitzen da eta ez biarnoar. Hor biziki ageri da mintzairaren indarra.

Txillardegi aipatu dugunez, eta arestian estrukturalismoa, hontaz zerbait jakin nahi duenak ikus beza bere lanetarik "Hizkuntza eta pentsakera", Branka (1966) lehen zenbakia eta "Estrukturalismoaz zenbait hitz", Jakin (1968) 29. zenbakia. Bera bai da gure artean gai hau onduen estudiatu duena.

Estrukturalismoa hizkuntzeri erantsirik estudio zehatzak egin dituztenen arteko ditugu Saussure, Trubetskoi, Vossler, Lévi-Strauss, Jespersen, Martinet, eta abar. Eta ez pentsa hizkuntza nagusientzako bakarrik balio duenik, handi zein txiki hartzen ditu bere barnean. Gainera, biziarazteko arrazoia emanaz.

Estrukturalismoa gaitzat harturik egin zuen Ramón Piñeiro López jaunak gailego Akademiako sarrera hitzaldia A lingoaxe i

as lingoas (1967). Hitzaldi horretan esaten dituenetarik, dena bada ere oso interesgarria, hasi goitik eta behera, har dezadan hizkuntzalari honen zatitxo bat, bere ikus-moldea adierazteko: "O 'pobo' e a unidade natural de convivencia, a 'cultura' é a súa forma i a 'lingoa' é o seu vehículo. Os distintos pobos, as distintas culturas i as distintas lingoas son as realidades concretas que corresponden á unidade ideal que nós chamamos Humanidade. A Humanidade realizase a través dos pobos, a través das culturas, a través das língoas." Hau da: Herri bat elkar bizitza natural bat da, kultura bere forma eta hizkuntza tresna. Herri bakoitza, kultura bakoitza eta hizkuntza bakoitza Humanitatea deitzen diogun batasun idealaren errealitate konkretuak dira. Humanitatea herrien gaindi, kulturaren gaindi, hizkuntzaren gaindi egiten da.

III - Munduko erakunde nagusiak hizkuntzen bizitzaren alde

Hizkuntza zaharren bizi nahia ez da guri bakarrik dagokiguna. Gaur, batez ere gaur, kultura berrien eraginez, eta zientzia berrien emaitzez, munduko hizkuntza guztiak nabari dute bizi nahia. Lehen, unibertsaltasunaren izenean, hizkuntza txikiak baztertzea eskatzen zen, erresuma txikietan bakarrik mintzatzetik aparte, kultura modernoak bereganatzeko oztopo zirelako. Gaurko linguistika berriak beste giro bat eta beste uste bat dakar. Gaur ez dago hizkuntza baztertzerik. Eta honetarako era askotariko arrazoiak dira. Horietariko batzuk aurrerago ukituko

ditugu, eta orain goazen ikustera munduko erakunde nagusiek zer eta zergatik zabalduak dituzten beren ageriak.

Badakigu estatu batzuk entzungor daudela. Askok ez diote eragozpenik jartzen beren barnean dituzten hedadura txikia duten hizkuntzei, baizik laguntza ematen diote biziaz iraun dezaten, beste batzuek ordea indartzeko laguntzak eginahalakotan ematen dizkie, eta badira beste batzuk eskubide guziak ukatuz galarazten dituztenak. Beste maila bat ere bada oraindik, hitz onak eskainiaz ari direnak, baina eskoletan sarrerarik eman ez, ez eta ere irrati eta egunkarietan; alde egitearen propagandak azpijanean zapalkuntza maltzurra eginaz, laudorio itxuraz gainera, agonia triste eta luzean hiltzora eroanaz.

Arazo hauek behar bezala ez azaltzeaz eta erabakirik ez emateaz gizonen artean amildegiak sakonagotzen ari dira, elkartasunera hurbildu beharrean.

Gertakizun larriak behartu zuten ONU bera 1948an *Giza Eskubideen Ageria* hura egitera. Bertan, gizonari zuzen dagokion era guziak hartzen ditu. Beste zenbait gairen artean aipatzen du, bigarren artikuluan, hizkuntzen diskriminazioari buruz: "Pertsona guziak Deklarazio honetan agertzen diren eskubide eta askatasun guztien jabe dira, inolako bereizkuntzarik gabe, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo beste izae-ra, nazio jatorriz edo ekonomi egoeraz, jaiotze edo beste edozein baldintzagaratik baztertzerik ez den eskubidea".

Hizkuntzari buruzkoan, zehazki, Unesco arduratu zen lan sakon eta zehatzagoa prestatzen. Horretarako bildu zituen soziologo, hizkuntzalari eta pedagogoak elkarlanean estudiatzeko. Hizkuntza desberdinen egoeren auzia begiratu eskoletan zernola zeuden haurrak eta nola behar zutenaren gomendio oinarriak adiaraziz argitaratu zuen *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* izenez, 1953. urtean. Hurrengo urtean, espainolera itzulia agerrarazi zuen, baina hemengo liburu dendetan ez zen ikusterik ahal izan. Beraz, bada ordua problema horiek

aurrez-aurre azaltzekoa. Gaur egun gure herriak beregan dituen probleme nagusietako bat da noski. Bertan jokatzen baitugu, hizkuntza etorkizunarekin batean, herri barnean bizi garenon arteko errespetua eta elkartasun giroa; demokraziaren oinarririk txikiak hala erakusten baitugu. Izan ere, nork irabazten ahal du hizkuntza zahar bat heriotzara bidean jartzeak? Bere heriotzarekin ez dut uste inork irabaziko duenik, bai ordea berarekin batean herri baten jatorrizko kulturak. Eta, bestalde, herri desberdinen arteko oreka galdu eta elkarren arteko gorroto eta ikusiezinak ugaritu.

Gizontasunak bultzatzen gaitu euskarak beste hizkuntzak adinako eskubideez jabetzeko lan egitera. Gauden egoeran, ofizialtasunean euskarari erdarari adina eskubide ez ematea, euskararen kontra egitea bezala da. Jokaera sanoak elebitasuna eskatzen du, jakina. Elebitasunaren arlo hau, auzi sakona dugula? Bai, noski. Serioski aztertu beharreko auzia. Baina ez oso gaitza delako irakaskuntzan eta gainerakoan. Kontu honetan ez dugu ezer inbentatu beharrik, zeren beste nazio batzuek aspaldi asmatua da eta urte askoko esperientzia ere badute. Kopiatu baizik ez dugu. Kopiatu, gure industriak beren lanekin egiten duten bezala.

Penagarria da, kaltegarria ez bada, inoiz problema hauekin arduratu ez direnak ere, bat-batean, auzi hauetan muturra sartzen dutela, hala-holako aburuak agertzeko. Guk ez dugu zalantzarik gauza hauek maitasunez eta jakintasunez egin behar direla, grina txarrak eta alderdi setatiak alde batera utzita.

Euskaltzaleoi maitasunik ez zaigu falta, eta grinak noraino-koak diren geuk geure buruz ezin genitzazke neurtu auziaren barnemuinetan gaudelarik. Horregatik diot, gai honetaz hor dugu Unesco-ren aburua.

Unesco-k, bere azterketaren ondorioz argitaratu zuen ageri luze eta sakonak herri guzietan beraien hizkuntzak zaintzea eskatzen du, jatorrizko ohituren gordetzailerik direnez gero eta horrek

berarekin kultura berezien nortasuna ematen dielako, herri bakoitzak berari dagokion moral eta kulturaren eusle hizkuntza duelako. Gizonen arteko eroapenarentzat ere beharrezko dela esaten du. Horregatik jartzen ditu arauak eta erregelak haurren eskolak eramateari buruz. Batez ere lehen mailetan, gurasoen hizkuntza soila beharrezko delarik, oso hedadura txikikoa bada ere, geroago beste hizkuntza zabalagoa edo noranahikoagoa izango den bat sartzen joatearen kontseilua emanaz.

Zoritzarrez, bizi garen mundutxo honetan, ezjakinean bizi gara. Elebitasuna eskatzen den bakoitzean, handik edo hemendik mila iritzi merkez oztupoak sortzen dizkigute, euskararen kontrako sasikumeen jokoak bideratutako uste usteletan erroturikoak. Ezer esateko duenak, lehendabizikoz aipatu ditudan lan horiek ezagutu beharra du. Gainerakoan hobe du isilik egotea, zabarkeriazko hitz ergelez iruzur egin gabe.

Gai honetaz, 1966ko irailaren 17ko *Destino* aldizkariak zekarren Santiago Nadal jaunaren lan jakingarri bat. Non zioen: “Ez gara ahalegindu behar Espainia monolinguista bat ikusten, inoiz ez baita izan. Ez eta ere Katalunia zeharo katalan mintzairazkoa, aspaldiko mendetan ez baita izan... Baina, penagarria da katalanerari eskolarako egiten zaion hutsunea. Momentu bat heldu dela, esan dezagun historiaren aldetik, hutsune hori bete beharrezkoa”.

Nadal-en iritzian, Espainiaren batasunerako politika arrazoiak ere ez omen dira aski Kataluniaren hizkuntza baztertzeko. Zeren Irlandari, bere hizkuntza galarazi arren, bere eskubideen indarra ez zioten galarazi. Eta, kataluniera betidanik zutik egon delarik horrelako problemak baino lehenagotik eta beren gainetik, zergatik ez lagundu? Espainia inoiz izan ez denez hizkuntza bakarduna, beharrezkoa zaiola, Estatuari, bere barneko hizkuntza guzien begiramena.

Baita ere esaten zuen, askok aipatzen dutela mundua hizkuntza bakar batera zihoala, baina horrela mintzo direnek jakin behar dutela gauza hori oso luzerako dela eta orain erabakitzeak

ez duela ezertarako balio, elkarren arteko haserreak sortzeko baizik. Baten alde bultzatzen egitekotan, aurrerantzean, ingelesarekin pentsatzen jarri beharko garelako, eta ez besteekin. Jadanik, zioen idazleak, bigarren hizkuntza bat beharrezkoa zaigu munduan geroago eta estuago diren harremanetarako, baina gauza zurririk eta funtsezkorik eskaintzen ez zaigun artean, bakoitzak norberaren hizkuntzari ez diogu hiltzen utzi behar.

Gehiago esango nuke: Unesco-k azterketaren ondorioz emandako gomendioak ez ziren alferrikakoak, ez eta ere txantxetakoak. Bere arauak diotenez, hezkuntza guraso hizkuntzan oinarritu beharrezkoa da. Ondotik bigarren hizkuntza bat irakasteko. Bigarren hizkuntza hau Europan zabalkunde gehiago duena izan dadin. Hitz batean, hau da: jatorrizko hizkuntza eta hedadura zabalagoko bat. Unibertsaltasunera batekin bakarrik ez joatea. Hori da, bakoitzarena gordearaziz, aldi berean Unibertsoak berez duen kultura pluralaren aberastasuna ere gorde dezan.

Unibertsoaren orekari eusteko, inor ez da nor besteen esku-bidea galarazteko. Unibertsoa guztiok osatzen baitugu, garenak gara eta inor ez da sobera.

Borondate onik baldin bada, euskara, erdararen kontra jokatutako gabe salbatu behar dugu. Bestela, zertarako da mundutarrontzat Unesco bezalako erakunde neutral baten kontseilua?

Geroago, Vaticano II. Kontzilioa izan genuen antzerako iritzia zabaltzen zituena. Esanaz: "Gurasoak dira, guztiak aurretik, beren haurrak hazteko eta haien hezkuntzaz eskubidea dutenak" (I. 13). Euskaldun gurasoentzat ez ote dira hitz horiek? Obligazioak jarri dizkigute, baina eskubiderik ez dugu. Eta uste dut, izan ere ez dugula izango, geuk hartzen ez badugu.

Hara hemen gehiago: "Kristau-moralak erakusten duen bidez osatutako mundukera berri batean, ez da zilegi herri txikien kulturari eta hizkuntzari buruzko berezitasunak agerian,

naiz ezkutuan, zapaltzea" (BAC or. 833, 20). Nork behar du gehiago herriak anaitasunean bizi ahal izateko?

ONU, Unesco eta Vaticanoaren irizpideak, euskarak ere bere alde ditu. Baina ez dugu ezer lortzerik euskaldunok izan ezik. Auzia, gainerakoan, euskararekin zerikusirik duten guzien hezieren, kontzientzian eta gizontasunean legoke.

Munduaren bakebiderako eta gizonen anaitasunerako ba ote da beste erakunde nagusirik? Erlijio aldetik badira beste batzuk ere, Vaticanoa bezain handi eta garrantzitsu ez izan arren, baina hemen, gu bizi garen tokian, denok omen gara katolikoak. Behintzat, horrela bataiatu gintuzten eta giro hori nabaritu dugu gure inguruan. Beraz, erlijio aldetik, ezin uka gure erakunde nagusia ez denik.

Berria dugu oraindik ONU berak minorien alde agertu zuen ageria. 1967an, New Yorken ingelesez, frantsesez, errusieraz eta espainolez argitara eman zuena, bere izenburua, *Minoriei* babesa.

Hemen ere, han adierazten denaren berdina gertatzen zaigu: guretzat legezko behar zena, ez da legezkoa, zilegi behar zuena debekupean dagoelako. Espainolezko argitalpenari jarraiki, euskara hain gogozko ez duten hauek ere ondo enteratzeko bezala dago. Holako izenburua eta mezua dituela: *Protección a las minorías* (Medidas especiales adoptadas en el plano internacional para la protección de grupos étnicos, religiosos o lingüísticos). Naciones Unidas. Nueva York, 1967. Bere xehetasunetan sartuko banintz luzeegi joango nintzateke eta aski izango dut bere muineko denaren berria labur ematea. Xehetasun gehiagorekin jakin nahi duena bihoa liburuxkara zuzenean.

Lehen partean arau zuzenaren eta aginduen gora-behera guziak dakartza, noiz eta non erabakiak hartu ziren adieraziz eta bigarreanean zenbait nazio eta erresuma edo Estatutan hartu behar izan dituzten neurrien berriak jasotzen ditu. Guk euskararen aurrean ditugun auzi berberak eta antzerakoak aurkitu genitzake liburuaren lehen parte horretan. Bigarren parteko

zenbait erabaki gure auzien konponbide izan daitezke, 4. orrian datorren ageriaren arrazoi orokorrean, 10.eko lehen eta bigarren artikuluetan eta 16 - 17. orrialdetan lehenengo eta bosgarren artikuluetan. Lan honetan hizkuntzarekiko diskriminazioak herrien genozidio barnean sartzen dira, eta garbi asko jartzen du herri bakoitzean bertako hizkuntzari hezkuntzan tokia egin behar zaiola.

Gu, badirudi, basamortuan predikatzen ari garela, etxekoei ere konprenitu eragin ezinik.

Bestalde, honetaz sentitu, pentsatu eta arduratsu lanean ari garenok, naturak berak emandako eskubidea defendatu beharrez aurkitzen gara gizonen (gizon batzuen) kontra.

A. Tovar-ek, bere azken liburuan, *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* (Madrid, 1968), gure hizkuntzaren egoera aztertu ondorean, hara zer dioen: "En un mundo moderno sólo los medios modernos (escuela y grados superiores de educación, radio y televisión, etc.) pueden asegurar la conservación de la lengua". Beraz, legezkoa da gure herrian gure hizkuntzarentzat horiek eskatzea. Baldin denok osatzen badugu nazioa, obligazioak ere denok ditugula ez da dudan jartzekoa. Guziok osatzen dugun elkargoan ezinezko baita batzuek bakarrik izatea denona den eskubidea.

IV - Euskara eskoletan

Euskara, Euskal Herriko eskoletarako eskaria, askorentzat badirudi beste munduko eskaera dela. Ezinezko gauza bat balitz bezala. Ez da gehiegizkoa: euskarari, naiz katalanari edo naiz galegoari, munduko edozein hizkuntzak duen eskubidea eska-

tzea. Eskubide hori eskatu beharrik ez genuke legezkoa ez balitz. Gizalegezko demokrazia zuzen batean hala behar luke, gure problemak geuk erabakiaz. Baina guri zer komeni zaigun eta zer behar dugun erabakitzea besteei zaienean, hortik sortzen dira oztopoak, zuzenezko dena bere bidean aurrera eramanez ahal izateko. Bada ba izatekoa hau ere, gure etxean zelan behar dugun auzokoek erabaki behar. Horrela izan ez balitz, orain ez genuke eskatzen ibili beharrik izango. Gure Diputazio, Kontzeju (Udal) diren erakundeen artean erabaki eta kitto. Hori litzateke demokrazia batean biderik zuzenena. Baina..., betiko baina horiek kentzen ez baditugu, geurea behar lukeenarekin jabetzen ez bagara, nekez egin genezake gauza onik.

Euskal Herriko hiru probintzietan 1839an beren foruak galdu zituzten arte, eskolak herrien Udalenak (Kontzejuenak) izaten ziren, ez Estatuarenak eta ez Diputazioenak. Nafarroan ere berdin, beren Gorteak 1828an bukatu ziren arte. Urte haietara arte, gehienak erdarazkoak baziren ere, asko ziren euskarazkoak eta batez ere bilinguismoz eramaten zirenak. Ezagunak dira Luis Astigarraga eta Agustin Pascual Iturriagak beren esperientziaz eta beren gidaritzapean prestatuak, Gipuzkoako probintziako Batzarren laguntzarekin.

Foruen bukaeratik gerora ere oraindik zenbait sistemak indarrean iraun arren, legez, Carlos III.ak jarritako zepoan erori ziren irakaskuntzako eskubideok, eskolak gaztelera hitsera behartuz. Zehazki, *Real Cédula de 23 de junio de 1768*, Carlos III.ak aginduaren arabera, lehenengo eta bigarren mailako irakaskuntzak (enseñanza primaria y secundaria) Estatuako eskola guztietan egin zitzatela “únicamente en lengua castellana”. Baina lehenago ere, maisu-maestrei isilpean, era horretako aginduak emanak zituzten Espainiako erregeek, gaztelerari bakarrik bidea emanaz. Adibidez, begira 1717an Felipe V.aren agindua Soldevilaren *Historia de España*-ren bosgarren tomoak 333. orrialdean dakarrena. Gero, eraztunez egiten zuten zigorketa

negargarria gure egunotara arte ezagutu dugu. Maiz bertakoak txarrenak zirela.

Eta oraindik asko dira esaten digutenak Estatu batean bi edo hiru hizkuntza kaltegarri direla. Ez dakit norentzako den kaltegarria, batentzako izan ezik. Baina, ondo pentsaturik, zergatik kaltegarri bakar horrentzat? Besteak menderatze horretan ez ote du bere barneko bakea galtzen? Bai behintzat besteen konfiantza eta errespetua.

Suitzan, adibidez, lau hizkuntza ofizial mintzo dira; bost milioi pertsona, 41.288 km. kadraturan bizi dira. Alemanez ehunik 70 mintzo dira, frantsesez ehunik 20, italieraz ehunik 8 eta erromantxeraz % 2. Eta diferentzia horiek ez dute sortu hizkuntzen arteko problemarik, baizik elkarren artean batak bestearena ikasten ahalegintzen dira, eta eskoletan ere era hortara laguntzen diete. Berentzat pozgarri da hizkuntzen aberastasun hori, kultura iturburuen emaitza ugariagoak dituztelako, eta emaitza horiek gogozko indar berezi bat sortzen omen dute aurrerapenari begira. Aldi berean, lau hizkuntzok mantentzean elkarren arteko oreka lortzen dutelako. Alajaina! Iritzi berdinekin bizi ote gara? Hor ditugu nondik eta nola bideratu behar denaren ereduak.

Hemen, euskaltzaleok, asko sentitzen dugu gure hizkuntza politikarekin horren nahastuta ikusteaz. Nahiago genuke politikarekin nahastu gabeko hizkuntza edo politika talde guzien laguntzazkoa, naturalagoa denez. Politika ez al da bizitza galaraziz ito nahi gaituena? Baina inondik ere ez da politika ona menperatzaile izan nahi duenean.

Bizpahiru urte dira Francesc de Borja Moll, Mallorca-ko hizkuntzalariak, gai honetaz, zenbait artikulu argitaratu zituela. Hark zioenez, problema gabeko Espainia zen antolamenaren erarik aukerakoena problemak eurak ez ezagutzeko eta erabaki gabe gelditzeko. Uste hori amets arin bat besterik ez dela, zioen. Azaleko ur bare horien azpitik bizia zihoala, eta egunen

batean ustekabeko zurrunbilo batean aurkituko gabela, eta, orduan, antolamen era horiek ez dutela balioko eta berriz hasi beharko gabela problemak aztertzen soluzio berriak aurkitzeko.

Jarraitzen zuen esanez: jende askok uste omen du iritzi horiek katalan eta euskaldun "txoro" batzuen artean bakarrik direla, baina ez dela horrela. Izen handidun asko izan omen dira iritzi horretakoak, F. de B. Moll-ek zioen, Azorin berak ere ikuspegi hori zuela. Duela berrogeita hamar urte, Azorin heldua eta pentsaeraz ondo hornitua zegoenean *ABC* kazetan argitaratu zuen artikulua batetik atal hauek jasotzen zituen, hartaz gogoratzeko:

"Ezin daiteke nahastu eta kideko jarri Estatu eta nazioa. Espainian Estatu bat dago eta nazio asko. "Nazioz" mintzatu dira beti klasikoek —Lope, Gracián, Cervantes— adierazi nahi zituztenean katalanak, euskaldunak, gaztelarrak, galegoak, eta abar. "Katalunia nazioari" —era horretara bereizturik esateko— agertzen du bere begirapen ona Gracián-ek...

"Estatua da agintariek erresuma bat edo bat baino gehiago gobernatzeko jartzen duten maila. Nazio batek, zenbait eratako adigarriak ditu bere baitan, sentimenduz, ideiaz eta sinismenez nortasuna ematen diotenak! Nazio bat historia, hizkuntza, azturak, oroipenak eta asmo oparitsuen erresuma elkarteak... Nazio bat herri baten giroan datza, mendez mende, belaunik belaun girotua, zeruagatik, argiagatik, paisajeagatik, etxeengatik, geure haurtzarotik ikusi ditugun gertakariengatik. Nazio asko elkarturik bizi diren Estatu batean, nola hitz egin genezake hizkuntz nazionalaz? Nazio horietako bakoitzak —Espainian gertatzen den bezala— bere hizkuntza badu, aldi berean guziak izango dira nazionalak. Beste gauza bat izango da Estatuaren hizkuntza. Estatuaren politika eta administrazioaren bititza hobe eta errazago baterako. Ez dugu ikusten abertzaletasunak zer lotura duen, abertzaletasunik zindoena ere, Estatu baten barruan hiz-

kuntzek beren bizibidea libre izatearekin. Estatuaren hizkuntza ofiziala izan daiteke egokitasunaren hobe beharrez; inoiz ere ez abertzaletasunarekin zerikusia...

“Politika bere zentzurik gorenean, gizartea bere ikaspenik berrietan, gerrate honen adierazpenek berek (lehen mundu gerrateaz ari da), zera irakasten digute, Estatu baten barrenean dauden hizkuntz nazionalek beraien iraupenarekin libertatea eskaintzea ez dela nahikoa, haiek indartu beharra ere badagoela... Berarekin, uste denaren kontra, Estatuaren elkargoa indartu da eta espainolen artean elkarganako harremanak bizkorragoak izan dira”.

Eta, bukatzeko zioen Moll-ek: Azorinen hitz horiek ez dute esplikazio beharrik, bakarrik, gogoraziko genuke, Azorin ez zela katalan edo euskaldun “txoro” horietakoa, gazteleraren hitz-lauzko prosista maisu nagusietakoa baizik. Ondorean, Espainia guziko herri hizkuntzek eskoletara eramatearen aldeko deia agiten du B. de Moll balearrak.

Idea horiek, ez al dira arestian aipatu ditugun Suitzako era eredugarri ber-berak?

Kontu hauetan, ordutik hona, aurrera egin beharrean atzera egin dugu. Harresi handiago bat jaso da Espainiako herrien artean eta nekezagoa jarri zaigu elkar ulertzea. Baina, aurreak erakusten omen digu atzea nola erabili. Euskaldunoi, orain arte ikusiak erakusten digu, ezeri jaramonik egiteke, geure bidean aurrera jarraitzen, herri bezala iraun nahi badugu.

Ageri denez, euskaldunok euskarari hiltzen utziko bagenio ere, Espainiako hizkuntza problema ez da hemen bukatzen. Munduko herriak, berez doaz geroago eta harreman estuagoetara. Gaur, Europako edozein herritan, Ingalaterran, Alemanian edo Errusian izan ezik, goi mailako jakintzetan sakonki estudiatuko bada, tekniko eta zientifikoak beharturik daude elebidunak edo plurilingueak izatera, edo beharturik hiru Estatu horie-

tako hizkuntzaren bat ikastera. Horien aurrean bigarren mailako gelditzen direlarik frantsesa, espainola, suediera, italiara eta besteak. Hala ere, hirugarren mailako hizkuntzen artean ditugu Europako herri asko. Beraz, gauzak horrela ikusita, hizkuntza murriztuagoak ditugunok, behartuak gaude bi edo hiru hizkuntza jakitera. Herri bakoitzak berea utzi gabe. Zer hobe guziok elkarri bizitzen laguntzea baino? Guziok elkar errespetatzea inor menderatzera behartu gabe, uste dugu, zuzentasunean bidezko bakarra dela eta, aldi beran, herri guziek elkarren artean oreka gordetzeko modu bakarra.

Haurtzarotik bi jakitean, pedagogia berrien arabera, hizkuntzetarako eskemak irekitzen omen ditu eta elebidunek horregatik dute hirugarrena ikasteko erraztasuna. Hori horrela izanik, zertan ari gara?

Historian zehar, gure herri askotan haurren ikastaroetan problemak zeuden, eta daude, haur euskaldun hutsak direnei gaztekeraz irakatsi nahirik, ulertzen ez dituzten gauzak zer direnik ere jakin gabe buruz hartzen. Problema handi eta ugariok oso ondo agertzen zaizkigu gizarte-gaien aztertzaile den Gaur, S.C.I. deritzan elkarteak Gipuzkoako lehen mailetako eskolei buruz egin duen informean. Agian, hain bizi eta ageri-agerian daudelarik, ez ote dugu okerrak zuzentzeko biderik lortuko?

Besteen ordenarik eza salatzeak eta zigortzeak, gaur egun, zentzu gutxi du, zuzentasunaz arduratuz behar direnek beren egitekoak hobeto betetzen ez badituzte.

Noizbait aseko ote gara aspaldiko egarri horretaz? Euskaltzaindia sortu berrian, 1921ean, bere lehenengo euskal egunetako hitzaldiak antolatu zituen Durangon, eta batzar hartarako, beste zenbait lanen artean, F. Belaustegigoitiari eskatu zitzaion txosten berezi bat euskarazko eskolak garatzeko moduari buruz. Lan hura bete zuen, txosten hartan zehatz-mehatz estudiaturik agertu baitzuen eskatu zitzaiona. Ikus, "Euskerazko eskolak",

Lenengo euskalegunetako itzaldiak. Euskaltzaindia. Bilbao, 1921, 107- 120 orr. Baina Euskaltzaindiak bere baitan gogoz hartu zuen helburu hura oraindik betetzeko da. Testuinguru hura, praxisean, lehenean datza. Baina katalan eta gailegoekin egin den elkartasun berriak, itxaropen berriak dakartza. Gu-
txienez, indarraren errespetuak emango diona.

V - Euskararen batasuna

Euskara idatziaren batasuna, premiazkoa ez ezik behar beharrezkoa zaigu. Lehen herri txikia izateaz gainera, ezin genezake zatiturik jarrai. Euskalkien salbabiderako ezin dugu euskara bera arriskuan jarri. Eta, daramagun bidetik edo proposatzen dutenetik, iruditzen zait, euskalkiak hil beharrean aurkitzen garela euskara bera biziko bada. Txerto zehatzen premian dugu hizkuntzaren osasuna. Aspaldi beren dialektoak hil zituzten handiagoez inguraturik gaude, beren aurrean defendatzeko arma bakarra batasuna dugu; batasunaren indarra. Ahal den neurrian ondo deritzot euskalkiak erabiltzeari eta indartzeari ere, hizkuntzaren enborretikako adarrak direnez gero, baina euskalkiak salbatzeko ezin dezakegu utzi euskara bera arriskuan. Gainera, iruditzen zait, hizkuntza batua indartzeaz euskalkiek eurek ere bizibiderako giro hobea izango dutela.

Hau da, magalak utzi eta enborrarekin jabetu. Euskal Herri guztian ahalik eta zabalen konprenitu daitekeen mintzaira eratu. Elkarrengana hurbiltzeak anaiago eginen gaitu, eta anaia-
go egiteak herri kontzientzia indartu. Hau da, abertzaletasun

sendoago bat lortu eta honen garapenaren neurrian etorriko lirateke hizkuntzaganako ondasunak.

A. Nebrijak 1492an, gazteleraren lehen gramatikari egin zion sarrerakoan zioenez, antzina grekerak eta latinak bezala, gaztele-
rak ere bere haurtzaroa izan zuela eta bere indarrak frogatzen hasia zela Alonso "el Sabio" bere aldi hartan. Hizkuntza hau, bere garaira arte, horrela ibilia omen zen, azaltzen duenez: *"Esta hasta nuestra edad anduvo suelta y fuera de regla, y a esta causa a recibido en pocos siglos muchas mudanzas; por que si la queremos cotejar con la de oi a quinientos años, hallaremos tanta diferencia y diversidad cuanta puede ser maior entre dos lenguas. I por que mi pensamiento y gana siempre fue engrandecer las cosas de nuestra nación, y dar a los ombres de mi lengua obras en que mejor puedan emplear su ocio, que agora lo gastan leiendo novelas o istorias embueltas en mil mentiras y errores, acordé ante todas las otras cosas reduzir en artificio este nuestro lenguaje castellano, para que lo que agora y de aquí adelante en él se escriviere pueda quedar en un tenor, y entender se en toda la duración de los tiempos que están por venir, como vemos que se a hecho en la lengua griega y latina, las cuales por aver estado debaxo de arte, aun que sobre ellas an passado muchos siglos, toda vía quedan en una uniformidad."* Ikasbide ederra eta argia benetan. Horren ondorenak ikusi ditugu bost menderen buruan eta bertatik ikasi beharrezkoa zaigu euskara osasundu nahi badugu.

Gerediaga elkartearen dei hartan esaten genuen bezala, euskara idatzian behar dute mintzaira batasunerako oinarriak, herri denek, tradiziozko literaturatik eta herrien ahozko mintzaira biziaren artetik aurrera joaz egin dute. Dialektoen gainetik indarberrituz.

Herri baten estekadurak gordetzeko behar da literatura, euskalkien baliozko indar guziak batasun hori egiteko bildu behar ditugu. Beti, batasuna, euskalki ororen helburu.

Literaturak ematen die hizkuntzei nortasuna, indarra eta

prestigioa. Eta ez hori bakarrik, baita bizitza luzeago baten laguntza ere. Saussure dugu gaurko hizkuntzalaririk handienetakoa bat, handirik bada, eta bere ustez, hizkuntzaren literatura lantzen ez denean, bere oinarrien indarra ukatzen zaio eta aldatzera eta heriotzara biderako berezko egon ezin baterako zioa izaten du; baina idatziz lantzeak, ordea, iraupenean gorde-tzea (Ferdinand de Saussure, *Cours de linguistique générale*. Paris, 1966, 193. orrialdean).

Euskal literatura zerbait ezagutzera heldu garenok badakigu lehenagoko euskal idazle zaharrak elkarrengandik hurbilago zebiltzala. Gutxi lantzeak eta eskolarik ezaren ondorioz euskaldunek aski ez irakurtzeak ekarri digu euskalkiok elkarrengandik geroago eta urrutiago ibiltzea. Literaturan euskara batuago bat bageneuka, batu horrek bideratuz eraman lezake euskalkiak elkarrengana inguratzea edo gutxienez gehiago ez urruntzea.

Jakin kultura aldizkariak euskara idatziaren batasunari buruz argitaratu zuen 31-32 zenbaki berezia (maiatza-urria, 1968), eta bertan dakartza katalan hizkuntzaren arazoak, beren batasunari buruz. Han, 1913an E. Prat de la Ribak idatzi zuen artikulua ederra (irakur aipaturiko *Jakin* horretan 109-111. orrialdeetan, I. Beristainek euskaratua). Bertan ikus dezakegu, katalanak, mende erdi bat lehenago hartu zituztela guk gaur hartu nahi ditugun bideak. Prat de la Ribak artikulua luze horretan agertu zituen argudioak bete-betean datoz gure egungo arazo honetara.

Jakin aleberezi horrek, beste gai interesgarri batzuk ere badi-tu euskara idatziaren batasunari buruz. Baina, une honetan, nire asmoa batasun horren beharra adieraztea besterik ez da, eta behar hori argi jartzeko hari-harira dator katalanaren artikulua sakona.

Euskarari, ere edozein hizkuntzari bere axolarik gabeko ego-era naturalean gerta ohi zaion bezala, denborarekin aldatuz, euskalkiak elkarrengandik urrunduz, berauek ere zatituz, pikor-

tuz doaz suntsitu arte. Lehen bata bestearengandik hurbilago ziren euskalkiok eta gaur mintzaira desberdin bezala agertzen zaizkigu.

Herriaren ahozko mintzairak duen indar berezia gorde beharrekoa da. Ahal delarik hizkera adar bakoitzak bere literatura poxia behar du izan, herri-literatura, eskualde bakoitzeko herri-tarrei batasuneko edo batasunerako literaturaren lehen urratsak erakusten lagunduko dioena; hau da, goragoko mailetara jo nahi duenarentzat bidea irekiko duena. Zeren, kulturaz zerbait jantzia denak, euskaran kulturadun izateko, beharrezko izango du goragoko literaturaren ezagutza. Baita ere, euskara literario hori izango da beste edozein euskalki hobeki ezagutzera heltzeko lagunduko duen zubia, aldi berean, herriak elkarrengandik gehiago sakabanatzen utziko ez duen lotura.

Herri baten egiteko nagusietakoa da literatura indartsu batez jabetzea. Hizkuntzarentzat aberastasunezko bizibide berri bat da, kemena eta indarra emango dioena. Gure txikitasunean ezinbestekoa zaigu.

Inoiz euskara eskoletara eramatea lortzen badugu, ezin genezake euskalki bakoitzerako liburu bereziak gertatu. Horrela ez luke euskarak bururik altxako. Gainera, euskara batuan, liburu, izkribu, kazeta, aldizkari eta gainerakoan zabalkunde handiagoa izango genuke, eta elkar hurbiltze horrekin ekonomia handiagorearen lorpena euskara eta Euskal Herriarentzat.

Beste hizkuntzek hori aspaldi egina dute. Askok Estatuak beharturik eta beste askok euren borondatez bildurik. Katalanek, adibidez, gizon argi batzuen eraginez, erabaki hauek hartu zituztenetik, literaturari anitz aberasten lagundu diote eta hizkuntza berari ere, kultura mailan, bestelako goitasuna eman diote. Eskerrak horri, orain beste maila batean daude. Euren literatura hain da aberatsa, alde honetatik ez dute atzera egiteko beldurrik, eta gaur egun beren hizkuntza zientzien bideetatik dabil, gurea oraindik literatura lantzen ari den artean.

Bidea markaturik dugu eta bertatik jarraitu besterik ez. Honetan, beharrezkoena, guziok batera joatea da, diferentziak alde batera utzirik. Zeren oso gaizki ematen baitu bakoitzak bere gisara kantatzen duen koruak. Ezertan bat etortzera, hemen behar dugu. Bide batetik abiatzen garelarik, gure korrontera errazago ekarriko baititugu gainerako euskaldunak. Eta euskararen salbabidea denok euskaraz aritzen garenean etorriko da. Esan dezagun gure lehenengo idazlearekin batean: "Euskaldun den gizon orok altxa beza burua!".

VI - Euskaldunok euskaraz

Gizonaren izaerak, historian zehar, bere gorakako garapena eraman ahal izan du, hizkuntzari esker. Zeren, gizonak, bere bizitzaren iraupena ez dio zor fisiko aldetik dituen dohain horiei, bere adimen eta bere eragiletasunari baizik. Eta gizonaren bi dohai hauek hizkuntzari loturik doaz.

Hizkuntzak daramakigu, izate-muinean finkaturik pentsamenaren egitura.

Hizkuntza ez baita elkar adierazle soila, baizik pentsatzeko tresna ere bai. Hizkuntza ezin daiteke pentsamenetik aldentu, pentsamenaren barnetikako lotura denez gero. Hargatik, zeri-kusi handia dute hizkuntzek eta pentsaerek. Pentsaerak berarekin baititu sentiera eta irizpidea, izaerari bere taxu berezia ematen diona.

Hizkuntza batek, zibilizazio eta kulturaren batasuna darma, herri baten jatorrizko iturburutik jaso. Horregatik dute gizonek beraiei dagokien buruzko izaera eta jokaera berezia

erkidego diren inguruan, erkidego bakoitzari bere gogozko nortasuna ematen diona, politikaren lokarri guzien gainetik dagoena, inoiz politika bidez, indarrean, etniazko egitura horiek haus-ten badira ere. Beharbada hor izanen ditu bere sustraiak hizkuntza gorde beharrez herriak berari dagokion politika jokatzek, ohiko zaizkion gizarte-bizikeran jator deritzona gorde nahirik. Izan ere, legezkoa da, gizon bakoitzak eta herri bakoitzak bere izatearen eskubideekin jabetu nahi izatea. ONU berak salatzen du Gizonen eskubide Ageri haren (1948) bigarren artikuluan.

Hizkuntza da herri baten etnia gehien bereizten duena. G. Arestik behin batean esan zuenarekin nago: "Euskalduna izateko euskaraz egin behar da. Euskararik gabe ez dago euskaldunik". Hor dago izan edo ez izanaren gakoa.

Arbasoek hizkuntza estrukturan txertaturik utzi ziguten aburu hori: euskalduna eta erdalduna, muga zehatzez ebakirik. Ustez aldatzeko, euskararen muinetatik irten beharra dago, erdaraz edo juzgatu beharra; baina zentzudunak ondo daki inorenean ez dagoela norberaren guna.

Euskaldunok geure izaerari utziko bagenio, beste zerbait ginateke. Bereziki izango genituzke gure izatearekiko dohaintto ttipiak, dohain hondakinak, lehen izanaren oroigarri bezala, baina ez herri batek bere magaletik sortarazi zuen nortasunaren indarrezkoak, baldin pentsaeraren egiturak, bere irizpide bereziekin gordetzen duen hizkuntza galtzen badu.

Izatez, norberaren hizkuntza, gurasoengandikoa da, ondoen konprenitzen dena, burua gutxien nekatuz mintzatzen dena (sarri gure artean horrela ez bada ere, izan ditugun sarraskiengatik da), herri elkartu batentzat argiena, bere sustraikako izaera mendez mende datorrelako, herri elkargo baten harremanekoa delako, eta horrek girotzen du norberaren eta norberekideko direnen izaera.

Gaur, hizkuntza bateko semeek, kultura jatorraren iraupene-

rako, beharrezko dute beren hizkuntzan irakurtzen eta idazten jakitea. Eta, gurean gehienak dira ez dakitenak.

Aspaldi esan zuen A. Ibiñagabeitia zenak, euskaldunok ginea munduan analfabetorik gehien genuen herria, geure hizkuntzan ez irakurtzen eta ez idazten ez genekielako. Mingarria bada ere, ez da arrazoi makala. Ez da aski eskolarik ezari kulpa guziak botatzea. Bere barnetiko gogoa zerbait landua duen herri batek ezin du izan oztoporik.

Aspaldi hasi ziren euskaldunak alfabetatzeko premiaren deiak eta hotsak, eta 1967an mugitu zen horretara gazte andana bat Rikardo Arregi mutil azkarraren zuzendaritzapean, Euskaltzaindiaren babespean hutsune hori bete nahirik gartsuki lanari ekin zioten. Uda hartan izan ziren lehen ikastaroak, euskaldun izanik euskaraz ez irakurtzen eta ez idazten ez zekitenentzat.

Gogoan izan, gaur dugun kalterik handienetariko bat kulturaz urri ibiltzearena dela, eta batez ere, euskararen zoritxarra euskaldunok analfabetoak izatetik datorrela.

Ahulduak gaude, bai, ahulduak eta atzeratuak. Baina, inoiz ez da berandu. Milioi erdi urte inguruko hutsunea dago gure hizkuntzaren sorkundera izan zitekeenetik idatzitako lehenengo ageriak arte. Eta, Europan oraingo hizkuntza bizien literatura-
ren aberastasunik zaharrena ere ez doa seirehun urtetik harat. Lanak bizkortu lezake gure mintzaira ahula ere, batez ere gazte bihotzetan garra denean.

* * *

“Euskaldunak euskaraz: idatzi, irakurri, hitz egin” esloganpean eta Euskaltzaindiaren babespean, laster zabaldu ziren alfabetatze kanpainak Gipuzkoan eta Bizkaian.

Euskaldunik gehienek beren hizkuntza ez dutela nahi esan izan digute. Beren gogoz baztertzen dutela guraso hizkuntza? Askoren leloa da hori. Baina arrazoen funtsean errotu gabe.

Kontzientzia ikasbidez hartzen da. Estatuak ofizialki lagundu dituzten hizkuntzak lortu dute batasuna eta indartu dute kultura, hornitu dira kontzientziaz. Baina, zein euskaldunek utzi du euskara euskal kulturaren kontzientziaz jabetu ondorean? Hizkuntza handiago batek oztoporik eta galarazterik jarri izan ez baligu, eta kultura irakaskuntzak bideratu ahal izan bagenu, ikustekoa litzateke ea zenbatek utziko zuten guraso hizkuntza.

Kontuan izan beste hizkuntza batean, beharturik, irakatsi zigutela eskola, maiz tutik ulertu ez arren. Hau da mundu honetan handiagoak txikiagoari jartzen dioen arrazoi zerga: indar menperatzailea.

Hizkuntza handiagoa eta zabalagoa komeni dela esaten digute. Baina hizkuntza baten alde era askotara egin daiteke eta egiten da: batzuentzat aski da berena izatearen arrazoi soila, beste batzuek munduan gehien zabaldua delako, bestek goxoa delako, edo latza delako; gustu guzietarikoak daude. Bakoitzak bere nahiaren neurrira har dezake. Gurari guztietara eratzen da hizkuntza batenganako maitasuna edo begiramena. Eta, ez da arrazoi gutxi, bizi den bati iraurarazi nahia.

Hizkuntzen literaturarekin ere berdina jazotzen da: nagusia, landuena, gihartsuena, zerutiarrena, sakonena, teknikoena, zientifikoena, filosofoena, eta abar. Txiroena denean ere, maiz, aski da norberarena izatea. Norberaren jatorrizko gunetatikoa. Norberarenean aurkitzen dugulako besterenetan ez den gogominaren neurrizko zerbait. Bihotz lehorretan bakarrik aurkitzen da bestelako zerbait den hori, gehienetan jakintasunik ezagatik, baina inongo herriak ez du bururik jasoko gizon zikoitzengandik. Zikoitz horietakoak ditugu beren buruak kulturaduntzat jo eta norbere herriaren kultura ezagutu gabe, harro, euskara eta euskal literatura mesprezatzen dutenak. Bada anitz holako gure alorrean. Konturatzen ez direla, norbere herria ezagutzeke nekezagoa dela norbere burua ezagutzea ere.

Frutua emateko, sustriaiak beharrezko dira. Sustriaiak, norberari dagokion lurrean ondo errotuak behar dira, emango duena norberarenetik emango badu.

Euskaldunen alfabetatze harira itzuliz, esan beharrean gara, gaur egun dugun bete beharrik handienetako bat dela, euskaldunak euskaraz irakur eta idaztea. Honetarako antolakizun berezia egin zuten R. Arregik eta bere inguruan bildu zen gazte taldeak, oinarrizko erregela batzuk jarriz, idazkeratik hasi eta gramatikaren analisi bereizkuntza premiazkoenak irakasteko eta, era berean, euskal literaturaren historia eta idazle hautatuen zatiak irakurtzeko. Denbora gutxian, ikasle euskalduna gehiegi nekatu gabe, euskarak beragan daraman hizkuntz aldetiko adierazpen indarra eta literaturaren berri labur baina aipagarriekin jabetzen da.

Euskaldunok geure literatura ere badugula esan beharra dago. Ez gu ibili garen eskoletan erakutsi digutenagatik. Baina ordua da jakiteko, euskaldunok orain arte geure literaturari egin diogun jaramonarentzat, literatura aberatsegia eta ugarietgia dugula.

Hizkuntza berez zerbait esateko den bezala, mundu modernoan, irakurtzen jakitea, irakurriarekin baliatzeko da. Baina, euskaraz irakurri behar dela esatea ez da aski, ez eta euskaldunak alfabetatzea, gero euskaraz zer irakurri ez badago edo ez baleki. Horregatik, alfabetatze kanpaina hauek berarekin darimate gure literaturaren berri ematea, bai lehengo mendeetakoa eta bai gaur egungo idazleena ere. Gauzak honela eratzeak eman dizkio alfabetatze ekintza honi hain ondore onak.

Orain arte inongo eskoletan irakatsi ez digutena eta hain geurea dena irakasten baitigute kanpaina hauetan. Euskara irakurtzeko ohitura guti edo batere izan ez duten euskaldun guziak igaroko balira ikastaro horietatik, geroan, eta uste baino

azkarrago, bestelako etorkizunik izango genuke gure kulturaren bideetatik eta euskararen bizitzan.

Bai, inoiz ez da berandu, eta "Euskaldunok euskaraz: idatzi, irakurri, hitz egin", zeren, euskaraz egitea, Euskal Herriarekin egotea da.

VII - Euskal Literatura

XIV. mendean hasten dira, nolabait esateko, gure literaturaren lehenengo izpiak, antzinako kanta epiko eta eresien zatiekin, herri literatura bezala bildurik, ezagutzen ditugunak hain zuzen. Gero, zerbait luzeago XV eta XVI. mendeko kantak heldu zaizkigu, egile ezezagunenak, ahoz-ahoko herri literaturaz hauek ere. Horietarik, aipatzekoa da, agian osorik iritsi zaigun bakarretakoa Bereterretxen khantoria dela. Kanta horietan bi era edo egitura nabari dira: alde batetik, Erdi Aroaren azkenaldiko literaturaren joera, baina bestetik, koblakari eta bertsolari motazko legeen arabera eginak gehienbat.

Gauza ziurra da, inprimaketari Etxeparek eman ziola hasiera, 1545. urtean argitaratu zuen poema liburuaz. Mende berean, Leizarragak itzuli eta argitara eman zuen *Testamentu Berria* (1571).

XVII.aren lehen partetik lan ugariago eta aberatsagoak etorririko ziren eta gorengo maila merezi duen Axularren *Gero* deritzanak 1643an ikusi zuen argia. Ez ginateke gaizki gaur argitaratzen diren txarrenak haiek bezain onak balira.

Euskal literaturaren hasieretan, mugaz hemendik ez zen mugaz handik bezalako mugimendurik. Hemen, foruen babes-

pean goxo bizi ziren, erdaraz naharo euskararen apologiagintzan. Horregatik eskertu zuen Klaberia apezak, 1636. urtean, Joanes Etxeberri Ziburukoaren lana, honako bertso hauekin:

*Burlatzen naiz Garibaiez,
bai halaber Etxabez,
zeñak mintzatu baitire
erdaraz Eskaldunez.*

*Ezen zirenak geroztik,
Eskaldunak hek biak,
eskaraz behar zituzten
egin bere historiak.*

*Eskaraz egin dituzu
Etxeberri, zure obrak,
ohoratu nahiz zeure
ahalaz herritarrak.*

*Zer errefrau eder baita
hizkuntza arrotzetan
hura aditzera ematen
daroezu beretan.*

*Esker bada eta aitor
duzula berezia
zeren xoratu duzun
herritarren mihia.*

Horregatik, hemen maiz entzuna dugu, euskaraz ez dagoela liburu idatzirik. Eta iritzi hau ez da auzokoa, gure etxe barnetikakoa baizik.

Jadanik, ondare edukia ezagutarazteko, auzotik etorriak burutu zuen lehendabiziko lan serioa, euskal literaturari behar zuen maila emango ziona. Hau zen Julien Vinson, 1891ean *Essai d'une bibliographie de la langue basque* katalogazioarekin euskara idatzia bere ilunpetik aterako zuena. Lehenago zenbait

historiagilek beren lanetan berri laburrak eman bazituzten ere, Vinsonen ondoan txiki gelditu ziren.

Agian, oroigarriak ditugu, besteak beste, Francisque Michel-en *Le Pays Basque* (1857) deritzan liburuko "Poésies populaires des basques" saila, J.D.J. Sallaberryren *Chants populaires du Pays Basque* (1870), J. Manderolaren Cancionero vasco (1877-1878) eta beste.

R. M. Azkueren *Cancionero popular vasco*, mende honen lehen urteetako bilketa lanez osatua, eta *Euskalerrriaren Yakin-tza*, lau tomotan, 1935-1947. urteetan argitaratuak. Bestalde, J. M. Barandiaranek mende honen lehen partean egin zituen ipuin eta kondairen bildumak, *Hojas de Eusko-Folklore* zeritzaien orri haietan argitaratuak. Bada horietan herri literaturaz zer ezaguturik.

Geroztik etorri dira euskal literaturaren historiak. Euskaraz, lehenengoa, nik dakidanez, nolabaiteko metodologiaz Orixek argitaratua: "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra", 1927an *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratua eta Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* (1935). Azkenaldian egin diren lanik sakonenak, Mitxelena eta Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* deritzaienak dira, lehena 1960an eta bigarre-na 1961ean argitaratuak. Horien ondotik eman zigun Mitxelena berak *Textos arcaicos vascos* (1964). Tovarren *La lengua vasca* (1950) dugu beste liburu bat kontuan hartzekoa, hizkuntzaren tipologia ikerketaz gainera, XVI. mendetik XVIIIra arteko literaturaren berriak eskaintzen dizkigu, Larramendi, Haraneder, Pouvreau, Kardaberaz eta beste zenbait idazleren berriak emanaz. Gaur egun gure literatura ezagutzeko hain beharrezko zaizkigun liburuak.

Antologiak maiz agertu dira, batez ere poemenak. Idazlerik hautatueneekin egina da Lafitteren *Eskualdunen Lorategia*, 1931an, bertsoz eta hizlauraz, 1800.era arteko egileekin osatua; Villasanteren *Euskal Gramatika llabur eta Idazleen pusketa hau-*

tatuak, 1956an, eta lan bera osatuago aurkitu genezake Omae-txebarriaren Euskera izeneko luburuan, 1959.ean. Etxenagusiak eratu eta argitara eman zituen *Euskal idazleen lorategia* izenez, hitz lauz, 1965ean bizkaieraz eta 1967an gipuzkeraz, multikopiaz eginak, eta haiek oinarri harturik Hegosa argitaletxeak argitara berri du lan osatuagoa, *Euskal idazleen lorategia, itz lauz* (1969). Bertsoz berriz, ugariagoak dira, eta hauen arteko bilduma nagusia A. Santi Onaindiaren *Milla euskal-olerki eder* dugu, 1954an agerrarazia.

Baina euskarak inoiz izan badu literatura aldetik idazle ugari eta onik, literaturaren ahapaldi guzietan garaian garaiko gaiari oraturik, gaur ditu, noski. Beren izate eta lanen berri, aski naharo, emanak ditut idazle katalogo eran argitaratu nuen *Escritores euskéricos* (1968) izeneko liburuan.

Beraz, beste hizkuntza batzuen mailara ez garela iristen? Hala ere, euskara idatzian bada zer hauta, zer irakur, eta zer eza-gutu.

Norbere burua ezagutu ezik, nekez ezagutzen omen da bes-terena. Eta norbere herriko literatura ez ezagutzea, norbere herriari iruzur egitea bezala da.

* * *

Gure herri literatura beste edozein herrirena bezain aberatsa eta ugaria dela zioen Mitxelenak bere *Historia de la Literatura Vasca*-n.

Gaur, literatura idatzia ere ez dugu hain urri. Literatura landu edo kultista honetan, munduko azken boladak modaz dakarrena edo bizitzak berak beharturik sortzen doan era berriko literaturatik emaitza askorik ez bada ere, ez uste izan egin ezagatik denik, direnak non argitara biderik ez dutelako baizik. Gure argitaldarien jabe eta zuzendariak lehenera gehiago begiratzuz bizi direlako da, zeren batez ere poesian oraingo erdarako-en zorrik gabeko lanak ezagutzen baititugu. Bestalde, argitara-

tzeen kopuruak erakusten digu literatura landuaren maila, hile-
ro bitik hiru liburura argitaratzen dira aspaldiko bost urte haue-
tan. Aldizkariak berriz, ugariegi ere baditugu, sakabanaturik
euskararen indarrari eta batasunari behar bezala lagundu ahal
izateko. Oso tristea da gertaera hau.

Baina, beti izan behar dugu gogoan literatura landua idazle
bakoitzaren baitan garaiko mende-giroz izan behar duela, egiaz
indartsua eta interesgarria izango bada. Beti, hauetarik hobere-
nak pasako dira geroan klasiko izatera, batez ere literaturaren
aldi historikoen balioagatik.

Esan beharrezko zait, gaur egungo iritzian, etorkizunera
begira, uste baino balio handiagoa duela herri literaturak. Eza-
gutzen ez dugun egileek noizbait eginak eta herriak bere gogoz
harturik eratorri zaizkigunak. Zeren herri literatura, erresuma
bakoitzean, gogozko sentiberatasunaren hautagai izan delarik
iturburu onean sustraitua baita. Oroit arbasoek mendez mende,
ahoz aho, dakarrenetik iritsi zaigula. Inoiz aldatua eta purtzil-
dua heltzen bazaigu ere, maiz hobetua, herriak bere gogora hezi-
tua, herri beraren sentiera nabari duela. Hor dago herriaren
gogoa biluzik. Ongi zioen Rodney A, Gallop-ek bere *A Book of
the Basques* liburuan "...there are few things in which a nation
reveals its character so fully as in its folk-literature" (...gauza
gutxi dira nazio batek bere aztura hain naharo agertzen dutenak
bere herri literaturan bezala). Beraz, ez dezagun gutietsi herri
literatura.

Era honetako literatura aberatsa duenak ez du zertan lotsatu
norberenari gutietsirik literatura kulto delakoa aberatsago duten
herrien aurrean. "Garean gareana" esaldiak dioenaren legez
jokatu behar dugu. Axularren Gero, gizon baten lana da, lan
jakingarria noski, gizon bat eta bere jakintzaren neurria, bere
mendeko giroa eta hizkuntza idatzia ikertzeko. Baina, herri lite-
ratura, ahoz aho etorri zaiguna, beste maila batean jartzekoa da.

Herri osoan sustraitu dena, herriaren barne-muinetan itsasia da, eta honelako literatura nekez gaineratu lezake gizon soil baten lanak, batez ere herri horren erraiak ezagutu nahi dituenarentzat. Are gehiago herri horren semea izanik, eta bere jatorrizko izaera xehetasunez ezagutu nahi duenarentzat, zeren lehenago esan dugun bezala: norberaren herria ezagutzeke, nekezagoa baita norbere burua ezagutzea.

Otoi, herri literaturako olerkiak zein ipuin edo kondairak, esan dudan bezala, noizbait egileren bat izan zutela, noski. Zeren herriak ez baitu bere kabuz literaturarik sortzen, baizik egileren bat da sortzaile. Herriak, bere edukiaren eraginagatik hunkigarri zaionean ahoz aho erabiltzen du gehienetan egilearen izena itzaliz galdu arte. Eugeniusz Frankowskik argi utzi zigun 1930. urtean Eusko Ikaskuntzak Bergaran herri arteaz ospatu zituen batzar haietako hitzaldian. Poloniarraren sarrerako hitzaldi hura jakingarria izan zen, argi adieraziz, herri arte izango ziren ekintzek noizbait egileren bat izango zutela, denborarekin izengabeko bihurtu baziren ere; herriagandik berez ezer sortzen ez denez gero. Baina garrantzizkoa zela herriagandiko hautapena. Ikus V Congreso de Estudios Vascos. *Arte Popular Vasco* (1934) liburuarren 5. orrialdean.

Euskaldunon artean, Garibairen errefrau bilduma alde batera utziz, lehen elezahar biltzailea, beharbada, Arnald Oihenart genuen, 1657an Parisen argitara eman zuen *Atsotitz edo errefrauak eta gaztaroko poesia* haiekin.

Herri literatura baliatzen ingelesak hasi ziren XVIII. mendearen azken aldera, eta haien jarraile alemanak XIX.aren hasieran. Iberiako Penintsula honetan, uste da, katalan eta portugesak hasi zirela lehenengoz. XIX. mendearen azken aldera, R. Serra i Pagés (1929an hila) eta J.T. Fernandes Braga (1843an jaioa) jaun horiekin. Baina beti gertatzen da ustea erdi ustela. Zeren gure Iztueta (1767-1845), beste ageririk ez dugun arte-

an, izango da lehen folklorista eta lehen elezahar biltzailea. Ez dago zalantzarik, lehenago Ingalaterran eta gero Alemanian sortu zen giroak bultzaturik egingo zuela, bestela nekeza da ulertzea ordena beraren mailan kokaturik zelan sartu zen.

Euskaran lana egitea beti da iluna. Ez baita euskara portugesa, gailegoa eta katalana bezain mintzaira erraza gaztelerara edo frantsesera itzultzeko. Gureak bere moldeak latinetik urrutiago dituelako, beste haiek baino. Eta inoiz zerbait itzultzen bada ere, tipologiaz elkarrekiko hain moldekaitz direlarik, itzulpenen gelditzen zaio baliorik erdi. Beraz, horrela gelditu zen gure Iztueta ilunpean, bere lehenbiziko liburua 1824an argitaratzeaz geroztik etorri ziren zenbait atzerritar: Borrow (1839), Fr. Michel (1857), C.A.F. Mahn (1857), Madame de la Villéhélio (1869), Bordes (1898), eta abar.

Aitortu beharrezkoa da kanta bilketak Chaho euskaldunak ere egin zituela Iztuetak baino lehen (1811-1858). Eta Jose Manterolak, *Cancionero Vasco* (1877-1878), euskaraz eta gaztelerazko itzulpenez iritzi-oharrak gaineratuz. Geroztik, Barbier, Azkue, Barandiaran, Dufau, Aita Donostia eta beste asko izan ditugu bilketa horietan jarraitu dutenak.

Uste dut, gure literaturaren historietan ez dela behar bezala baliatu gure ahozko herri literatura hau. Bere teoriatzko mamia ondo adierazia da aipatu dudan M. Lekuonaren *Literatura oral vasca* liburu hartan. Aurretik emana zuen *La métrica vasca* zeri-tzana, Gasteizen, 1918an.

Honetaz lan nagusi eta sakonenak, aldi berean Euskal Herri guzira hedatuak, arestian esan bezala, J. M. Barandiaranen *Hojas de Eusko-Folklore* deritzanetan aurkitu genitzaque, gehienak "Auñamendi" argitaldaria *El Mundo en la mente popular vasca* izenez lau liburutan berriz argitaratuak dira. Baita ere R. M. Azkueren *Cancionero popular vasco* eta *Euskalerrriaren Yakintza* liburuetan.

Aipamen berezi bat merezi dute horretan orain lanean ari diren A. Jorge de Riezu-k eta Antonio Zavalak.

Lehenengoa, Aita Donostiaren lanak argitaratzen ari da, *Obras musicales del Padre Donostia* izenez, eta ondoren bere folklore lanekin jarraitzeko asmotan da. Gainera, *Flor de canciones populares vascas* (Buenos Aires, 1948) bildumaren gertatzailea dugu. Eta ziurki herri kanta zahar hauetan dugu gure poesiarik jatorrena ez ezik sakonena eta aberatsena, eta bai oraingo eta bai geroko euskal poetek, emaitza onik izango badute, bertatik edan beharra izango dute; gure poema nagusiaren barne-muina bertan baita.

Bigarrena, bestalde, A. Zavala egiten ari den lana, benetan txalogarria da. Bertsolaritza dugularik gure herri literaturaren berezitasunetariko bat, penagarria zen historian zehar bertso horiek galduaz joan beharra, norik jatorrik izan ez zuelako. Noiz-bait agertu zen gure Zavala betirako galzorian zeudenak salbatzera eta hasi zen bilduaz, argitaratuaz, ezagutaraziz. Horiez gainera, bertsolaritzaren historia eta erregelak A. Santi Onaindiaren *Gure bertsolariak* (1964) liburuan aurki genitzake.

Aipatutako bilduma horiei begiratu bat ematea aski da gure elezaharra oso aberatsa dela jakiteko. Lastima gure estudianteei beren asignaturetan irakatsi eza. Ezagutu gabe, zelan maitatu? Irakatsi gabe, zelan jakin? Euskara pobrea delakoaren ustez gutiesten duten horietarik, zenbatek utziko lukete gure kulturaz eta gure literaturaz zerbait balekitez? Campi3n zenak ongi zioen bezala esango nuke nik ere, herri atzeratuak bitxirik hoberenak ere bota egiten dituztela, beren balioa zer denik ere ez dakitelarik. Hau ez ote guri gertatzen zaiguna?

Ahozko literatura dugu herri kulturaren iturburu jatorren lekuko, zenbat eta hizkuntza zaharragoa, iturburuak hainbat zaharrago eta hainbat errotuago herriaren izaeran.

Euskal olerkariak ere, funtsezko lanik egin nahi baldin

badute, euskal kanta zaharretako bideak aztertu eta urratu beharko dituzte, bertan oinak erroturik gaurkoan aritzeko. Gainera, kanta zaharrek erakusten digute euskararen mila gauza berezi nekerik gabe jolaskor arituz.

VIII - Azken hitzak

Hizkuntzaren alde doazen arrazoi puntu oro aztertu ditugu. Gehiago luzatzeak ere bide beretik eramango gintuzke. Ez genuke hortik askoz gehiago aurreratuko. Komeni zaiguna, iritzi hauek herri euskaldunean zabaldu behinik behin, orain beren hizkuntza axolagaberik uzten dutenen artean kontzientziaz jabetzeko. Aurrerantzean euskaldunek ez dezatela beren hizkuntza gutxietsirik baztertu.

Era berean ematen ditut euskara idatziaren zenbait berri. Gure literatura hain aberatsa ez bada ere, ez da uste den bezain txiroa. Gaurkoagoa izatea, guri dagokigun gauza da. Literaturaren zenbait sail oso aurreratuak ditugu gaurko idazle berrien ekintzaz, baina jakintzaren bideetatik, aitortu beharrean aurkitzen gara, oraindik arlo asko daudela landu beharrez. Euskarak badu barnetiko indarra zama hori erraz eramateko, baldin euskaldunok, bakoitza bere bidetik ekinaz lan egiten badugu.

Liburuxka honetara jaso ditugun lekukoak jakinez gero, ezin diogu amor eman hizkuntzaren gainbeherari. Hori axolagabekeria litzateke, eta inork ezin du neurtu axolagabekeriak zer nolako kalteak ekarri liezazkiokeen herri bati. Luzarora, nortasun guztien hondamendira eroriko ginатеke. Eta, ez dugu eskubide-

rik arbasoengandik datorkigun ondarea gure ondorengoei ukatzeko.

Sorkundetik, bizitzak, gure bitartez dakarrena hobetzea edo hondatzea gure esku dugu, noski. Baina ez dut uste galarazteko eskubiderik dugunik, gurea adina gure semeena dena. Egoerarekin jabeturik, gure erantzuna ematera behartuak gaude. Ez dezagun onar hizkuntzaren diskriminaziorik. Jokabide txar batek zapaltzen duena ez da bakarrik hizkuntza bat, baizik herri baten kultur-tresna, hortik kultura baten etena, herri izaeraren mami garrantzizkoenaren zati baten galera. Era honetako diskriminazioa, ONU-k, genozidiotzat hartzen baitu (ikus, *Protección a las minorías*, 1967, 4 eta 10. orrialdeak).

Hizkuntza bakarra munduan, hemengo iritzien kontra maiz esan digutenez, gaur, asmo hori utopiatzat hartzen da zentzudunen artean. Hizkuntzalariek, jakintza horren ikerketan gehien arduratzen direnek, gutxien sinisten dutenak dira. Gainera, hori aurpegira botatzen digutenek ez dira esperanto dakitena, ez eta ere munduan hizkuntza bakarra guzientzat eta aldi beran herri bakoitzak hori eta horrez gainera berarena proposatzen dutenak.

Gu konforme ginatke gure eta munduko bakar horrekin. Baina gaurko iritziak, badirudi, beste bide batetik doazela, zeren gaur uste baita munduko hizkuntza baturik izatekotan ere, gauzarik beharrezkoenatarako, klabez edo izango litzatekeela. Arrazoi logikoen tresna bat baizik ez litzateke izango, eta ez orokorki benetako hizkuntza bat bere era askotariko zehaztasun eta bereizkuntza guziekin. Konputadore elektronikoen erara ordenaturik izango litzaiguke hizkuntzagailu hau, hizkuntzaren tarteko tresna bat, baina hizkuntza bere eginkizun guztietatik baztertuko ez duena, ez eta gutxiagorik ere, gauzarik beharrezkoenak soil soilik adierazteko baizik. Eta, hizkuntza, sentiarazteko eta pentsarazteko ere bada, ordenagailuko klabe horiek inoiz emango ez diguten bezala.

Gaurkotasunez begiraturik, hizkuntzen balioak lekua irabazten doaz. Analitika edo azterbidezko filosofian eta batez ere existentzial filosofian garrantzi handia ematen zaie hizkuntzei, batez ere Wittgenstein-ek sortzean “hizkuntzaren filosofia” eta Heidegger-ek agertzean hizkuntza “izanaren gorde-lekutzat”.

Azken berroita hamar urte hauetan, hizkuntza guzien baliozko iritziak 180º-ko jira egin dute. Horregatik, ahoa beteko arrazoiak Txillardegik, esaten duenean: “Erresumaren lehenengo instituzioa gaur hizkuntza da”.

Utzi dezagun axolagabe lasaiak izateari, geroan ahalge aurkizterik nahi ez badugu. Utikan, eskuak poltsikoan sarturik ustelkerian gure etorkizunaz itxaropentsu mintzo diren horiek, berrikeretan jarduteko bestetarako ez diren ahozabalok, maiz harro direnak, munduan hoberenak gu garena sinisturik.

Egia esan, nik ez dut sinisten mirakuluekin, eta bai gizon direnen ekintzekin. Gure errealitatea hemen eta orain da. Momentu guzietako une bakoitzean jotzen dira gure izan edo ez izanaren interesak.

Hitz gordinak direla? Hala ere, gehiegizkorik ez da historia-
ren une nekegarri honetan.

Beraz, eten gabe, etsi gabe, eutsi gure izate naturalari. Ekin eta ekin, egun batean bide okerretik abiatu zen historia behar duen tokira zuzentzen. Gure poeta bikainei adituaz, esango nuke, Arestik ongi zioena: “bakeak euskarari kalte egiten bait dio”; zeren, ez dadila gerta Azurmendik bere poeman zioena:

*Ba zijoan egun batez nire herria
bizitzaren bidetik... Eta gizonak
elkar begiratuaz esan zuten:
“Ba dugu bake; jarri”.
Inork ez zuen erantzun:
hilda zegoen herria.*

Izen zerrendaren aurkibidea

- Adema, G., "Zalduby", 49
Agirre, J. B. (Asteasukoa), 68
Aire, F., "Xalbador", 14
Alonso "El Sabio", 108
Alvarez, J. L., "Txillardegí", 94,
126
Amundarain, J. F., 27
Anderson, M. S., 26
Aranburu, X., 32
Aranzadi, T., 56, 91-93
ARARTEKO, 26, 56-59, 68
Arbelbide, J.-P., 14
Aresti, G., 33, 112, 126
Arregi, R., 17, 67, 113-115
Arrese Beitia, F., 12
Astigarraga, L., 46, 102
Atatürk, 12
Azkue, R. M., 13, 16, 29, 118,
122
Azurmendi, J., 126

Barandiaran, J. M., 13, 91, 118,
122
Barbier, J., 14, 122
BATZAR NAGUSIAK, 27, 46

Belaustegigoitia, F., 106
Bengoetxea, 28
Bereterretxe, 116
Berriain, J., 42
Beristain, I., 109
Berzeo, G., 44
Betolaza, Dr., 42
Bordaçarre, P., "Etxahun-Iruri",
14
Bordes, Ch., 122
Borrow, G., 122

CADIZko KONSTITUZIOA, 27
Camiñón, A., 123
Carlos III, 46, 102
Cervantes, M., 104
Costa, J., 49
Chaho, A., 122

Dagerre, P., "Axular", 19, 47,
116, 120
Dodgson, E. S., 20
Dufau, 122
Duvoisin, J., 14

- Elso, S., 42
 Escaligero, J. C., 48
 Espriu, S., 20, 35, 71, 78
 Estornés Lasa, B., 51
 Etxabe, B., 117
 Etxaide, Y., 13, 27
 Etxeberri, J. (Ziburukoa), 19, 117
 Etxeberri, J. (Sarakoa), 47-48
 Etxenagusia, K., 119
 Etxepare, B., 19-21, 40, 116
 EUROPÄISCHES OMBUDS-
 MANN INSTITUT, 59
 EUROPAKO KONTSEILUA,
 57, 64
 EUSKALTZAINDIA, 14, 16-17,
 19-20, 41, 45, 61-65, 67, 106-
 107, 113
 EUSKO IKASKUNTZA, 18-19,
 28, 61, 121

 Felipe II, 41
 Felipe V, 102
 Fernandes Braga, J. T., 121
 Fernando "El Católico", 41
 Ferreira, C. E., 35
 Frago, J. A., 38
 Franco, F., 10, 14, 30, 53
 Frankowski, E., 121
 FRANTZIAKO ESTATU KON-
 TSEILUA, 60, 64
 Fuente, P. de la, 25-26, 28, 42

 Gallop, R. A., 120
 Garat, D., 27
 Garate, J., 52
 Garibai, E., 117, 121
 Gauchon, D., 65
 Gayo (Gaius), 25
 Gazteluzar, B., 7

 Goñi Gaztambide, J., 38, 41-42
 Gorrotxategi, J., 38-39
 Gracián, B., 104
 Grimm, anaiak, 13

 Haraneder, J., 118
 Heidegger, M., 126
 Hernandorena, G., 87-89
 Hoyos, L. de, 92
 Humboldt, W. von, 18, 79, 92

 Ibiñagabecitia, A., 113
 Idoate, F., 39, 41
 Iparragirre, J. M., 49
 Irigaray, A., "Apat-Etxebarne", 39
 Itero, M., 41
 Iztueta, J. I., 121-122

 Jacques, V., 93
 Jespersen, 94

 Karlos V (Carlos V), 41
 Kardaberaz, A., 46, 49, 51, 53,
 118
 Klaberia, 117

 Lafitte, P., 118
 Lakarra, J. M., 39
 Lancre, P. d', 50
 Larrakoetxea, A., "Legoaldi", 13
 Larramendi, M., 46, 118
 Leizarraga, J., 19, 41, 116
 Lekuona, M., 45, 118, 122
 Lepe, P., 42-43
 Lévi-Strauss, C., 94
 LINGUA NAVARRORUM, 38-
 39, 42, 44, 62
 Linschmann, Th., 19

- Machado, A., 28
 Mahn, C. A. F., 122
 Manterola, J., 122
 Mariana, J., 48
 Martinet, A., 94
 Martínez Ruíz, J., "Azorin", 104-105
 Mateo, J., 51
 Mendibil, P., 52-53
 Menéndez Pidal, R., 18
 Michel, Fr., 118, 122
 Mitxelena, K., 14-15, 21, 37, 91, 118-119
 Mitxelena, S., 76
 Mogel, J. A., 14, 46-47, 66
 Moll, F. de Borja, 103-105
 Monreal, G., 45
 Mujika, F., 9, 11

 Nadal, S., 98
 NACIONES UNIDAS, 100
 Nebrija, A., 43, 108

 Oihenart, A., 48, 121
 Olaetxea, J. B., 80, 88
 Omaetxebarria, Ig., 119
 Onaindia, S., 119-123
 ONU, 60, 62, 86, 96, 100, 112, 125
 Ormaetxea, N., "Orixe", 15, 34, 118
 Ortega y Gasset, J., 27
 Ortiz de Zarate, S., 12
 Otaño, P. M., 56
 Özdamar, E. Sevgi, 12

 Palla, W., 59
 Pascual Iturriaga, A., 46, 102
 Petschen Verdaguer, S., 66

 Pi y Margall, F., 27
 Piñeiro López, R., 71, 94
 Pio V, 41
 Pouvreau, S., 118
 Prat de la Riba, E., 109
 Protagora, 56

 Ramírez, D., 41
 REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS, 52, 83
 Riezu, J. de, 123

 Sáenz, M., 12
 Sallaberry, J.-D.-J., 118
 Saussure, F., 94, 109
 Schuchardt, H., 19-20
 Serra i Pagés, R., 121
 SINDIC DE GREUGES, 56
 Soldevila, 102

 Tauer, N., 22-23
 Tovar, A., 101, 118
 TRENTOko KONTZILIOA, 40-42
 Trubetskoi, N., 94

 Ugalde, M., 16, 76-78
 Ulibarri, J. P., 46-47
 Unamuno, M., 19, 75-79
 UNESCO, 60, 86, 96-97, 99-100
 Urruzuno, P. M., 13
 UZTARITZEKO BILTZARRA, 26-27

 VALEDOR DO POBO, 56

VATICANO II. KONTZILIOA, Weinreich, U., 21
99-100 Wittgenstein, 126
Vega, Lope de, 104
Verus, 26
Villasante, Fr. L., 68, 118
Villéhélio, Mme. de la, 122
Vinson, J., 20, 117-118
Vitoria, Fr. F., 25-26, 28
Zabala-Arana, J., 11
Zabala, J. M., 47
Zaitegi, J., 22
Zavala, A., 123
Zulaika, G., "Aita Donostia",
122-123

Liburu hau
Itxaropenak inprimatu du
Adobe Garamond letra-tipoak erabiliz,
1998. urteko otsailean.